

ZU HEMEN ZAUDE goiena



Azken ukituak

'Handia' film luzearen joste-lanak egiten dabilta
Donostiako Zinemaldian erakusteko / 38

Aitor Arregi
zuzendaria, Bilbon,
soinu nahazketa
lanak egiten .

JOSE MARI GOENAGA

Uarkapeko eraikin osoa, kirolerako

Astelehenean zabalduko dute, eta ate irekiak egingo dituzte datorren astean Arrasaten egokitu duten gimnasio publiko berria probatzeko / 10

**Euskal magoekin
Magia Astea egingo
dute Aretxabaletan,
irailaren 6tik 10era
bitartean** / 15

**550 danbor-jole
inguruk eman dute
izena dagoeneko San
Martin jaietako
danborradarako** / 27

**Bihar, zapatua,
Arrasate Hiria eta
Bergara Hiria
torneoak jokatu
dituzte** / 36



**Mikel Gonzalez de
Martin futbolari
arrasatearra fitxatu du
Zaragozak, hiru
denboralditarako** / 37

SINADURAK



**ARETXABALETAKO ETA LEINTZ
GATZAGAKO ANDRAMAIXAK** / 21



Artilearekin zer
egin aztertzen
dihardute

Lagun Aroko
zuzendariarekin
berbetan

GELMAKO AZKEN FASEA!
ARRASATE

Irailaren 1etik
aurrera planoak
eta prezioak
gure webean

BISITATU ETXEBIZITZA PILOTUA

BIBAI 943 25 38 21 www.inmobibai.com

Martitzenak zer emango zain

Edesa Industrial SL enpresako zuzendaritzak asteartean aurkeztuko ditu plan industrialarekiko alternatibak; langileek, berriz, elkarretaratzea egingo dute Garagartzako plantaren kanpoko aldean, batzar horrek irauten duen bitartean



Komunikabideak eta langileen ordezkariak Garagartzan, asteartean. GOIENA

Ubane Madera DEBAGOIENA

"Zain gaude, ea zer gertatzen den asteartean. Sorpresaz harapatu gintuen enpresaren norabide aldaketak. Ez genuen espero, eta orain, zain gaude", esan zuen atzo, eguena, Rikardo Perezek, Edesa Industrialeko langile batzordeko presidentea, enpresako zuzendaritzak datorren asterako eginda hitzorduaren harira.

Martitzenean 16:00etan dute, hain justu, batzarrerako ordua bi aldeek. Eta apurtxo bat lehe-

nago bertaratuko dira Edesa Industrialeko eta Geysler-Gastecheko langileak, Garagartzako plantaren kanpoko aldean elkarretaratzea egingo dute-eta, batzarrak iraun bitartean.

Itxaropenerako zirrikitua

Batzar horrek zer emango duen, baina, gaur-gaurkoz erabat ezezaguna da. Are gehiago, oraingo astean Edesako zuzendaritzak erakutsitako ezusteko jarrera aldaketaren ondoren. "Mantentzen du negoziazio mahaia zaba-

lik, ez dugu planteamendurik ez suntsitze ERErako eta ezta ere hartzekodunen konkurtsorako, gure beldurra hori zen, eta hori ez dago gaur egunean mahaian. Errebisatu egin behar dituzte planteamendu guztiak, ea nora hel gaitzkeen, eta laga dute mahaia zabalik datorren astearterako", jakinarazi zuen Jesus Lasak, Geysler-Gastecheko langile batzordeko presidentea.

Gogoan izan beharra dago enpresak uztailaren amaieran aurkeztutako plan industrialak 220

langileren kaleratzea eta, besteak beste, Arrasateko plantaren itxiera planteatu zituela, enpresaren esanetan, "bertako (Garagartzako) negozio lerroen kontribuzio marjina negatiboak" ez duelako lagatzen "jarduerarekin segitzen". Horrez aparte, lantalde osoarendako suntsitze ERErako eta hartzekodunen konkurtsua aurkezteko aukerak zabalik utzi zituen enpresak abuztuan, langileekiko ultimatum modura.

Edozein modutan, oraingo astean enpresak plan industrial

eta sozial berriak aginduta, erabateko jarrera aldaketa horri esker, itxaropenerako zirrikitua bat zabaldu zitzaizen langileei, eta horri eutsita egingo diote aurre martitzeneko batzarrari.

Irailaren 30erako zehaztu behar

Batzarrak batzar, irailaren 30a data erabakigarria izango da. Ze uztailaren hasieran aurkeztutako aurre-konkurtsuaren epeak tarteko, "irailaren 30erako derrigor izan behar dute zerbait finkatuta", esplikatu



Eibar futbol taldearen partidua Goiena Klubean!

Goiena Klubeko bazkideak zaretenok Eibar futbol taldeak 2017-2018 denboraldian jokatu dituen ligako partidu guztietarako lau sarreraren zozketan parte hartzeko aukera izango duzue -bina sarrera bikoitz-.
Adi egon, beraz!

Eta oraindik ere ez bazara bazkide, ez itxaron eta harpidetu zaitez!



2017-09-15 / Eibar - Leganes
2017-09-24 / Eibar - Celta
2017-10-15 / Eibar - Deportivo
2017-10-29 / Eibar - Levante
2017-11-19 / Eibar - Betis
2017-12-03 / Eibar - Espanyol
2017-12-17 / Eibar - Valentzia
2017-12-20 / Eibar - Girona
2018-01-14 / Eibar - Atletico
2018-01-21 / Eibar - Malaga
2018-02-02 / Eibar - Sevilla
2018-02-18 / Eibar - Bartzelona
2018-02-28 / Eibar - Vila-real
2018-03-11 / Eibar - Real Madrid
2018-04-01 / Eibar - Real Sociedad
2018-04-15 / Eibar - Alaves
2018-04-22 / Eibar - Getafe
2018-05-13 / Eibar - Las Palmas

ANIMA ZAITEZ

2017 (irailetik aurrera), 20 euroko kuotaren truke egin zaitez bazkide. Anima zaitez!
Deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira!.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

du Rikardo Perezek. "Irailaren 30ean, edo aurre-konkurtoa altxatu egiten dute edo ja hartzekodunen konkurtoa prestatzen hasi beharko dira, azaroan berau aurkezteko". Horrek, besteak beste, ordainketa-eten-dura ekarriko luke.

Enpresari dagokionez, berriz, Edesa Industrialek azpimarratu du "jarduera industriala Euskal Herrian mantendu gura" duela, eta "markaren iraunkortasuna bermatu"; halaber, uste dute "jarduera mantentzea posible egiten duten aukerak" badaudela, baina "logikoki alde guztien ahalegina" beharrezko ikusten dute.

Alkatea ez da baikor

Testuinguru horretan, eta behin baino gehiagotan batzarra eskatu eta gero, azkenean, hitzordua lortu eta oraingo asteko

IRAILAREN 30ERAKO ZERBAIT FINKATU BEHAR DUTE, EDO KONKURTSOA ABIARAZI

eguaiztenean izan ziren berbetan Edesa Industrialeko zuzendaritzako ordezkariak Arrasateko Udal Gobernuko ordezkariekin. Arrasateko alkatea ez zen baikor atera batzarretik; eta halaber, zuzendaritzak izandako jardunbidea desegokia iruditu zaiola jakinarazi zien haiei, "gardentasun falta" aurpegiratu eta esanez "langileekin jolasean" aritu izan direla. "Guk inondik inora nahi ez duguna da Arrasate desindustrializatzea, eta ez digute garbi esan hori gertatuko ez denik", azpimarratu zuen Maria Ubarretxenak.

"Eredu berria"

Bestalde, Arrasateko EH Bilduk "eredu berri baterako trantsizio" beharra ikusten du Edesa Industrialek eta Geysen-Gastecheen kasuan. "Langileon alboan egongo da EH Bildu, behin eta berrino diogun moduan, inoiz baino beharrezkoago baita. Langileon arteko elkarlan eta aliantzak izan eta izango baitira kalitatezko lanpostuk herrian geratzeko", diote, besteak beste (hausnarketa osoa 8. orrian).

Aurten ere turistek ez dute hutsik egin Debagoiengan

Kataluniatik eta Madril ingurutik etorritakoak izan dira gehienbat, baina beste toki batzuetatik ere hurbildu dira

I.B. /E.A. DEBAGOIENA

Debagoiengan turista asko izan ohi dira abuztuko oporraldian, eta aurten ere hainbat izan dira. Lamaino Etxeberri Bergarako landetxean, esaterako, leku askotariko jendea izan dute, eta oraindik ere badaude hainbat turista, bertako parajeak eta Euskal Herria bisitatzera etorri direnak.

Jende jatorria dela adierazi du Maite Aristegik, Lamaino Etxeberri landetxeko jabeak, munduko toki ezberdinetatik etorriak direnak: "Gehienak Herrialde Katalanetatik eta Madril ingurutik datoz, baina Espainiako Estatuko beste inguru batzuetatik ere etortzen dira; Andaluziatik eta Galiziatik, esaterako. Bestalde, Europatik ere hurbiltzen dira batzuk: italiarrak, frantsesak... Azkenik, bertako jatorria du-



Turistak Bergaran. I.B.

tenak eta gaur egun Amerikan bizi direnak ere hurbildu zaizkigu. Familiakoak bisitatzera etortzen dira hona eta horren ondorioz, egonaldi luzeak egiten dituzte".

Lasaitasun bila

Batez ere, lasaitasun bila etortzen direla azaldu du Aristegik. "Asko estimatzen dute lasai egotea eta paisaiatzatzea, eraikin ezberdinak ikusiz", dio. Gainera, azaldu du Debagoiena puntu estrategiko oso onean dagoela, Euskal Herriko edozein lekutara mugitzea ahalbidetzen duena. Azkenik, bailaran herri politak daudela nabarmendu du, alde zahar interesgarriak dituztenak.

Turismo ereduaren polemika

Euskal Herrian turismoaren ereduaren gaineko polemika izan da, eta, Debagoiengan egoera ezberdina izan arren, aztertu egin beharko litzatekeela adierazi du Aristegik: "Turismoa errekurtsu garrantzitsu bat izan daiteke gure herrian, baina denok bizitzeko moduko bat. Donostiatik etorri diren batzuek esan digute oso polita dela, baina masifikatuta dagoela. Beraz, debate sakon bat egin eta egoera ondo aztertu beharko litzateke", bukatu du.

Super Kids

Jolly Phonics Method

Arrasaten

Zerbitzu berria

Jolly Phonics metodo arrakastatsuan oinarrituta, zure seme-alabek modu dibertigarri eta naturalean ingelesa ikasteko.

3 urtetik aurrera

Jardunaldi irekiak

Kamiseta margotuen tailerra egongo da

Etor zaitetz eta zure seme-alabak ekarri PRIMERAN PASATUKO DUGU!

english

irailak 7

18:00

Etorriko zarela konfirmatu:

Tel.- 943 71 20 55

superkids@mondragonlingua.eus

Araba etorbidea, 4 Arrasate

"Odola emateko beharra handia da oraindik"

Urteko garairik zailena da uda odol emateei dagokienez; izan ere, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak jakinarazi du erdira ere jaisten direla hilabete hauetan; hori horrela, gogora ekarri nahi izan du odola emateko "benetako beharra" dagoela

BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta,
18-behea Oñati.
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

ARRASATEKO
UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2.
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate.eus

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia).
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus

LEINTZ
UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Aretxabaleta
Intxaurtxueta 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Odola emateko unitate mugikorra Arrasaten izango da iraileko bi egunetan. Lehenik, irailaren 5ean –hileko lehen martitzena– anbulatorioan egongo da. Irailaren 28an –hileko azken eguna–, berriz, Laubide plazan egongo da. Bietan, 16:30etik 20:00etara izango dute herritarrek odola emateko aukera.

Horren harira, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak ohartarazi nahi izan du uda sasoiaren %50era ere jaisten direla odol emateak, eta gogorazazi nahi izan du "benetako beharra" dagoela. "Garai hauean gizartearekiko komunikazioa aktibatzen dugu eta unitate mugikorrek jarri. Izan ere, garai zailena da guretzat, eta komunitateko biltegiak handitu behar izaten ditugu. Odol horren beharra duten paziente kopuruak handia jarraitzen du izaten", adierazi du Isabel Vitoria Arabako Odol-emaileen Elkartearen Koordinatzaileak. Horregatik, "herritar guztiei eskatu nahi diegu esfortzu bat egin dezaten, odola emateko", azaldu du. Bukatzeko, ohartarazi du mota guztietako odolak direla ongi-erriak. "Odola ematea inoiz ez dago soberan. Izan A+, izan 0–, guztien beharra dugu", azpimarratu du Vitoriak.

Analisiak, badaezpada

Uda sasoiak, odola gutxien ematen den garaia izateaz aparte, arriskutsuena ere bada. Izan ere, bidaiatzen dugunean, arriskua dugu egon garen lekuan egon daitezkeen birus eta germenak hartzeko. Hori dela eta, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak horien nola-baiteko zainketa bat egiten du, odol-emaileek pazienteei gaixotasuna kutsatu ez diezaieten. Horretarako, "odola eman baino lehen, orri bat betearazten diegu emaileei eta bertan galdetzen diegu non egon diren azken hilabeteetan. Horren arabera guk odol hori analizatzen dugu edo ez", azaldu du Mari Paz Salazar Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko medikuak.

Alde batetik, endemia konkretu batzuk dituzten zonaldeak daude –Latinoamerika, Afrika, Indonesia, India...– eta odol-emaileak egin duen bidaiaren arabera, protokolo desberdinak jartzen dira martxan, kasu biterako zein besterako.

Endemia ezagunena malaria da. "Malariaren kasuan, odol-emaileak gutxienez lau hilabete itxaron beharko ditu herrialde horretatik hona itzuli denetik. Denbora hori igarotakoan, uzten diogu odola ematen, baina poltsa horri analisi bat egiten diogu, jakiteko emailea malaria inkubatzen ez zegoela. Izan ere, sintetarik ez izan arren, kutsatu egin diezaiok ezarri odola ematearekin batera", azaldu du Salazarrek.

Beste ohiko endemia bat Txaga da, Latinoamerikan oso ohikoa dena. Eltxoen ziztada baten bitartez kutsatzen da eta kasu hauetan sei hilabeteko tartea ere uzten dute analisia egiteko.

Nilo birusa

Endemia orokorrean gain, endemia puntu batzuk ere badaude eta horietako bat, uda honetan protagonista izaten ari dena, Nilo birusarena da. Hegazti migrazioak alde batetik bestera eramaten dute eta eltxoen baten bitartez kutsatzen da. "Birus honen zerrenda bat daukagu, eta zerrenda hori ia une oro eguneratzen da. Eltxo hori dagoen herrialdearen edo zonaren arabera, OMEk jakinarazten du informazioa eta Osasun Ministerioak eguneratzen du zerrenda hori", dio Salazarrek.

Hori horrela, herrialdeak baino gehiago, zonak zehazten dira. Birus honekin, hilabeteko tartea uzten da analisia egiteko. "Iberiar penintsulan, Cadiz, Huelva, Sevilla eta Algarve dira eltxo hau gehien dagoen zona, eta, beraz, oporrak bertan igaro dituzten guztiek emandako odol poltsak analizatzen ari gara. Emaile batzuek harrituta begiratzen digute. Izan ere, pentsatzen dute leku exotikoetan bakarrik daudela endemia hauek. Baina ez", adierazi du Salazarrek.

Kontuak kontu, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko medikuak ohartarazi du arduraz jokatu eta odola eman aurretik egiten den galdeketa behar bezala erantzunda ez dagoela arazorik, eta herritarrek odola ematera animatu ditu.

OHIKO ENDEMIEZ GAIN, NILO BIRUSA IZAN DA AURTENGO UDAN ZERESANA EMAN DUENA

Bi hilabeteko atzerapena gidabaimen probetan

Ekainaz geroztik greban daude gidabaimena ateratzeko azterketak egiten dituzten estatuko langileak; iragarri dute astelehenetik aurrera egunero beharrean astean birritan bakarrik egingo dituztela azterketak: eguenetan eta egubakoitzetan

Ubane Madera DEBAGOIENA

Kezka eta ezjakintasun handiarekin hasiko dute ikasturtea astelehenean, irailaren 4an, eskualdeko autoeskolak, Gipuzkoako eta Euskal Herriko autoeskola guztien moduan. Estatuko administrazioaren menpe dauden aztertzaileak –DGT Espainiako Trafiko Zuzendaritzarekin, kasu honetan– greban dira ekainaz geroztik, eta, abuztuaren 23an iragarri zutenaren arabera, azken ordukorik ezean, greban segituko dute astelehenetik aurrera ere.

Astean birritan bakarrik

Hain justu, Asextrak, Trafikoko Aztertzaileen Elkarteak, jakinarazitakoaren arabera, irailaren 4tik aurrera, eguenetan eta barikuetan bakarrik egingo dituzte gidabaimena eskuratzeko beharrezko diren azterketa praktikakoak, ekainean egin zuten moduan; eta ez egunero, berez dagoen moduan.

Astero 200 azterketa gutxiago

Debagoieneko autoeskolaren kasuan, Gipuzkoa da azterketak egiteko zehaztuta duten esparrua, Probintziako Trafikoko Probintzia Buruzagitza, alegia. Beasainen, Azpeitian eta Donostialdean egiten dituzte, hain justu, probintziako azterketa guztiak. Eta Gipuzkoa osorako, gaur egun, bost aztertzaile besterik ez dago: hiru Gipuzkoako lantaldekoak eta bi Bizkaitik bertaratzen direnak, Asextrak emandako xehetasunen arabera.

Horrek, berez, gaur egun badakar ja azterketak egiteko gaitasun txikia. "Lantalde egokia 8-9 aztertzailek osatutakoa litzateke", dio Asextrak. "Aztertzaile bakoitzak egin dezakeen gehieneko azterketa kopurua 13 dela kontuan hartuta, eta orain arte egindako 21 eguneko grebari bostek jarraipena eman diotela kontuan hartuta, batez beste, astero 200 azterketako atzerapena dagoela esan genezake, eta horrek,

gutxi gorabehera, bi hilabeteko atzerapena dakar", esplikatu dute aztertzaileen ordezkariak.

Autoeskolak lana antolatu ezinda

Egoera horren aurrean, lana behar den moduan egin ezinda dabilta autoeskolatan. "Arazoa da behin jendea prestatuta ez dugula aukerarik azterketara eramateko, ez dagoelako azterketa noiz tokatuko zaigun jakiterik. Hor dago koska. Eta oso zaila egiten da lana antolatzea. Nire kasuan, uztail amaieran egin nuen azken azterketa; beraz, Gipuzkoako gainontzeko autoeskola guztiak azterketa egiteko zerrendatik pasatu arte, ez da berriro nire txanda izango, eta, irakasle bakoitzak nahi beste ikasle aurkeztu ditzakeela kontuan hartuta, eta ekainetik dagoeneko hilabete eta erdi edo bi hilabeteko atzerapenarekin gabiltzala kontuan hartuta, batek daki", esplikatu du Iban Peñakobak, Peñakoba autoeskolako ugazabak.

"Eskola praktikoak geratu egin ditut, azterketa data ez dakigulako"

IBAN PEÑAKOBA PEÑAKOBA AUTOESKOLAKO UGAZABA

Gipuzkoan bi hilabeteko atzerapena dago, batez beste, azterketa praktikoa egiteko.

Zein da azterketetara aurkezteko sistema?

Adibidez, astelehen batean azterketa egiten badut, hurrengo 48 orduren barruan sartu behar dut hurrengo asteko azterketara aurkeztu behar dudana ikasleen zerrenda. Gertatzen dena da orain aste hori "luzatu" egiten dela, baina karpeta hori Trafikon dago, eta ezin da aldatu. Adibidez, nik ekainaren 13an azterketa egin eta ekainaren 16rako sartuta nituen hurrengo zerrenda. Eta



UBANE MADERA

adibidez, ekainaren 20an hasten banaiz beste bati erakusten, ezin dut azterketa egin behar duten zerrendan sartu, zerrenda eginda dagoelako. Ondorioz, prestatzen hasi naizen pertsona horren

eskola praktikoak geratu egin behar ditut, ez dakigulako noiz egin ahalko duen azterketa. Hortaz, zera egiten dut: eskolen erdia-edo eman ondoren, gehiago ez dizkiet ematen, jakin arte noiz izango duten azterketa. Oso zaila da lana antolatzea.

Bezero gutxiago dituzuela igarri duzue, ondorioz?

Estatu mailako gatazka da; beraz, bezero gutxiago ez dugu igarri. Jendeak gura du gidabaimena atera, baina diote: "Eskolak eman behar ditut jakin barik noiz dudana azterketa? Ba, dakizunean deituko didazu". Baina deitu bitartean ni geldin nago. Hutsetik hasten direnekin lan egin dezaket, eta poliki-poliki hasten naiz haiekin; baina egoera konpontzen ez bada, horiek ere gelditu egin behar ditut...

Lau debagoiendar lehian Gipuzkoako Artzain Egunean

Bengoa, Arregi eta Madinabeitia oñatiarrak eta Plazaola arrasatearra izango dira etzi, domeka, Legazpin

U.M. DEBAGOIENA

Domekan, irailaren 3an, egingo dute, Legazpin, Gipuzkoako Artzain Eguna.

Egunean zehar hainbat lehiaketa jokatu dira; tartean, eta arratsalde partean, 49. Artzain Txakur Txapelketa. 17:30ean dute horretarako hitzordua, Urtatzako belardian. Eta bertan parte hartuko duten sei lehiakidetatik lau debagoiendarrak izango dira –bik, gainera, bina txakurrekin parte hartuko dute lehiaketan–: Jose Mari Bengoa oñatiarra *Eder* –iazko irabazlea– eta *Txiki* txakurrekin joango da; Migel Arregi oñatiarra, berriz, *Mendi* eta *Argi* txakurrekin lehiatuko da –iaz hirugarren geratu zen Arregiren *Mendi* txakurra– eta Jose Luis Madinabeitiak *Bat* txakurrekin jardungo du. Oñatiarrekin batera lehian izango da, baita

ere, Jesus Mari Plazaola arrasatearra; *Lagun* txakurrekin joango da, iaz bigarren postua eskuratu zuen txakurrekin.

Gazta lehiaketa, omenaldia...

Artzain Txakur Txapelketaz gainera, Artzain Gaztaren Lehiaketa ere egingo dute domekan; 32. edizioa izango du aurten. Eta lehiaketa horretan ere debagoiendarren presentzia izan ohi da. Iaz, esaterako, Antzuolako *Pikunieta*-ko gaztak eskuratu zituen boto gehien dastatze popularrean.

Bestalde, artzaintzaren alde egindako lanagatik, berriz, Euskal Artzainak Ameriketara elkarteari omenaldia egingo zaio aurten, 13:00etan, euskal artzainek Ameriketara izandako presentziaren balioak eta memoria gizarteratu eta dokumentatzen egindako lanagatik.



Iazko Gipuzkoako Artzain Egunean ardien erakusketa. RICARDO WIEBÜCHER

Taldeak kudeatzeko ikastaroa, Mankomunitatean

Pertsonen kudeaketan eta antolaketan aritzen diren erdi mailako, saileko edo proiektuko arduradunei zuzendutako ikastaroa jarriko du martxan Debagoieneko Mankomunitateak irailaren 14an. Bertan, oinarri tekniko sendoa duten baina taldeen gidaritzan trebetasunak garatu eta sakondu behar dituzten arduradunei

ezagutzak eskainiko zaizkie. Izan ere, taldeak kudeatzeko gaitzen duten alderdi ezberdinak definitu, arduradun izateko oinarriko konpetentziak ezagutu, kudeaketarako eta harremanetarako konpetentzietan sentsibilizatu eta sailak kudeatzeko tresnak ezagutuko dituzte parte-hartzaileek.

Izen-ematea zabalik dago irailaren 8ra arte; doakoa da, baina, plaza mugatuak daudenez, aldeztu aurretik eman behar da izena.



ZABALIK

LANDER BELOKI

Zerbitzuak eta enpresa txikiak

Gipuzkoako Ogasun Sailak lurraldeko ekonomiaren bilakaerari buruzko txostena aurkeztu du. Azken hamabi urteetan Gipuzkoako ekonomiak izan duen bilakaera neurtzen da faktore desberdinak kontuan hartuz. Garrantzitsuenak hemen jaso ditut.

2005-2016 epean industria sektoreko langile kopurua %25 jaitsi da eta zerbitzu sektorekoa, %52 handitu. Beraz, lehen ondorioa hau da: zerbitzuen sektoreak gero eta garrantzi handiagoa duela lanpostuak sortzeko duen gaitasunari dagokionez.

Jarduera desberdinek ez dute bilakaera bera izan. Azpimarragarriak dira eraikuntzako langile kopuruak eta bankako langile kopuruak izandako jaitsiera: %27 eta %23, hurrenez hurren. Zerbitzu sektoreak gora egin duen arren, sektore barnean jarduerak duten pisuan aldaketa handiak izan dira, batzuk indartuz –aisialdia, turismoa, zerbitzu pertsonalak eta zahartzaroarekin lotutako zerbitzu sozialak–, baina beste

batzuen presentzia ahulduta –banka, esaterako–.

HAMABI URTE HAUETAN SOLDATEK IZAN DUTEN BILAKAERA KONTUAN HARTZEKO DA

Hamabi urteotan soldatek izan duten bilakaera kontuan hartzeko da. Krisi aurretik langileek jasotzen zituzten soldatak gaur egungoekin konparatuz, soldaten eros ahalmena %9 jaitsi da; hau da,


soldatak batez beste %17 igo dira eta kontsumo prezioen indizea, %26 handitu. Bilakaera honek eragin negatiboak ditu errenta berdintasunaren eta ekitatearen ikuspuntutik.

Enpresen tamainari dagokionez, Gipuzkoako enpresa sarean enpresa txiki eta ertainen pisua oso handia da: hamar enpresatik bederatzik hoge langile baino gutxiago dituzte. Eta bat eta hiru arteko soldatapeko kopurua dutenak %62 dira. Datu honek enpresen arteko elkarlana eta sare lana eskatzen du, lehiakor izateko tamainak duen garrantziarengatik.

Azkenik, esan, epe honetan arlo pribatuan lanpostuak sortzen hazkuntza handiena izan duen enpresen izaera juridikoa erantzukizun mugatuko sozietateena dela; %17 gehiago kontratatzen dute. Kooperatibek, aldiz, %2,6 lanpostu gehiago sortu zituzten. Sozietate anonimoek, ordea, %25 langile gutxiago enplegatzen dituzte; kontuan hartu behar da izaera hau dutela lurraldeko enpresa handi gehienek. Arlo publikoan, berriz, administrazio publikoak %23 lanpostu gehiago ditu.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

'Gurtel auziaz', arrotz

GURUTZE IZAGIRRE

HTTPS://LABUR.EUS/H5IMV

Gurtel auzia dela eta, PP alderdiaren ustezko legez kanpoko finantzaketari buruzko azalpenak eman behar zituen Mariano Rajoy Espainiako gobernuburuak atzo, Kongresuan, oposizioak hala eskatuta.

Ez zituen eman, espero zen bezala.

Ezer berririk ez.

Alternatibarik ere ez, ordea.

Oposizioa ere nor bere bidetik joan zen, eta bere horretan geratu ziren gauzak.

Politika espektakuluaren hamaikagarren saioa

Espainiako Kongresuan, nor bere loriaren bila.

Arrotza, iraingarria ez balitz.

Atzokoak mahai gainean jarri zuen berriz ere politikaren eta herritarren arteko urruntasuna.

Rajoyk ez zuen premiarik azalpenik emateko, eta ez zuen inor harritu.

Gurtel auziari buruz propio deitutako saioan, Gurtel aipatu ere ez zuen egin bere ordu erdiko hizketaldian.

Aitor Estebanek (EAJ) saioa kale itsuan amaituko zela iragarri zuen, oposizioaren alternatiba osatzeko ezina azalaraziz; Oskar Matutek (EH Bildu)

ustelkeria zer den gogorarazi zion hizketaldi zorrotzean.

Baina Joan Tardak ditu ondorioak argien.

ERCkoak honako hau esan zuen: "Rajoy jauna, badakigu lasai ederrean joango zarela hemendik ere. Baina guk urriaren leian epaituko zaitugu; ustelkeriari agur bozkatzuz, errepublikari ongietorria emanaz".

Arantza bidea izango da hura ere, baina haiek hautatutako bidea da; Euskal Herrian ez dago halako erabakimenik, eta Kongresu hartan segitu beharko da *Gurtel auziaz* hizketan, arrotz.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amalia Mundiñano, Zierza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Marta Leturia.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Gero eta talde gehiago daude eta lehia estuagoa da"

VANESA GIMBERT EHUN PARTIDUTIK GORA ATHLETIC TALDEAREKIN

Larraitz Zeberio BERGARA

Talde zuri-gorrian egingo duen bosgarren denboraldiaren atarian da jokalaria bergararra. Ehun partidutik gora jokatu ditu Athleticen elastikoarekin. **Garrantzia eman zenion 100. partiduari?**

Zenbaki garrantzitsua da eta beti egiten du ilusioa. Gainera, Champions txapelketako partidua izan zen eta San Mames futbol zelaian. Berezia izan zen, bai. **Zure esperientzia eta baloi guztiak borrokatzen dituzula nabarmentzen dute zure fitxan. Ados zaude?**

Saiatu, behintzat, egiten naiz. Urte asko daramatzat honetan eta uste dut esperientzia badela nire ezaugarrietako bat. Bestalde, ahalegintzen naiz baloiak borrokatzen. Ez dut amore erraz ematen. Nire onena ematen saiatzen naiz. **Zein helbururekin ekingo diozue denboraldi berriari?** Domekan emango diogu hasiera txapelketari,



Vanesa Gimbert futbol jokalaria bergararra. ATHLETIC CLUB

Badajozen. Partidu gogorra izango da, hasieratik borrokatu behar den horietakoa. Denboraldia ere horrela aurreikusten dugu. **Taldean, gainera, aldaketa batzuk izan dira.**

Bai, jende garrantzitsua joan da, bai talde teknikitik zein aldagelatik. Berriak ere etorri dira. Ane Bergara etorri da Bartzelonatik eta Maria Diaz Zirauki Realetik. Hala ere, ez dugu denboraldi erraza

aurreikusten eta hasieratik ahalegindu beharko dugu gogor.

Zu zelan zaude?

Ondo sentitzen naiz. Lesioek errespetatu egiten naute eta gogotsu nago.

Zuen baldintzak badoaz hobetzen?

Aldaketak sumatzen dira. Hemezortzi urte daramatzat mundu honetan, eta izan dira aurrerapausoak. Pauso txikiak dira, akaso, baina egon badaude: diru-sarrietan, hedabideen jarraipenean, gure lorpenen aitortzan...

Eta lehia nola ikusten duzu?

Hori ere aldatzen doa. Egia esan, gero eta zailagoa da nabarmentzea. Gero eta talde gehiago daude, eta asko indartuz doaz. Futbol elkarteak ahalegintzen ari dira, eta emakumezkoen futbolaren aldeko apustu argiagoa egiten dute askok. Horren ondorioz, lehia estuagoa da, baina hori seinale ona da.

Zaleek erantzuten dute?

Athleticeko zaleendako esker oneko hitzak besterik ez dugu. Egia da iazkoa urte gogorra izan zela. Txapelketa irabaztetik gertozten eta jende gutxiago gerturatzen zen gure partidua ikustera. Baina etortzen zen jendearen indarra sumatzen genuen.

HAU BE BADOGU!

'Gontxa'-ri harrera ona Zaragozako zaleek



Zaragozako zaleek begi onez hartu dute, sare sozialetan, Mikel Gonzalezen fitxaketa:

@raulrojan: "Ondo etorri #MikelGonzalez gure Real Zaragoza taldera! Orain, hauek dira zure koloreak". (Itzulita)

@nachoRMZGZ: "Negoziazio bikaina eta fitxaketa ikusgarria! Defentsa sendoa osatzeko behar genuen pieza!". (Itzulita)

Manuel Bartualen fikziozko kontakizuna



@ManuelBartual: "Oporretan daramatzat egun pare bat hondartza alboko hotel baten. Dena ondo zihuan gauza arraroak gertatzen hasi diren arte". (Itzulita)

Horrela eman zion hasiera Manuel Bartual diseinatzaile eta zuzendariak Twitter bidez kontatu zuen fikziozko kontakizunari. Milaka txiolari zain izan zituen, astebetean, errealitatea eta fikzioa nahasten zituen istorioarekin.

'Game of Thrones' telesaila 'trending topic'

Uda osoan bolo-bolo ibili da sare sozialetan HBO katearen *Game of Thrones* edo *Juego de Tronos* telesail ospetsuaren zarpigarren denboraldia. Iragan domekan estreinatuta zen azken kapituluak marka guztiak hautsi zituen. Aurten, gainera, Euskal Herriko hainbat txokotan filmatu dituzte hainbat eszena, eta euskal txiolarien eta hedabideen artean oihartzun handiagoa izan du.

ITURRI ONETIK

Karra Elejalde Leintz Gatzagan izango da

Eguenean hasi eta domekara arte ospatuko dituzte Andramaixak Leintz Gatzagan. Tartean, pilota partidua jokatuko dituzte; eta horren bueltako finalak irailaren 17an izango dira. Bada, aurten, saridunek ezagun askoa den aktorea izango dute sari-banatzaile: Karra Elejalde. Irailaren 17an 14:00etan emango ditu sariak 14 urtera arte Leintz Gatzaga bizitoki izan zuen Elejaldek -aita ere bertakoa zuen-. Izan ere, udalerriarekiko lotura bizirik mantendu du, Gasteizen jaio zen arren.

GORA ETA BEHERA



Arratoiak, habia eta guzti, Arrasaten

Zuloa eta guzti eginda dutela -argazkian ikusten den moduan-, Arrasateko Otalora Lizentziaduna kaleko Santa Barbara parkearen beheko belardian arratoiak ikusi ditu abuztuko azkeneko egun hauetan batek baino gehiagok. Batzuen ikusmirarako, beste batzuen nazkarako, horietako zortzi ikusi zituzten, esate baterako, joan den egubakoitzean. Kexa aurkeztu duenik ere bada.



JOSU BILBAO

Edesa Industrial eta Geysler-Gastech: industria eredu berri baterako trantsizioa behar dugu

ENEKO BARBERENA

ARRASATEKO EH BILDUREN IZENEAN
ARRASATE

Edesa Industrial eta Geysler-Gastech-en egoera puri-purian dugu Arrasaten. Langileon alboan egongo da EH Bildu, inoiz baino beharrezkoago baita. Langileon arteko elkarlan eta aliantzak izan eta izango baitira kalitatezko lanpostuak herrian geratzeko bermerik onena. Baina honek ez luke ezertarako balioko ez bagara hasten etorkizuneko industria eredu gaurtik eraikitzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguru industrialia ez da Arantza Tapia horrenbeste promozionatzen duen *Teleberri*-k azaltzen digun bezain bare eta baikorra. Ez da erraza, ordea, etengabekoa den

propaganda instituzionalaren erruz gure industria egoeran alea eta lastoa bereiztea. EH Bilduk, uztailean, Iker Casanova legebiltzarkidearen eskutik, bestelako irakurketa errealistago eta aurrera begirako plangintzarako abiapuntu aproposago bat eskaini zuen industria ereduaren arloan.

Orainaldi industrialia ez da erraza. 2008 eta 2015 bitartean suntsitutako lanpostuak 80.000 izan dira. 2017ko uztailean 15 enpresatan galtzeko arriskuan diren lanpostuak 3.000 dira, tartean Edesa Industrial eta Geysler-Gastech Arrasate eta Debagoieneko enpresen lanpostuak. 2015arekin alderatuz, 2016an enpresa berrien sorrerak %4,1 egin du behera. Honekin lotuz, 2008ko krisiaren eztabaidatik hona 6.000 enpresa suntsitu dira gurean, txiki, ertain edota handiak.

Eusko Jaurlaritzak ez du lidergorik gai honetan *industria 4.0* deritzon kontzeptu

bat, inork oraindik zehazki definitzen ez dakiena, saltzetik harago. EH Bilduk, aldiz, ondorengo oinarriak eskaintzen ditu industria eredu berri baterantz:

1. Eredu berriak sozialki bidezkoa izan behar du, enpresei zerga politika egokia aplikatuko diona eta lan harremanak babestuko dituen, soldaten bidez aberastasunaren birbanaketa egiteko. Gaur egun, ordea, Jaurlaritzak ez du harremanik sindikatu nagusiekin eta horrela ez dago bidezko eredu bat eraikitzerik.

2. Eredu berriak jasagarria izan behar du ingurugiroaren ikuspegitik. Gaur EAEn kontsumitzen den energiaren %7 soilik dator iturri berriztagarrietatik eta klima aldaketaren aurrean erantzukizunez jokatu behar dugu.

3. Eredu aurreratua behar dugu teknologia arloan. Propagandatik harago, datuek

erakusten dute azken urteotan Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzan gertatzen ari dena tragedia bat dela. European bigarren mailan gaude, eta atzera goaz. I+G+B atal horri bideratzen zaion Barne Produktu Gordinaren (BPG) ehunekoa gero eta murriztagoa da Urkullu Lehendakariaren dagoenetik. Europak %3ko inbertsioa egitea gomendatzen du, baina hemen %1,84an gaude.

4. Eredu berriak lurraldeen arteko oreka ahalbidetu behar du.

5. Eredu berriak bestelako neurriak aurreikusi behar ditu enpresei laguntzeko finantzazioari eta internazionalizazioari dagokienez, herriarekiko lotura bermatzeko eta enpresa txiki eta ertainei arreta berezia eskaintzeko.

Sustatu dezagun eztabaida, instituzioetan beharrezkoak diren neurri hauek bultzatzeko. Erakuts dezagun kalean

bagarela hainbat eredu industrial berri baterako trantsizioa nahi dugunak. Gure ondorengo hurbilen ogia dugu jokoan.

BKP, Erroma

JONE ZABALA

BERGARA

Eskerrik asko! Eskerrik asko! Eskerrik asko! Ez dakit zenbat aldiz jarri beharko nukeen, Erroman pasa genituen egunetan, erakutsi eta irakatsi didazuen guztia eskertzeko.

Zuek ez zarete koru bat bakarrik, zuek taldea, kideak, familia... niretzako, eskola bat izan zarete. Zuek daukazuen jarrera goraiatzekoa da oztopoak agertzen direnean, ingurua alaitu behar denean, lagundu behar denean... baita seriotasunean ere.

Bihotz-bihotzez eskertzen dizuet egun haiek hain samurrak egiteagatik. Segi horrela! Gora Bergarako Koru Parrokiala!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

Erdi Aroko azoka bueltan dator, herrirako "pizgarri"

Irailaren 9an eta 10ean Erdi Aroko feria egongo da Seber Altube plazan, Erdiko kalean eta Iturriotzen, eta halako azokak antolatzen "esperientzia luzea" duen Bartzelonako Pegasus enpresa kontratatu du Udalak; ikuskizunak eta 50 bat postu egongo dira



2007an egin zen Erdi Aroko azokako postu bat. GOIENA

Jokin Bereziartua ARRASATE

"Arrasatearrendako zein kanpotik etor daitezkeen bisitariendako pizgarri bat izatea espero dugu, herria dinamizatzeko helburuarekin antolatu dugu". Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Sustapen Ekonomiko batzordeko buru Victor Fuentes zinegotziaren hitzak dira, irailaren 9an eta 10ean herriko alde zaharrean egongo den Erdi Aroko azokaren inguruan. Herriari "eskaintza ezberdin bat" egin nahi izan diote: "Jendea hurbildu zait esanez garai bateko Erdi Aroko azoka ondo zegoela. Orain, berriro ekarriko dugu eta ikusiko dugu funtzionatzen duen edo ez". Fuentesen arabera, askotariko 50 bat postu izango dira, Seber Altuben, Erdiko kalean eta Iturriotzen banatuta. Horrez gain, ezohiko ikuskizunak ere izango dira: sufi izeneko dantza arabiarra egiten duen dantzari bat, fakir bat... Gainera, kaleko musika eta ikuskizun

pirotekniko bat ere izango dira, besteak beste.

Enpresa ezberdinak aztertu ostean, Bartzelonako Pegasus kontratatu du Udalak azoka antolatzeko: "Esperientzia luzea dute mota honetako azokak antolatzen; Lasarten, Zarautzen eta Balmasedan egin izan dute eta, oker ez banabil, Arrasatekoa ere antolatu izan zuten". Pegasus enpresa kontratatzeak aurrekontua 12.000 euro izan da. "Azoka antolatzeko beste baliabide batzuk ere jarriko dira, Udaleko beste sail batzuetatik", gaineratu du Fuentesek.

Merkemerkauarekin batera

Ibai-Arteren Merkemerkaua irailaren 8an eta 9an egongo da. "Ikusiko dugu ea bateragarriak izan daitezkeen. Izan ere, Erdi Aroko azokako postuak bertako komertzioak ez oztapatzeko moduan jarriko ditugu, esperimentu bat izango da. Herriko merkataria zaindu egin behar dira".

72 udaltzain plaza betetzeko deia Euskadin, bost Arrasaterako

Udaltzaingoaren Lan Eskaintza Publiko bateratuaren lehen deialdia izan da; eskabideak, urriaren 1era arte

J.B. ARRASATE

Udaltzaingoaren Lan Eskaintza Publiko bateratuaren lehenengo deialdia argitaratu zen eguaztenean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Euskadiko hamabi udaletako 72 lanpostu betetzeko deialdia egin da, eta horietako bost Arrasaterako izango dira. Prozeduran parte hartzeko interesa dutenek urriaren 1era arte izango dute eskabidea aurkezteko aukera. Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa librea izango da. Test erako proba bat, gaitasunak

ebalutzeko lau ariketako test psikotekniko bat eta nortasuna ebalutzeko beste bat egingo dira. Era berean, proba fisikoak eta elkarrizketa pertsonala ere egingo dira. Lehiaketa-fasean, Udaltzaingoan egindako zerbitzuak baloratuko dira.

Deialdi horren harira, Arrasateko EH Bilduk eta Udalean ordezkariak duen gehiengo sindikalak adierazi dute ez datozela bat erabakiarekin, herriko lan poltsen eredia lehenesten dutela "Arkauteko lan poltsa zentralizatuaren baina".

irailak
larunbata 2



EROSKI

ARRASATE

Zure poza elikatzen

BEZ-A*

oparitutako dizugu

DENEAN



40€-tik gorako erosketa eginez gero EROSKI center eta EROSKI city supermerkatuetan eta 90€-tik gorakoa EROSKI hipermerkatuetan, Euskadin, Nafarroan, Kantabrian eta Errioxan.

Bazkideentzat soilik

* Kupon ordezkatzen EROSKI Club kartarekin, egunkari erostelaren BEZ-A digigitik zerbitzuko sorko dizugu kartarekin lotutako EROSKI Club kartarekin. EROSKI Club kartarekin berriketaren gaitasunak zehaztuak: 250 euro. Promozioa EROSKI Hipermerkatu eta Supermerkatuetan, eta EROSKI online supermerkatuetan langa da baliatzen. Promozioan ez dira berriz hartuko leku iburuz, espezializazio-paketeak, telefonoen kargak, E-gyri baretak (gure ondasunak baretak), emakurak digitalak eta Nafarroa-promozioan loturak (puntu biderkari edo puntuak) sartzen direlako produktuak. Kartarekin geroztiko baldintzak zure hitiko sorkoan.

Nahi duzunean eta nahierako lekuan erosi... eroski.es | EROSKI super App-a | Eroski dendak

Musakola z/g ARRASATE, Tel.: 943 71 10 30

Uarkapeko gimnasio berria, hilaren 4an irekita

Gimnasio berria probatzeko ate irekiak izango dira irailaren 4an eta 5ean, eta izena emateko Musakolako kiroldogira hurbildu edo 943 25 20 30 telefono zenbakira deitu behar da; abonatuak txartela aktibatze eskatu beharko dute aurretik, Musakolan

Jokin Bereziartua ARRASATE

Datorren astelehenean, irailak 4, irekiko dute Uarkapeko gimnasio berria. Urte hasieran udaberriko irekita egongo zela aurreikusten bazen ere, hilaren 4tik aurrera erabili ahaliko da.

Azken urteetan Uarkape frontoiko jatetxea errentagarri izateko saiakera ezberdinek huts egin ondoren, espazio horri kirol erabilera ematearen aldeko apustua egin zuen Udal Gobernuak. Hala, aukera ezberdinak landu ondoren, bertan gimnasio edo fitness gela bat jartzea erabaki zuten. Urte hasieratik jatetxea zegoen tokia egokitzeko lanak egin eta zerbitzua emateko beharrezko kontratazio ezberdinak egin ondoren, astelehenean atea zabaltzeko gertu egongo da Uarkapeko gimnasio berria.

"Ahalik eta probetxu handiena"

Udal Gobernuak aditzera eman duenez, Uarkapek duen kokapena kontuan hartuta, "ahalik eta probetxu handiena" atera gura zaio Uarkaperi: "Hori dela eta, bertako eskaintza zabaltzeko lanean jarraituko dugu". Gimnasio berria egokitzeko birmoldaketa lanak amaituta, Uarkapek ondorengo espazioak izango ditu aurrerantz: gimnasioa, boulderra, frontoia eta errobotiloak. Horrez gain, kirol ekintzei dagokienez, K-Strech eta gimnasia hipopresiboak bertan eskaintzen jarraituko dute.

Ate irekiak hilaren 4an eta 5ean

Uarkapeko gimnasioa erabiltzeko aukera izango dute kiroldegiko abonua edo plus abonua duten bazkideek, baina Uarkape sartzeko alde aurre txartela aktibatze eskatu beharko dute Musakolan.

Hala ere, irailaren 4rako eta 5erako ate irekiak antolatu ditu Kirol Zerbitzuak, gimnasioa doan erabiltzeko aukera edo-

nork izan dezan. Goizetan ordubeteko txandak eta arratsaldeetan 45 minutukoak antolatu dira ahalik eta herritar gehienei instalazio berriak probatzeko aukera emateko asmoz. Hala, baina, alde aurretik izena eman beharko da. Horretarako, Musakola kiroldogiko harrerara hurbildu edo 943 25 20 30 telefono zenbakira deitu beharko

ATE IREKIEN OSTEAN, ASTELEHENETIK ZAPATURA EGONGO DA ZABALIK GIMNASIO BERRIA



Koadro elektrikoa erreta Musakolan

Abuztuaren 4an sutea piztu zen Musakolako kiroldogiko elektrizitatea erregulatzen den gelan. Koadro elektrikoak su hartu zuen 02:00ak aldera, eta kalte nabariak utzi zituen eraikinaren hornikuntza elektrikoan. Sutea piztu zen gela itxita egon ohi da segurtasun arrazoiengatik, eta, zorionez, sua ez zen bertatik atera, oxigenorik gabe geratu eta bakarrik itzali zelako. Izan ere, elektrizitate gelari itsatsita kloroa eta azidoa gordetzen diren gela dago eta sua bertara heldu izan balitz, kalteak larriagoak izango ziren, nahaste toxiko bat gertatuko zelako.

Ondorioz, udal langileek instalazio elektriko guztia berritu behar izan zuten eta lan horiek iraun zuten bitartean, bost egunez egon zen itxita Musakolako kiroldogea. Erabiltzaileek erakutsitako pazientzia eskertu zuen Ander Garaik, Kirol zinegotziak.

da. Ate irekien ordutegia honako hau izango da: irailaren 4an, 08:30etik 15:30era eta 16:30etik 20:00etara; irailaren 5ean, berriz, 06:30etik 13:30era eta 15:30etik 20:00etara.

Astelehenetik zapatura zabalik

Ate irekiak amaitu ostean, irailaren 6tik aurrera funtzionamendu normalari ekitea da Kirol Zerbitzuaren asmoa. Beraz, hurrengo eguaztenetik aurrera honako hau izango da Uarkapeko gimnasioak izango duen ohiko ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 06:30etik 21:00etara; zapatutan, berriz, 09:00etatik 14:00etara.

Elkartasun Eguna bi egunetan aurten, irailaren 9an eta 16an

Kepa Arkauz eta Julen Mendizabal preso arrasatearren aurkako epaiketa egingo da hilaren 6an eta 7an

J.B. ARRASATE

Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko Elkartasun Eguna bi egunetan egingo da lehen aldiz. Antolatzaileek asteon argitaratu dute aurtengo kartela; irailaren 9an kontzertuak izango dira gaztetxean: Arrasateko Drop! eta 5 Twisters –azken horien azken kontzertua izango da–, Azpeitiko Legen Beltza eta Berlingo Antiligent taldeak igoko dira oholtza gainera; sarrera bost euro ordaindu beharko da.

14 musika talde tabernetan

Egun handia irailaren 16koa izango da. Biteri plazan umeen txokoa jarriko dute (11:00), tailerrekin, jolasekin, musikarekin eta pintxoekin. Herri bazkaria Biteri plazan egingo da (14:30): paella, saiheskia eta entsalada jango dute eta txartelak salgai daude, 13 eurotan, Monte, Basati eta Taupa tabernetan.

Honako hauek izango dira tabernetako kontzertuak: 12:30ean, Oñatiko Herstura taldea Taupan eta Eskoriatzako Jason taldea Montean; 13:15ean, Arrasateko Ain 1 taldea Kajoin eta Itzalan eta Arrasateko Trutens Band taldea Ezkinan; 17:00etan, Are-

txabaletako Deskarga taldea Ekaitzen, Arrasateko WC taldea Brankan, Oñatiko Bitz taldea Etxosten, Arrasateko Crap taldea Iturriotzen eta Gasteizko Tara taldea Iluntzen; eta, amaitzeko, 18:00etan, Arrasateko Perlata taldea Osoriken, Gasteizko Hiena taldea Jai Zalen, Aretxabale-tako Txerrikumeak taldea Basatin, Gernikako Tears & Beers taldea DATen eta Arrasateko Las Clitorix taldea Muxibarren. Antolatzaileendako ekitaldi garrantzitsuenak, baina, Herriko Plazatik irtengo den manifestazioa izango da, 19:30ean.

Arkauzi eta Mendizabali babesa

Irailaren 6an eta 7an Kepa Arkauz eta Julen Mendizabal arrasatearren eta beste lau euskal presoren aurkako epaiketa egingo da Parisen. Horiei babesa adierazteko autobusa antolatu dute; irailaren 5ean irtengo da autobusa Arrasateetik, 19:00etan. Irailaren 7an bueltatuko dira, 08:00etan. ETAko aparatu logistikokoaren kide izatea leporatuta, Frantziako polizia 2013ko maiatzaren 7an atxilotu zituen Mendizabal eta Arkauz arrasatearrak, beste lau lagunekin batera.



MAITE TXINTXURRETA

Ferreriasko horma bota beharra

Ferrerias kalean urte luzez hutsik egon den eraikin bateko horma bat bota egin behar izan zuten udal langileek abuztu amaieran. Segurtasun arrazoiengatik bota behar izan zuten pareta, jausteko arriskuan zegoen eta. Kalea egun batez egon zen itxita.



Hirukideko kideen informazio bulego bat. HIRUKIDE

Bere jardueraren berri emango du Hirukidek

Euskadiko Kide Ugariako Familien Federazioa Arrasatera etorriko da irailaren 21ean, elkartearen zerbitzuen eta jardueren berri ematera. Hitzaldia 18:00etan izango da, Kulturaten. Familia ugariak eta laster izango direnak daude gonbidatuta

Miren Arregi ARRASATE

Aukera ederra izango da familia ugariendako eta laster izango direnendako. Hitzordua irailaren 21ean da, 18:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Hirukidek Arrasaten egingo duen lehen hitzaldia izango da hori, eta, herririk herri hilero egiten dituzten hitzaldi informatiboaren testuinguruan kokatzen da. Hala, familia ugariak eta laster izango direnak, aukera izango dute federazioaren zerbitzuak eta jarduerak ezagutzeko, baina ez hori bakarrik, kolektiboak dituen laguntza eta hobari publikoei buruzko informazio zehatza emango baita hitzaldi horretan eta familiek eurek ere, beren iradokizunak helarazteko aukera izango baitute.

Hitzaldia egingo duten egunean bertan, goizez, Hirukideren ordezkariak udaleko arduradunekin elkartuko dira hainbat proposamen helarazteko eta baita, Familia Arloko Udallerri Arduratsuen Dekalogo emateko.

Berritasunak

Aurkezpenean, azken hilabeteotan kolektibo honi zuzenduta izan diren berritasunak azalduko dira. Berritasun horien artean nabarmentzekoak dira, esaterako, pasaporte eta nortasun agiria egiteko tasen salbuespena. Izan ere, iaztik, kide ugariako familiek dohainik egin ditzakete horiek. Beste berritasun bat da, kide ugariako familia izaeraren hedapena. Hori ere iaztik dago indarrean, eta, beraz, familiek titulu hori izaten jarraituko dute seme edo alaba gazteenak legeak ezarritako adina bete arte. Legeak eskatzen duen gehieneko adin hori betetz doazen seme-alabak titulutik kanpo geldituko dira, baina, familiako gainerako kideen kasuan, familia ugari izaten jarraituko dute, gazteenak legezko adin hori bete arte.

AURKEZPEN EKITALDIAN, AZKEN HILABETEOTAKO BERRITASUNAK AZALDUKO DIRA

Argiaren bonu soziala

Urtebete baino gehiagoan Industria Ministerioarekin bilerak egiten aritu ostean, Hirukidetik azaldu dute, argindarraren bonu soziala garatzen duen Errege Dekretua behin betiko noiz onartuko den zain daudela. Dekretu horren arabera, familia ugariak %25eko deskontua izango dute. Bonua jaso ahal izateko, kontsumo-mugak ipini dira. Urtean gehienez, 3.600 kW arte. Beraz, bonuaren %25eko deskontua gehieneko kontsumo horretara bitartean aplikatuko da.

Era berean, iaz sartu zen indarrean amatasunagatik osagarria. Gutxienez bi seme-alaba dituzten emakume langileen kontribuzio-pentsioetan %5 handituko da hori; %10 hiru izan dituztenentzat eta %15, erretiroa hartu eta lau seme-alaba edo gehiago izan dituztenentzat.



Ferixalekuaren eta Amaia antzokiaren arteko paretan egin dute murala. M.A

Mendian hildakoen omenez, mural berria du Arrasatek

Udalaren eta Besaide Mendizale Elkartearen arteko elkarlanaren ondorio da hori; Muralart taldeak egin du

M.A ARRASATE

Abuztuaren hasieran bukatu zuten, Ferixalekuaren eta Amaia antzokiaren arteko paretan, mendian hildako guztiak omentzeko egindako murala. Arrasateko Udalaren eta Besaide Mendizale Elkartearen arteko elkarlanaren emaitza da hori. Murala bukatzearekin batera, elkarte biek elkarrekin kaleratutako oharrean azaldu zuten, martxoan hasi ziren "mural berri hori egiteko proposamena nola bideratu zertzen". Horretarako, Udalak Besaide Mendizale Elkartearen kolaborazioa eskatu zuen eta "Mu-

ralart herriko artista taldearen parte-hartzea zehaztu zen". Muralart taldeak hainbat diseinu proposamen egin zizkion Besaide Mendizale Elkarteari, eta azken horiek izan ziren zein irudi marrotuko zen erabaki zutenak.

Zorionak taldeari

Oharrean, Udalak eta Besaide Mendizale Elkarteak Muralart taldea zoriondu zuten, egindako lan bikainagatik, eta baita herritarrei murala miresteko emandako aukeragatik ere. Udalak 6.050 euro bideratu ditu ekintza honetara.

Egun osoko egitaraua, kaleko jaiak behar bezala ospatzeko

Bihar, zapatua, ospatuko dira Zarugaldeko jaiak: 11:30ean hasi eta goizaldera arte iraungo du festak

M.A OÑATI

Bihar, zapatua, ospatuko dituzte Zarugalde kaleko jaiak. Antolatzaileek adin eta gustu guztietarako ekintzak antolatu dituzte, auzotarrek eta auzotar ez direnek ere gozatzeko modukoak. 11:30ean, txupinazoarekin batera hasiko da jaiak, eta, ordu berean, *Altxorren bila* eta umeendako jolasak egingo dira. 13:00etan, triki-bertso poteoa izango da. Tabernetan pintxoak doan emango dituzte. Arratsaldean, mus eta partxis txapelketetan parte hartzeko aukera

egongo da eta 18:30erako, *Zuek in zeuk jan* merienda antolatu dute. Umeen artean arrakasta itzela izan ohi duten bonba japoniarrak ere ez dira faltako, eta, horren ondoren, 19:00etan, Lore Gazteak dantza taldeak dantzaldia eskainiko du. Txistularien txanda etorriko da gero, eta 21:30ean afaria egingo dute. Hori guztia gutxi ez, eta 23:00etan, AZ Gaubela taldearekin dantzaldia hasiko da. Gauerdian eten bat egingo da, zezensuzkoak gozatzeko. AZ Gaubela taldearen txanda izango da ondoren ere.

Eneko Azurmendi ARRASATE

Irailaren 9an jokatu da II. Udalako Auto Igoera, Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango dena.

Astebete falta da. Guztia prest?

Bai, guztia prest daukagu datorren asteko ekitaldirako. Gogotsu gaude eguna iristeko. Ea parte-hartzaile asko izaten diren eta lasterketa polita ikusteko aukera duten arrasatearrek.

Iaz, urriaren 29an egin zen. Aurten, ia bi hilabete lehenago izango da. Badago arrazoirik horretarako?

Bai. Federazioarekin negoziatu behar izaten dugu data. Aurten, Gatzagakoa denboraldi hasieran izatea lortu genuen eta Udalakoa ere aurreratzeko aukera izan genuen. Alde batetik, antolakuntzari dagokionez, data proposagoa da guretzat. Eta bestetik, iaz azkenaurreko lasterketa izanik, pilotu askok denboraldia amaituta zuten, ez zuten ezer jokoan, eta horrek emozioa kentzen dio lasterketari. Beraz, aurreratzea erabaki genuen.

Aurten, beraz, Txapelketan erabakigarria izango da Udalakoa?

Hala da. Pilotuak beste motibazio batekin etorririko dira, eta, gainera, oso estu dago Txapelketa une hauetan. Beraz, espero dugu Udalak gauza politak gertatzea eta lehia egotea.

Iaz egin zen lehenengoz Udalako Igoera. Ze zailtasun izan zenituzten?

Aurrerapauso bat izan zen Arrasaterendako. Udalarentzat lehenengo aldia zen, eta, guretzat, gure kabuz antolatzen genuen lehenengo aldia izan zen. Zailtasun handiena jendeari informazioa zabaltzea eta herritarrek lasaitzea izan genuen. Izan ere, lasterketaren antolakuntzan, talde moduan, esperientzia bagenuen.

Auzotarrek ardura eta kezka puntu bat erakutsi zuten.

Bai. Gauza guztietan moduan, batzuek kezka handiagoa erakusten dute; beste batzuk lasterketaren aldekoak dira eta gustura daude. Guk ulertzen dugu, azken finean, egun osoan errepidea itxita izatea arazoa izan daitekeela bizilagunentzat, baina gure aldetik ahalegin guztiak egin genituen hau ahalik eta ondoen kudeatzeko eta aurten ere horretan saiatuko gara. Esan bezala, badago jendea mota honetako ekitaldiak gustatzen ez zaiona eta guk hori errespetatu egiten dugu. Saiatzen gara ahalik eta eramangarrien egiten,

"Espero dugu gauza politak gertatzea eta lehia egotea"

ASIER AMUTXASTEGI A+GAS TALDEKO ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

A+GAS taldeak antolatuko du aurten ere Udalako Auto Igoera; iazko esperientzia ona ikusita, errepikatzea erabaki dute, eta gogotsu daude, lasterketa eguna iristeko zain



Asier Amutxastegi. A+GAS TALDEA



Udalako Igoerako antolakuntza taldea. A+GAS TALDEA

inor haserretu, kezkatu edo arduratu ez dadin.

Lehenengo aldiak ez dira errazak izaten.

Hala da. Onartzen dugu informazio eta komunikazio aldetik berandu ibili ginela, Udalaren eta gure artean ez zen koordinazio ona egon. Baina akats hori aintzat hartuta, aurten askoz lehenago hasi gara, bilerak izan ditugu Udalako jabetxeekin eta tabernekin, baita bizilagunekin ere.

Bazoazte, beraz, neurria hartzen.

Pixkanaka bai. Iaz konturatu ginen beste kontu bat da zaleen autoak aparkatzeko leku gutxi dagoela igoera guztian. Hau arazo bat dela uste dugu, eta, beraz, aurten herritarrei eskatu gura dieguna da esfortzu bat egin dezaten lasterketa ikustera oinez gerturatzeke, ahal den heinean. **Lasterketari dagokionez, aldetarik egongo da bigarren edizio honetan?**

Aurten, pare bat aldaketa egin ditugu. Lehena da lasterketa beranduago hasiko dela. Iaz, urriaren egin genuen, eta, garai horretan lehenago iluntzen duenez, 12:00etan izan zen. Aurten,

"HERRITARREI ESKATU GURA DIEGUNA DA OINEZ GERTURATZEKO IGOERA IKUSTERA"

berri, 14:00etan izango da. Beste aldaketa bat da bost txanda beharrean lau izango direla. Izan ere, bostekin, luze samar gelditu zen iazkoa. Ibilbideari erreparatuta, hasiera batean, ez dugu aldaketarik egingo. Federazioarekin urteroko borrokatxoa daukagu chicane kopuruarekin, baina hark esandakoa errespetatu beharko dugu.

Izen-ematea zabalik dago?

Bai. Gainera, pilotu gehienek azken momentura arte itxarontu dute izena emateko. Iaz, 40 pilotu inguru izan genituen, eta, lehenengo aldia izateko, kopuru polita da. Errepide estua da eta badakigu 50-60 auto egonez gero, antolakuntza aldetik gauzak aldatu beharko lirakeela. Hala ere, gu prest gaude esfortzu hori egiteko, eta parte hartzeko dei egiten dugu.

Bestalde, boluntarioen beharra izango duzue lasterketa egunerako, ezta?

Eskertuko genuke. Laguntzeko prest dagoen edonor gurekin kontaktuan jar dadila. Horretarako, info@amargas.com helbidera idatzi edota 688 85 02 76 zenbakira deituta. Horrez gain, bizilagunei edota informazioa gura duen edonori ere laguntzeko prest egongo gara eta kontaktu horien bitartez gurekin harremanetan jartzeko dei egiten diegu.

Nola animatuko zenituzke Arrasateko zein bailarako motorzale guztiak lasterketa ikustera gerturatu daitezten?

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahiko genizkieke guztiei. Jarritako helburu gehienak bete ditugu, Facebooken jarraitzaile asko lortu ditugu azkenaldian eta jende asko ari da gure marka zabaltzen eta gure jardunari bultzada ematen. Beraz, bihotzez eskertzen diegu zaleei. Horretaz aparte, gerturatzeke dei egiten diegu arrasatearrei, euren dako antolatutako ekintza delako eta seguru gaudelako arratsalde ederra igaroko dutela.

Sarrerak bost euro balioko du, iaz bezala?

Zortzi euro izango da sarrera aurten. Aurrekontu aldetik estu samar ibili gara. Federazioak beti hamar eurotan jartzea gomendatzen digu, baina esfortzu bat egiten dugu ahalik eta merkeen jartzeko. Horrenbestez, herritarrei asko eskertuko genieke sarrera ordaintzeko esfortzu txiki hori egitea.

"Musika ikasteko ez dago adinik"

Arrasate Musikaleko matrikulazioak irailaren amaiera arte egongo dira zabalik, eta, urtero moduan, eskaintza zabala izango da. Hala, musikarekiko interesa dutenei gonbidapena egin diete, musika eskolan hasi daitezten. Kurtsoa urriaren 7an hasiko da

Imanol Beloki ARRASATE

Arrasate Musikaleko ikasturte berriari ekiteko matrikulazioak irailaren 4tik aurrera egongo dira zabalik, eta ohiko musika-tresna eta ikasketek gain, eskaintza zabala egongo da musika ikasi nahi duen ororentzat. Hala, urriaren 7an hasiko dute ikasturte berria.

4 urtetik aurrera, gazte zein helduei zuzenduta daude eskolak, eta, iaz 500 ikasle inguru bazituzten, aurten ere antzerako kopuruan bueltan arituko dira. Arrasate Musikaleko Edorta Aiastui irakasleak ikasturte berrirako "gogotsu" daudela adierazi du: "Eskaintza zabala dugu Arrasate Musikalen; izan ere, guztira, hamabi talde instrumental ditugu, musika estilo ezberdinak uztartzen dituztenak. Ume gazteentzat, nagusientzat eta ezintasunak dituztenentzat ere hezkuntza berezia eskaintzen dugu, besteak beste".

Diziplina eta kontzentrazioa

4 urtetik aurrerakoentzat diziplina eta kontzentrazioa sustatzeko *Suzuki metodoa* erabiltzen dute Arrasate Musikalen, biolina erabiliz. Musika hezkuntza goiztiar honen gidaritzapean Amaia Garro irakaslea dago. "Umeei zuzendutako eskolak



Arrasate Musikaleko ikasleak, iaz egindako kontzertuan. IMANOL SORIANO

dira, baina gurasoekin batera egiten dituzte eskolak hainbat balio transmititzeko, eta instrumenturen bat ikasten hasi nahi duten helduentzat ere aukera aparta da", azaldu du Aiastuik. Gaztetxoentzako eskaintza soilik ez, hirugarren adinenekoentzat dantza garaikidea ikasteko aukera ere izango da.

Aschero sistema

Ezintasunen bat dutenentzat ere hezkuntza berezia eskaintzen du Arrasate Musikalek. Musika koloreen bitartez ikas-

ten dute sistema argentinar honen bitartez. "Pianoko teklaturan koloreak erabiliz asko ikasten dute eta talde handia sortzen da".

Ikasi nahi dutenei gonbidapena

Urriko lehenengo egunetan orduak ikasleei zehaztuta, urriaren 7an hasiko dituzte eskolak. "Hala, ikasturtea hasi aurretik, musika ikasi nahi duen orori bertaratzeko dei egin nahi diot, gazte zein helduri; izan ere, musika ikasteko ez dago adinik", adierazi du Edorta Aiastuik.



Iaz, Arrasateko Trikitixa Eskolako ate irekietan. IMANOL SORIANO

Trikitixa Eskolako ate irekiak irailaren 15ean izango dira

Ikasturte berria urriaren 9an hasiko da, eta egiten dutena erakusteko hainbat ekintza prestatu dituzte ate irekietan

I.B ARRASATE

Arrasateko Trikitixa Eskola plazara irtengo da irailaren 15ean, egubakoitzean, ate irekiak ospatzeko. *Eskola Plazara!* lelopean hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta 18:00etatik 21:00etara bitartean Herriko Plazan izango dira.

Alde batetik, Trikitixa Eskolak egiten duena herrira zabaltzeko eta, bestetik, ikasturte berrira begira ikasle lortzeko antolatu dute. Honela azaldu du Maixa Lizarribarrek, Trikitixa Eskolako zuzendariak: "Iaz, 127 ikasle izan genituen, eta 30 matrikula berri ditugu, oraingoz, nahiz eta baja batzuk izan. Hala ere, ate irekiak aitzakia bat dira eskola kalera ateratzeko...". 18:00etan, Arrasateko Trikitixa Eskolatik Herriko Plazarako bidea hartuko dute, kalejiran, herriko kaleak musikaz betez. 18:30ean, berriz, trikitiarekin

eta panderoarekin hartu-eman egongo da. Nahi duenak jotzeko aukera izango du, eskolako ikasle zein irakasleak bertan izango dira, bi instrumentu hauei buruzko zalantzak eta ikasteko metodoari buruzko xehetasunak argitzeko. Hartu-eman horrekin batera, ikasleek nahi dutena joko dute, banaka, binaka edo taldeka. Gainera, pintxoak, sagardoa eta ardoa egongo dira, eta panderoak egiten dituen artisauro bat egongo da bertan. Umeak hurbil daitezten, berriz, jolasak izango dira, Txatxilpurdik lagunduta.

Arrasateko III. Trikitigin

Egunari amaiera emateko, herriko zenbait tabernatako zerbitzariak gin-tonica prestatzen erakutsiko dute, eta epaimahai batek esango du zein den onena. Hala, prestatutakoak kontsumitu ahal izango dira ostean.

Udal Biblioteka, goizez eta arratsaldez irekita datorren astean

09:30etik 14:30era egon da zabalik abuztuaren 15ean izan ezik; irailaren 4tik 8ra, berriz, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara jardungo dute eta hilaren 9an, zapatuan, itxita egongo da. 11tik aurrera, ohiko ordutegira itzuliko dira: aste barruan 10:00etatik 20:30era eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

arbolapeta

arrasate

beinke

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sipi Sipi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Bidegorriko lanak bukatuta eskolak hasten direnerako

Aretxabaleatik Eskoriatzara bidean dagoen bidegorriko euste horma beste 25 metro luzatzen dabilta, lur-jausi gehiago izan ez dadin. Moztuta dago, lanok egiteko, baina Almenen eskolak hasten direnerako zabalik izatea da asmoa

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Bide onetik doaz Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorriaren egiten dabilta lanak; hala adierazi du Foru Aldundiko Errepideetako Kudeaketa eta Plangintzako zuzendari eta Aretxabaleta zinegotzi Mikel Uribe txabarriak. Abuztuaren 21ean hasi zituzten eta ordutik hona itxita dago, oinezkoendako zein bizikletendako. Irailaren 7rako, Arizmendi Ikastolako Almen gunean eskolak hasten direnerako, bukatuta izango dituztela lanok uste du Uribe txabarriak.

56.000 euroko lanak

Mendiari eusteko hormaren zati bat 2013an egin zuten, euri-jasen ondorioz behera etorri zirelako lurrak. Hala ere, joan den neguko eurien ondorioz berriro abiarazi zela desplazamendua ipar hegalean eta horrek lur masa handia mugitu zuela adierazi dute Foru Aldundiko ardu-



Bidegorriaren egiten dabilta lanak. MIRARI ALTUBE

radunek. "Lanok eginda euria datorrenerako ondo egonkortuta egongo da mendia eta horrek lasaitasuna ematen du", adierazi du Unai Elkoro alkateak. Gaur egungo euste horma beste 25 metro dabilta luzatzen

orain, ezponda hori behin betiko egonkortzeko eta mugituta lurra berriro eror ez dadin. Horma horrek egungoaren ezagarrri berberak izango ditu. Lan horiek 56.000 euro inguruko kostua izango dute.

Beste lan batzuk

Txarapeako maldak ere hainbat arazo izan ditu euriarekin, eta hori egonkortzeko lanak astelehenean hasi zituzten. Iaz martxoan hango lurrak jausi egin ziren eta orduan hesia jarri bazuten ere babesteko, behin-behineko neurria izan zen. Orain, behin betiko euste horma egiteari ekin diote.

LED argiteria jartzen

Argiteria publikoan LED teknologiatik luminariak jartzeko lanak ere asteen jarri dituzte abian. Arrasatetik datorren bidegorriaren hasi ziren lanean astelehenean eta datozen bi asteetan 408 luminaria aldatuko dituzte. Tecuni enpresak dihardu horretan, eta Philips markakoak



Lanak egiteko makineria Txarapeako maldan. AITOR LIZARAZU

jarriko dituzte, Miniluma, Luma eta Micenas modeloak. Bidegorriaz gain, beste hainbat gunetako farolei ere eragingo

diote lanek; besteak beste, Markolekoei, Belorrietakoei, Gernika plazakoei, Errekabarren kalekoei eta Mitartekoei.



Mikel Crespo proba batean. ANTXINTXIKAKO

"Oso eskertuta gaude Mikelen alde egindako guztiagatik"

Mikel Cresporen gurasoak "oso babestuta" sentitu dira; bihar, irailak 2, Zumaia triatloian izango dute gogoan

M.A. ARETXABALETAKO

Mikel Crespo Zuazua izango dute gogoan bihar, irailak 2, Zumaian egingo duten XI. triatloian. Antxintxika taldeko kidea zen 20 urteko aretxabaletarra, eta bi urtetan parte hartutakoa.

Minutuko isilunea egingo dute Sprint Distantziako probaren aurretik bihar arratsaldean, eta Trantsizio Arean -boxak- Crespok toki bat izango duela adierazi dute antolatzaileek; dortsal bat jarriko diote, bizikleta utzi beharko zukeen tokian. Etxekoak eta hurbileko lagunak han izango dira.

Etxekoak oso eskertuta

Pirinioetako Tena bailaratik gertu dagoen Balaitus (3.144 metro) mendira abiatu zen abuztuaren 16an, ostera, jende mordo gerturatu zen Crespo agurtzera: "Bai Mikelek, bai geuk lagun asko eta onak ditugula sentitu dugu, eta hori asko da".

tontoretik jaisteko ibilbidetik 150 metro beherago, harriarte batean. "Benetan eskertuta gaude laguntzera gerturatu zitzaizkigun guztiarekin, asko izan ziren, batzuk ezagutu ere egiten ez genituenak: Mikelen lagunak, mendira joateko gertu zeudenak, Jacako lagunak, Udala... Oso babestuta sentitu gara eta ez dugu eskertzeko hitzik", adierazi du Juxe Zuazua, Cresporen amak. Bilaketa lanetan, baina, Guardia Zibileko erreskate taldekoek bakarrik jardun ahal izan zuten eta horiendako ere esker hitzak dituzte.

Andramaixak hastear zirela jakin zen heriotzaren berria, eta jaietako ekitaldi askotan izan zuten hura gogoan. Abuztuaren 16an, ostera, jende mordo gerturatu zen Crespo agurtzera: "Bai Mikelek, bai geuk lagun asko eta onak ditugula sentitu dugu, eta hori asko da".

Ixadebaldek hamabi merkatari elkartuko ditu irailaren 7tik 9ra

Irailarekin batera XV. Ixadebalde azoka dator. Mojetan elkartuko dira, oraingoan, merkatariak irailaren 7tik 9ra bitartean; hona hemen ordutegia: irailaren 7an eta 8an, 16:30etik 20:30era; eta 9an, zapatua, 09:30etik 15:00etara.

Merkealdien azokan uda saioiko generoa eskainiko dute Aretxarteko merkatariak. "Bes-

te behin ere, kalitate ona prezio ezin hobean izango dugu herritarren eskura", jakinarazi dute. Elkartuko direnak honako hauek izango dira: Tak zapata denda, Iber, Belar Meta, Kilima, Asensio, Amaia ume denda, Titare, Haurrak, Mari Merke, Tinta Beltza, M5 kirol denda eta Aretxabaleta kirol elkarteak.

Mojetara gerturatutako berezoko artean 100 euroko bi bonu zozketatuko dituztela iragarri dute antolatzaileek.



Kidam mago gasteiztarra Elgetan egindako ekitaldi batean. IMANOL SORIANO

Magiarekiko zaletasuna sortzeko lehen pausoak

Magia Astea antolatu du Kultura Sailak irailaren 6tik 10era egiteko eta Kidam, Tor eta Txoborro euskal magoek tailerrak eta neska-mutikoendako zein helduendako emanaldiak eskainiko dituzte. Saio guztiak euskaraz izango dira

Mirari Altube ARETXABAETA

Lehenengoz antolatu du Kultura Sailak magiari eskainitako astea, eta horren asmoa da afizioa sortzea herrian: "Magiari bultzadaxo bat eman gura diogu gurean, zaletasuna sortu, eta aurrera begira ea magoren bat izaten dugun...", adierazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

Euskal mago profesionalak

Eskarmentu handiko hiru euskal mago profesionalen emanaldiak izango dira bost egunetan zehar: Asier Kidam (Gasteiz, 1974), Txoborro (Bermeo) eta Tor (Algorta, 1982). Gazte-gaztetatik murgildu ziren hirurak magiaren munduan eta gaur egun bizibide dute. Urte asko daramatzate, gainera, oholtza gainean emanaldiak eskaintzen, eta telebista saioak ere egin izan dituzte. Hain zuzen, euskal magoak balioan jartzea ere badu helburu Magia Asteak: "Erakutsi gura dugu Euskal Herrian ere badaudela magoak, mago

Egitaraua

Irailak 6

Kidam, Tor eta Txoborro magoak: *Gertuko magia*.
 • 17:00 Magia zaharren egoitzan.
 • 19:00 Magia kaleetan.

Irailak 7

• 11:00 Magia tailerra Tor eta Txoborro magoekin (6-10 urte).

Irailak 8

• 11:00 Magia tailerra Kidamekin (11-14 urte).
 • 22:00 Kidam magoaren saioa.

Irailak 9

• 19:00 Txoborro magoaren saioa umeendako.

Irailak 10

• 19:00 Tor magoaren saioa umeendako.

onak, gainera, eta euskaraz jarduten dutenak", dio Uribarrenek.

Umeendako zein helduendako

Herritarrengandik oso hurbil jardungo dute hirurek eguaztean, irailak 6, *Gertuko magia* izeneko saioarekin; zaharren egoitzan eta kaleetan izango dira orduan.

Eguen eta egubakoitz goizetan, ostera, neska-mutikoekin elkartuko dira, eta magia zelan egiten duten erakutsiko diete. Parte hartzeko izena aurrez eman beharra dago Arkupen.

Magia emanaldiak ere izango dira Arkupen; egubakoitz gauean Kidamek helduendako egingo du; eta zapatu eta domeka iluntzean Txoborro eta Tor magoek umeak izango dituzte ikusle. Emanaldien prezioa 3 euro izango da. "Umeak zein helduak aho zabalik uzteko gaitasuna duten magoak bertatik bertara jarraitu ahal izango dituzte herritarrek eta ikustekoak izango dira saioak", adierazi dute antolatzaileek.



Kanpai-jole eskolako kideak ekainean, Mendiola auzoan. ARIENTZAKO KANPAI-JOLE ESPOLA

Kanpai-jole eskolaren urteurren ospakizuna bihar, Areantzan

Kanpai-joaldiak, bertsoak, bazkaria eta kontzertuak izango dira, besteak beste, hamar urte ospatzeko

M.A. ARETXABAETA

Juane Arientzako kanpai-jole eskolak hamar urte bete ditu eta ospakizun dotorea egingo dute bihar, irailak 2, Areantza auzoan. "Kanpai-joleok hainbat topaketa izaten ditugu eta sarri elkartu izan gara. Oraingoan kanpai-joleak ez direnak ere ekarri gura ditugu gure ingurura, eta horretarako egitarau berezia gertatu dugu", jakinarazi du eskolako kide Julen Abasolok.

Kanpai doinuak eta askoz gehiago

Antolatzaileen gomendioa da autoak Urkuluko aparkalekuan uztea eta handik oinez joatea Areantzara. "Hori girotzeko ibilaldi akustikoa egingo dugu eta geuk sortutako doinuak izango ditugu lagun: kanpaiak, txalaparta...", dio Abasolok.

Ekitaldi nagusia 12:00etan izango da elizaren alboan: "Kanpai doinuak entzungo dira, baina

baita musika, bertsoak...". Ondoren, edonorendako zabalduko dute mikrofona bakoitzak nahi duena partekatzen. Gero, Mitarte Garai landetxean bazkalduko dute 70en bat lagunek. Arratsaldean, ostera, kontzertuak izango dira; Dixauen talde aretxabaletarrak eta The Potes arrasatearrak jardungo dute akustikoan.

Egitaraua

- 11:00 Ibilaldi akustikoa, Irabango iturritik auzora.
- 12:00 Kanpai joaldia eta gehiago, eliza alboan.
- 13:00 Solasaldia, eliza ondoan.
- 14:30 Bazkaria, Mitarte Garai landetxean.
- 18:00 Kontzertuak, Mitarte Garain: Dixauen eta The Potes akustikoan.

Hainbat herritar doaz astelehenean Arantzazura erromes

Arantzazuko Andre Mariaren bederatziruaren barruan joango dira aretxabaletarrak Arantzazura; ohitura duten legez, iraileko lehenengo astelehenean. Herritarrekin batera udalbatzako hainbat kide doaz, besteak beste, Unai Elkorro, Karmele Uribarri eta Mikel Uribetxerria. Meza entzungo dute eta bazkaldu ere bai hainbatek.

Bazkide kanpaina abian 'Zu zara UDAko izarra' leloarekin

Bazkide berriak gura ditu Aretxabaleta kirol elkarteak eta kanpaina jarri du abian *Zu zara UDAko izarra* leloarekin. Bazkide egin gura duenak UDARA bideratu dezala eskaera: udaretxabaletake@gmail.com. Hona hemen urteko prezioak: 0-6 urte bitartekoak: 20 euro; 7-25 urte artekoak (eta langabeak): 25 euro; eta 26 urtetik gorakoak: 80 euro.

Bertakoen apustua, eta kataluniarrei keinua

Atxorrotx Kultur Elkarteak antolatutako Errekan Goraren hamargarren edizioari asteburu honetan esango diote agur. Gaur, Wood Strings eta Gatributu, 22:00etan hasita, eta bihar, berriz, 19:00etan, Virgin Soul talde kataluniarra, hirurak Hotela tabernan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Abuztuko oporraldia pasata, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek Errekan Gora hamargarren edizioari agur esango diote astebukaera honetarako prestatu dituzten hiru kontzertuekin.

Uztailean hainbat hitzordu izan dira, eta iraileko lehenengo aste bukaera honetan, Wood Strings, Gatributu eta Virgin Soul taldeen kontzertuekin, hamargarren edizioa borobilduko dute.

Balorazio gazi-gozoa

Juan Luis Zubizarreta Atxorrotx Kultura Elkarteko lehendakariaren esanetan: "Edizio hau berezia izatea nahi genuen, eta, orokorrean, balorazio positiboa izan arren, hasierako emanaldietan ikusle gehiago izan dira, azken hiru emanaldietan baino, eta, gainera, eguraldiak ez du lagun du azken hiru haueetan. Gaurko eta biharko emanaldiak Hotelean egingo ditugu, hasiera-hasieratik, Errekan Gora antolatzen eta bultzatzen izan delako. Ea jendea gerturatzen den...".

Gaur, 22:00etan, Wood Strings Aretxabaletako taldea igoko da oholtzara, formatu akustikoko kantak eskaintzera. Paulek, Oierrek, Aselek eta Eñautek osatzen dute taldea, bi gitarra, bateria eta txeloarekin. Aretxabaletarren



Wood String taldea igoko da Hotela tabernako oholtzara, gaur, 22:00etan. WOOD STRINGS

emanaldi akustikoa amaitzean, 23:00etan, Gatributu taldea igoko da oholtzara. Gatributu euskal taldearen kantak bertsonatuko dituzte, eta, Goio Arrieta aretxabaletarra, taldeko kidea dena, Alex Sardui Gatibuko abeslari gernikarra imitatzen saiatuko da.

Bihar, zapatua, berriz, Kataluniako Virgin Soul taldearen kontzertua izango da, 19:00etan. Bartzelonako Lizeo kontserbatorioko ikasle ohiek osatutako taldea da, eta Euskal Herrian bigarren urtez egiten duten biraren barruan, Eskoriatzan egingo dute

geldialdixoa. Miren Zulaika abeslariak, Enric Fuster bateria-joleak, Aleix Triado gitarrak-joleak, Carlos Pascual piano-joleak eta Joan Barnaus baxu-joleak osatzen dute soul taldea.

Keinua kataluniarrei

"Wood Strings eta Gatributu taldeak bertakoak eta indarra hartzen diren taldeak dira. Virgin Soul, bestalde, Kataluniako independentzia prozesua dela-eta, beraiei keinua egiteko ekartzea erabaki dugu... adierazi du Zubizarretak".



San Bartolome egunaren baitan, auzo-bazkariko talde argazkia. IMANOL BELOKI

San Bartolome jaiak auzo-giro ederrean ospatu dituzte

Aurten, berrikuntza moduan, Imanol eta Egoitz trikitilariak batu zaizkie, eguna musikaz girotzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Abuztuaren 24a egun seinalatua izaten da Eskoriatzako Mazmela auzoko bizilagunendako. Izan ere, San Bartolome eguna ospatzen dute bertan, eta, aurten ere, huts egin barik, auzo-bazkaria egin dute. Zapatuan, iaz antzera, 40 lagun inguru batu ziren bertan.

Egunari hasiera emateko, iaz bezala, pilota partidua egin behar zituzten gazteek, baina aurten, poteoa egitearen aldeko erabakia hartu zuten. Hala, auzora igo aurretik herrian izan ziren hainbat lagun, eta, zerbait hartu ostean, catering-ak prestatutako bazkari ederra izan zuten Mazmelako Basuria elkartearen. Bapo bazkaldu eta auzokoekin momentu atsegin bat pasatzeko aprobetxatu zuten bertaratutako zirenek, eta elkarte kanpoan musika izan zuten aurten, berrikuntza moduan. Izan

ere, Imanol eta Egoitz trikitilariak izan ziren eguna girotzen, eta izan zen dantzara animatu zenik ere.

Ohitura aldatuz, auzoa indartuz

San Bartolome eguna ospatzeko ohitura mantentzen jarraitzen dute auzotarrek, baina, urteen poderioz, ospatzeko era aldatu egin dute.

Mazmelako Kapelena base-riaren gora joanda -autobidetik, Gasteiztik Eskoriatzara bitartean, errepidean ezkerretara begiratuta ikusi daiteke-, San Bartolome ermitan egiten zen lehen ospakizuna; meza, luntxa eta erromeria izaten zen. Azken urteotan, aldiz, auzo-bazkaria egin dute Basuria elkartearen. Alde batetik, auzotarrek euren artean hobeto ezagutzeko eta, bestetik, San Bartolome eguna ospatzeko ohitura ez galtzeko asmoarekin.

Goitibeherak egiteko tailerrera izen-ematea zabalik

Irailaren 22an egingo den tailerra lasterketarako ibilgailua puntuan jartzeko helburuarekin antolatu da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Azken urteotan Eskoriatzan erroto den ekintza da Apotzagako goitibehera jaitsiera, eta, Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeak antolatuta, lasterketako bost urte beteko ditu aurten.

Jaitsiera eguna irailaren 30a izango da; hala ere, horren aurretik, goitibeherak behar bezala jartzeko tailerra irailaren 22an izango da, eta bertara joan nahi duenak domeka honetatik aurrera aukera izango du izena

emateko bide hauen bitartez: Manuel Muñoz kiroldegira joanda edo gazteria@eskoriatzka.eus helbidera idatziz. Izena emateko azken eguna irailaren 20a izango da.

Tailerra ez da goitibeherarik ez duenak bat egiteko. Goitibeheran lanetan egin behar bada, laguntza eskaintzeko helburuarekin antolatu dute. Hauen inguruan ikasteko, zerbait soldatu behar izanez gero, horretarako tresneria eta materiala jarriko dute, besteak beste.



Iaz egindako goitibehera tailerrean konponketa lanetan. GOIENA



Antonio, Begoña, Sandra, Mariela eta Elaia, Gandian. ESKORIATZA KE



Ilargi eta Zuhaitz Legorburu, Huescan. ESKORIATZA KE



CR7 (Bittor) eta Aitziber, Portugalen. ESKORIATZA KE



Xabi, Aner, Ana eta Patxi, Sevillan. ESKORIATZA KE

Kirol Elkartearen kamiseta mundura zabalduz

'Eskoriatzako kamisetaz munduan zehar' egitasmoa bigarren urtez egin da aurten, iaz izandako arrakastaren ostean. Orain arte 40 argazki inguru bidali dituzte parte-hartzaileek, elkarteko kamisetarekin, munduko hainbat lekutatik

Imanol Beloki ESKORIATZA

Bigarren urtez, Eskoriatza Kirol Elkarteak *Eskoriatzako kamisetarekin munduan zehar* egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo honen helburua Eskoriatza Kirol Elkartearen ezagutzera ematea da, eta, horretarako, munduko hainbat lekutan elkarteko kamisetarekin argazkia atera eta bidaltzea izan da egitasmoaren funtsa.

40 argazki inguru bidali dituzte parte-hartzaileek, eta antolatzaileek elkartearen Facebook sare sozialean ari dira jartzen argazki guztiak.

Leku askotatik bidalitakoak

Iaz izandako arrakastaren ostean, aurten ere berriz egitea erabaki dute elkarteko kideek, eta edonork izan da aukera ki-

rol elkarteko kamisetarekin argazkia bidaltzeko. Leku askotatik bidali dituzte argazkiak parte-hartzaileek: Eivissatik, Mexikotik, Gironatik, Miamitik eta Hondurastik, besteak beste.

Irailaren erdialdera, kirol elkarteko talde guztien aurkezpena egingo da, eta elkarteko kide izateko bultzatzeko ere erabili da egitasmo hau.



Abuztuan izandako Madrilgo bisitari taldea. LEINTZ GATZAGAKO GATZ MUSEOA

Turismoak gorakada izan du aurtengo oporraldian

Gatz Museoak izan duen bisitari kopurua iazkoaren antzekoa izan arren, balorazio positiboa egin dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Gatz Museoak bisitari gehiago izan ditu aurtengo udako oporraldian, iazkoarekin alderatuz. Hala ere, urte osoko datuei erreparaturaz, antzerako datuak atera dituzte museoeko arduradunek.

Gatzaren ustiapenaren bila, kaera biltzen duen Gatz Museoeko urteko bisiten %50 eskoletatik joaten diren ikasleek betetzen dute eta aste bukaeretan joaten diren bisitariak, berriz, beste %50a. Beraz nahiko orekatuak dira datuak. Mendeetan zehar gatza ateratzeko erabili zituzten

sistemak ikustera, dorlak, zurez egindako putzupada-gurpilaren erreproduzioa ikustera, Deba ibaiaren sorlekura irteera... horrelakoak ikusteko aukera dago bertan.

Leku askotako bisitariak

Bilbo, Donostia eta Gasteizko bisitariak izan ohi dira gehien joaten direnak museo bisitatzera, eta, Estatutik, berriz, Kataluniatik, Valentziatik eta Madriletik joaten dira batez ere. Hala, aurtengo bisiten kopurua ikusita, balorazio positiboa egin dute bertako arduradunek.



Txukuntze lanak egunotan

Leintz Gatzagako Gatz Museoaren kanpoaldean txukuntze lanak egin dituzte egunotan. Kanpoaldean rotabatorra pasatu eta loreak jarri dituzte. Iturburuan eta ur gazi deposituan, berriz, garbiketa lana egin dute, bertatik lokatza aterata.

"Flock-en droneentzako aseguruak saltzen ditugu"

ANTTON PEÑA DISEINATZAILEA ETA EKINTZAILEA

Diseinatzailea izateaz gain, ekintzailea ere bada 27 urteko gazte aramaioar hau; berak sortutako Flock enpresak Allianz aseguru-etxearekin kontratu bat itxi berri du

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Peña Diseinu ikasketak egin zituen Mondragon Unibertsitatean, eta, gaur egun, Londresen dihardu lanean, duela urtebete berak sortutako Flock enpresarekin buru-belarri.

Zenbat denbora daramazu Londresen? Nolatan amaitu duzu han?

Diseinu Industrialak ikasi nuen Arrasaten, eta Italian Audi markarendako lan egiteko aukera suertatu zitzaidan, autoak diseinatzen. Honek Alemaniara eramanez ninduen, eta, han urte eta erdi egin ondoren, beste zerbait egiteko beharra sentitu nuen. Master bat egin nuen –Global Innovation Design–: sei hilabete New Yorken, beste sei hilabete Tokion eta urtebete Londresen. **Orain, ordea, lanean ari zara.**

Masterretik ateratzean, bi enpresa sortu nituen. Lehena Farewill izan zen. Testamentuak modu digitalean egiten dituen sistema bat da. Honekin urtebete egin nuenean, Flock enpresa sortzea erabaki nuen, duela urtebete inguru.

Zer egiten du Flock enpresak?

Droneentzako aseguruak saldu. Hala ere, industriak egiten duenaren aurkako modu batean egiten dugu hau. Hasteko, aseguruak urteka saldu beharrean, hegaldira saltzen ditugu. Izan ere, aseguruaren industrian, aseguru sinpleenak drone batek beste balio du. Gainera, gure aseguruaren prezioa hegaldiaren arrisku mailak baldintzatzen du. Gaur egun, jende asko dago droneak erabiltzen hasten dabilena eta ez dakiena non erabili dezakeen dronea, ezta zein baldintzatan ere. Horregatik, gure erabiltzaileei hori erakusten diegu eta pizgarri bat ematen diegu, erabilerara seguruagoa izan dezaten eta, beraz, aseguru-poliza merkeagoa izan dezaten.

Aseguru-etxeekin egiten duzue lan?

Guk plataforma hau guztia sortu dugu, marka bat sortu dugu,



Antton Peña, bere bulegoan. A.P.

"IZEN HANDIKO ASEGURU ETXEA DA ETA GURI HORREK BERME IZUGARRIA EMATEN DIGU"

eta orain, Allianz aseguru-etxearekin kontratu bat itxi dugu. Beraz, gure aseguru guztiak Allianzekin babesten ditu. Zerbait gaizki badoa, Allianzekin ordaintzen du, eta horrek ematen digu aukera mundu mailako aseguru onenetako batzuk eskaintzeko. Azken batean, izen handiko aseguru-etxea da eta guri horrek berme izugarria ematen digu. **Nola iritsi zarete Allianz bezalako multinazional batekin kontratu hori ixtera? Ez zen erraza izango...**

Ez da erraza izan, ez. Zazpi hilabete eta 28 bilera behar izan ditugu kontratu hau ixteko. Gure estrategia izan da haiei demostratzea gure aukeragun teknologia euren ezin dutela garatu. Eurak oso onak dira aseguruaren industrian, baina ez dira teknologian eta diseinuan adituak eta hori da gure haiei egin diezaikegun ekarpena.

Elkarlana gura duzue, beraz.

Hori da. Euren euren industria oso ondo ezagutzen dute eta gure geurea ere bai. Beraz, gure leloa beti izan da elkartasun hori sustatzea, elkarren kompetentzia izan beharrean eta elkarren aurka joan beharrean.

Zenbat lankide zarete Flocken?

Sei. Garatzaile bat, algoritmo eta datu guztiak eramatean dituen zientzialari bat, komunikazio aditu bat, estrategikoki enpresa garatzen diharduen bat, gerente bat eta ni, enpresaren sortzaile modura.

Pozik zaude, beraz, bizi izaten ari zaren esperientzia honekin.

Bai. Nik uste dut egunero zerbait berria ikasteko aukera ematen dizula honek, hemen badago beste leku askotan ez dagoen abiadura bat, mahai gainean aukera asko jartzen dizkizuna, eta, oraingoz, hori da nik bilatzen dudana: haztea eta ikastea.

Aramaio ez duzu faltan igartzen?

Beti. Honek ematen dizun beste kentzen dizu. Niretako, apustu bat da egiten nabilen hau egitea, baina gustatuko litzaidake hemen ikasitakoa han praktikan jartzea etorkizun batean, eta seguru aukera izango dudala.



NIRE USTEZ

SABIN ARANBURU

Ezker mugimendua

Duela hamarkada batzuk galdu zen han nonbait ezker mugimenduaren iraultzailetasuna. XX. mendearen historian izaniko presentzia zentrala mende horren amaieran amildu zen. Mugimendu honek bazuen azpimarratu beharreko puntu garrantzitsu bat: mugimendu iraultzailea zen; teorikoki, behintzat. Garaiko errealitatea ulertuta egoera bera iraultzea zuen helburu, produkzio forma kapitalistaren kategoriak deuseztatzea zihoana –soldatapeko lana, balioaren legea...–. Azkenean, klase gabeko gizartera salto egin nahi zuen.

XXI. mendeko hasiera honetan, berriz, aldaketa nabarmena eman da ezker mugimenduaren barnean. Sozialdemokraziaren ildo politikoa guztiz jan du mugimendu honek berez duen potentziala. Gaur, produkzio forma ez da aldatu, baina ezker mugimenduak bere helburua aldatu du. Bere burua iraultzailetzat harturik, kapitalismoa birproduzitzen duten formak aurkezten ditu errezeta santu gisa. Hau da, lehen iraultzailea zena orain ez da. Honen adibidetakoa bat ekonomia sozial eraldatzailea da. Forma kapitalista bera irauli ezean, ez ditugu eredu sozialak eraldatuko.



CRISTINA ETXENAUSIA

Soinuaren barnera bidaiaria

"Oso maila oneko" kontzertua eskaini zuten domekan Alberto Urretxok eta konpainiak. "Jendea oso gustura gelditu da eta, gainera, Urretxok maisuki transmititu dizkigu musikaren emozioak eta soinuaren bidaiak. Arrakasta itzela; guztiok pozik", azaldu du Cristina Etxenausiak, Kultura zinegotziak. Kultura etxea lepo bete zen emanaldiaz gozatzeko –100 pertsona inguru–.

Magialdia, Imanol Ituño magoaren eskutik, irailaren 5ean

Magia izango da protagonista Aramaioko kaleetan datorren martitzenean, irailaren 5ean.

Imanol Ituño magoak tailerrak eskainiko ditu, lehenik, 7 eta 12 urte bitarteko haurrentzat, 18:00etan, kultura etxean; ondoren, 18:30etik 19:30era herriko tabernetan arituko da; eta, azkenik, 20:00etan, magia ikuskitzuna eskainiko du Sastiñan.

Libertad Condiciona taldearen kontzertua gaur, Sastiñan

Tartean bi aramaioar dituen Libertad Condiciona taldeak emango die hasiera iraileko Sastiñako kontzertuei, gaur, 19:30ean –eguraldi ona bada, kanpoan; bestela, barruan–.

Datorren astean, irailaren 8an, Twin Room taldeak eskainiko du kontzertua eta bi aste barru, irailaren 15ean, Eltziegoko Udala Bandaren kontzertua izango da.



Txirrinak jotzeko zain aurreko ikasturteko lehenengo egunean. L.Z.

Goizeko zaintza iragarri du guraso elkarteak

Eguenean abiatuko da ikasturte berria Herri Eskolan. Maala guraso elkarteak antolatuta, goizeko zaintza zerbitzua izango da aurten, lehenengo aldiz. Irailaren 11n jarriko dute martxan, ikastetxeko gela batean, 07:30etik 09:00etara

Larraitx Zeberio ELGETA

Laster joko du, berriz ere, eskolako txirrinak. Lehenengo bi eskola egunak eguerdira artekoak izango dira. Astelehenean, hila- ren 11n, hasiko dira ohiko ordutegiarekin.

Egun horretan abiatuko du goizeko zaintza zerbitzua guraso elkarteak. Hainbat familiaren urteetako eskaera da. Zerbitzua,

hasiera batean, 07:30etik 09:00etara izango da, eta Nerea Villa izango da arduraduna. Egunean ordubeteko zerbitzuarengatik 50 euro da hileko. "Familiek agertutako interesarengatik kalkulatu dugu sei edo zazpi erabiltzaile izango dituela zerbitzu berriak. Aurrerago eguneko bonuak ateratzea ere aurreikus- ten dugu", esan du guraso el-

karteko kide Sarats Mentxakak. Interesatuak zabalik dute izenemate epea.

Haurreskolan 10 neska-mutiko Haurreskolan ere hastear da ikasturtea. Eguaztenean, hilak 6an, hasiko dute egokitzapena erabiltzaileek. Hain zuzen ere, 2016an jaiotako hamar neska- mutikok.

Udal zerbitzuak ere abiatzear

Arratsaldeko zaintza eta ludoteka zerbitzuek ere irailaren 11n zabalduko dituzte ateak. Udalak jakinarazi du Kepa de Vegak jarraituko duela hezitzaile lanetan. Zerbitzua, aurreko ikasturteetan moduan, 16:00etatik 19:00etara emango dute, Torrealdean. Prezioak ere iazkoak izango dira. Ikasturte honetan, ordea, urteko kuota ere atera du Udalak. Kuota hori

zaintzaren kasuan 600 euro izango da eta ludotekaren kasuan 280 euro. "Helburua da zerbitzuari egonkortasuna ematea eta urte osoan zehar erabiltzeko konpromisoa hartzen dutenei prezioa hobetzea", esan zuen uztailako osoko bilkuran Iraitx Lazkano alkateak.

Gazteleku zerbitzua urrian abiaraziko dute. Nerea Villak jarraituko du dinamizatzaile

lanetan, eta hemen ere mantendu egiten dira prezioak.

Urrian hasiko dira udal kirol zerbitzuko ekintzak: eskola kirola saioak, sasoiaren egoteko gimnasia, GAP, spinninga, tonifikazioa... Hasiera batean, iazko ordutegiak mantentzeko asmoa du Udalak. Aurreratu dute Etor Garatek jarraituko duela dinamizatzaile. Bi urteko lanaldiaren ostean berriz deitu du lan poltsa Udalak eta hautagai bakarra aurkeztu da.



Iaz baserritarrek egindako azokako bi postu. IMANOL SORIANO

Udazken hasieran baserritarren eta artisauen azoka

Irailaren 23an egingo dute, eta, urtero moduan, egun berean jokatu da Intxortako igoera

L. Z. ELGETA

Hamalau postu izan zituen iaz baserritarren azokak. Aurten ere antzerako kopuruetan ibiltzea aurreikusten du Udalak. "Iazko parte-hartzaileei gutun bana bidali zitzaizen uztailan, eta hasi dira izena ematen", adierazi du antolaketa taldeak. "Interesatuak zabalik dutela izenemate. Azoka amaierako bazkaria, aurten, El Rincon de Lola tabernan izango da".

Intxortako igoera

Egun berean jokatu da herrian ikusmina sortzen duen Intxor-

tako igoera. Azoka 10:30ean hasiko da. Lasterketa, berriz, 11:00etan jokatu da.

Hiru kategoria izango dira aurten ere: 16 urtetik gorakoena, 12 eta 16 urte artekoena eta 12 urtera artekoena. Gazteen kasuan, igoera Salbadorrera izango da.

Iaz hamabi lagunek hartu zuten parte nagusien lasterketan eta beste dozena batek 12 urtetik azpikoetan. Neska-mutikoetan, Unai Eguren izan zen azkarrena eta nagusietan, Iñaki Egizabal. Emakumeetan, berriz, Marta Barrachina.



L.Z.

Txirringulari ohien bazkaria

Aurten ere, Elgetako lagun talde batek antolatuta, mahaiaren bueltan elkartu dira profesionalak izandako hainbat txirringulari. Atzo, eguna, egin zuten lagunarteko bazkaria, eta 55 bat lagun elkartu ziren oraingo eta lehenagoko kontuak partekatzeko. Txirringulari ohiek gustura hartzen duten urteroko hitzordua da.



Trekutzeko belardia; argazkian, Udalak abuztuan berriro dituen mahaietako batzuk. MAITE TXINTXURRETA

Trekutz eguna ospatuko da bihar, lehenengoz

Herriko Plazatik 09:30ean irtengo dira oinezkoak; ordubete geroago bizikleta lasterketa abiatuko da; eguerdian, bazkaria eta musika izango dira protagonista. Antolatzaileek autoa ez hartzeko dei egin dute eta oinez igotzeko eskatu dute

M. A. / M. T. ANTZUOLA

Bihar, zapatua, irailak 2, Trekutz eguna ospatuko dute, lehenengoz, Antzuolan. Arrola Mendi Taldeak antolatuta ohi zuen Finalista Egunaren ideari helduta, lagun talde batek egun osoko egitaraua prestatu du Irimo azpiko gunean. Deialdia benetan arrakastatsua izan da, bazkarirako txartel guztiak agortu egin baitira.

"Erantzuna oso ona izan da, espero genuena baino hobea. Guk uste genuen 80 edo 100 pertsona inguru batuko ginela, eta 160 txartel atera genituen, badaezpada. Azkenean, denak saldu ditugu, eta gehiago ere bai. 220 pertsona inguru batuko gara. Horrenbestez, oso gustura gaudere herriarrek emandako erantzunarekin", dio antolaketa taldeko kide batek, Imanol Lizarralde.

Dena den, txartel barik geratu diren herritar horiek ere badute Trekutz gunean Udalak berriro dituen mahaietan edo

belarretan euren otordua egiteko aukera.

Herriko Plazatik egingo dute zapatuan Trekutzera igoera; 09:30ean oinez, eta ordubete geroago bizikleta lasterketa izango da. "50 bat lagun aterako dira bizikleta lasterketan. Gero, goian, salda eta txorizoa izango da, trikitilariak ere bai, bolo eta toka txapelketak, eta ondoren, bazkaria. Bazkalostean, berriz, herriko bertsolariek kantatuko dute, *Kaxeta*-k eta Aitzol Iturbek. Ondoren, larrain dantza izango da, eta gero jaitsiera. Herrira jaistean, elektrotzaranga edo musika izango dugu".

Finalista Egunaren oinordekoa

Garai batean Arrola Mendi Elkartek antolatuta ohi zuen Finalista Eguna faltan igartzan zutelako animatu da antzuolar lagun talde bat egun berezi hau antolatzera: "Finalista Egunak mendi irteerekin zeukan zerikusia, eta jada galduta zegoen. Orduan, lagun batzuk elkartu

ginen eta pentsatu genuen hori berreskuratu beharra zegoela. Beraz, bilera batzuk egiten hasi ginen, eta, dena ondo ateratzen joanenez, aurrera egin dugu. Eta, ikusten dugunez, herriak ere erantzun du; beraz, gu oso gustura gaude".

Zenbait eskaera, biharko

Zapatura begira zenbait eskaera egin dizkiete parte hartzaileei. Batetik, ahal den neurrian autoz igotzea saihesteko eskatu diete herritarrei, eta ahal duten guztiak oinez edo bizikletaz igotzeko. Horrez gain, zaborrak jasotzeko gune bat ezarriko dutela azaldu dute, eta sortutako hondakinak bertara eramateko eskatu diete. Bada, zapaturako ia dena prest dutelarik eta jende mordoxka elkartzea espero delarik, Trekutz egunaz gozatzeko dei egin dute antolatzaileek: "Disfrutatzekeo zapatuko egunarekin, eta ea zer moduz ateratzen den. Ea hurrengo urtean berriro egiterik dugun!".



MAITE TXINTXURRETA

Sardinak San Bartolome egunean

Giro ederra izan da aurtengo San Bartolome festan. Herritar ugari elkartu zen sardina erreka dastatzera. Anelkarko kideek balorazio positiboa egin dute: "Aurreko urteetan baino jende gehiago batu da; beste bi kilo sardina gehiago lortu beharra izan genuen. Guztira, 520 euro batu ditugu Afrikako proiektuak bideratzeko; balorazio oso positiboa egiten dugu".

Gaurko elkartasun festak ukitu senegaldarra dakar Antzuolara

Senegalgo jaki eta edariez gain, hemengo baserrietako ohiturak presente izango dira Anelkarren festan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Elkartasunez bustiko da gaur Zurrategi plaza, 19:30etik aurrera. Senegalgo *Maafe* jakia dastatzeko aukera izango da -arroz, berdura eta kakahuetea-. Edateko, aldiz, *frappellate*-a. Baina herritarren elkartasuna nagusi den festa honetan, antzuolarren patata-tortillak ere izango dira protagonista. Iaz, 30 tortillatik gora jaso zituzten.

Baserriarren ohiturak batuz

Aurten, baina, ikuskizun berezia prestatu dute antolatzaileek.

Hala, gari-jotzea nola egiten den ikusteko aukera izango dute gaur Zurrategira gerturatzen direnek. "Aurten, uztailearen 22an gari-moztea egin genuen. Eta gaurko ikuskizunean azalduko dugu beste fase batzuk nola egiten diren: asauak eta metak nola egin, eta *txankete* moduan garia nola jotzen den", azaldu du Anelkarko kide Jabi Etxanizek.

Ohitura hau 1960ra arte ohikoa zen baserri guztietan. 30 minutu inguruko iraupena izango du ikuskizunak.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Egunez egun berotzen joan diren Andramaixak

Txupina botatzear zela jakindako berriak –Mikel Cresporen heriotza– ilundu egin zuen jaien hasiera. Herriko musika taldeen kontzertuek eta Kuadrillen Egunak lortu zuten piztea, eta, azken urteetan legez, jendetza elkartu zen herri bazkarian eta jokoetan

Mirari Altube ARETXABALETA

Andramaixa hasiera latza bizi izan zuten aretxabaletarrek; izan ere, txupina bota baino minutu batzuk lehenago jakin zuten desagertuta zegoen Mikel Cresporen gorpua aurkitu zutela. "Ez zegoen umorerik betiko ekitaldietarako; pregoia eta ikurri-nari agurra ordezkatu genituen minutu bateko isilunearekin eta ohikoa ez den beste kantu batekin", azaldu dute Joxe Migel Uribarren Kultura zinegotziak eta Unai Elkoro alkateak.

Arrakastatsuen hirugarren eguna

Egunek aurrera egin ahala joan ziren berotzen jaiak: "Ekitaldirik arrakastatsuenak Huntza taldearen kontzertua eta hirugarren eguneko bazkaria eta sokamuturra izan ziren, baita Rockalean taldearen kalejira ere". Uribarrenen eta Elkororen esanetan, ez da izan aipatzea merezi duen arazorik, baina onartu dute sokamuturrean eztabaida beroa izan zela: "Tira-bira bat zezenzale eta animaliazale batzuen artean. Arratsaldean ere izan ziren zezenen aurkakoak protestan, baina ez zen sortu inongo istilurik". Bestetik, paella jan barik ere geratu ziren hainbat herritar, nahiz eta 700 lagunendako gertatu: "Paella

hartu gabe geratu ziren, baina, behin plazara bueltan, soberan zeuden platerak agertzen hasi ziren; beraz, denek jan zuten". Eta gaineratu dute: "Hurrengo urterako paella eta mahaien banaketa antolatzeko asmoa dugu. Denontzat adina izaten da eta ez dago zertan itxaroten egon ordu batetik ilaran".

Eskerrak eman gura dizkiete festetan lanean jardun dutenei, ekitaldietan parte hartutakoei eta zaratak jasan behar izaten dituzten bizilagunei. Aurtengo jaiak "onak" izan direlakoan daude, baina hobetzeko asmoa ere agertu dute.

Txosnagunekoak pozik

Txosnaguneko antolatzaileak ere pozik daude Andramaixek eman dutenarekin: "Aurtengo jaiak auzolanean aurrera eramateko gazteok izan dugun ilusioa eta eta indarra azpimarratu nahi genituzke. Jai bereziak izan dira eta gazteok oso batuta egon gara. Inoiz baino jende gehiago izan da txosnetan lanean zein ekintza ezberdinetan parte hartzen, herritar guztiendako elkargune bat sortuz". Era berean, eskerrak eman gura izan dizkiete lanean ibili diren gazte guztiei eta txosnagunera gerturatu diren herritar guztiei.



Pregoa esan beharrean, Cresporen omenezko kamiseta jarri zuen UDAK.



Udalbatzako hainbat kide eta herritarrak minutuko isilunea egiten, Crespo gogoan.



Umorea, giro ona, beroa... hori eta gehiago batu ziren gazteen bazkarian.



Txoria txori kantuan Aretxabaleta Abesbatza, herritarrek lagun eginda.



Eramateko
EGUNEKO
MENUA
badago



ARETXABALETA
Tel.: 943 77 06 12
gertujanariak@euskalnet.net
www.gertujanariak.eus



Txistulariek egin zieten lagun udalbatzako hainbat kideri elizara.



Elizbira Durana kalean herritarrekin batera.



Eskeleto erraldoiaren atzetik ibili ziren herritarrak.



Milagroko bandaren doinuak jarraitzen gustura.



Herriko Plaza bete egin zuen Huntza taldeak.



Hainbat gaztek jardun zuten herriko eraikinetan gora eta behera.



Munstruos de la Universal taldeko kideekin jolasean neska-mutikoak.



Laiba Mudassar eta Xabi Antxia alkate txikiak Unai Elkororekin.



79. txirrindulari lasterketa J. A. Garcarendako izan zen.



Berriaz ere zuekin!

Mendiola elizatea 5 • Eskoriatza • 943 71 56 18





Gura beste jolas egin zuten neska-mutikoek.



Wood Strings talde aretxabaletarrak bete egin zuen txosnagunea.

**HUNTZA TALDEAK
BETE EGIN ZUEN
PLAZA, BAITA
HERRIKO TALDEEK
ERE TXOSNAGUNEA**

**700 LAGUNENDAKO
GERTATU ZUTEN
PAELLA, BAINA EZ ZEN
IRITSI ILARAN ZEUDEN
GUZTIENDAKO**



Gazte kuadrilla paella jaten.

**MIKEL CRESPOREN
OMENEZ KANTUAN
EGIN ONDOREN
ARGAZKIA ATERA
ZUTEN KUADRILLEK**

**HERRIKO KALEAK
JENDEZ BETE ETA
KANTUAN JARRI
ZITUEN HERRITARRAK
ROCKALEAN TALDEAK**



Airean ibili zuen gaztea zezentxoak.



Rockalean taldearen bueltan herritarrak kantuan.



Mikel Crespo gogoan elkartu ziren kuadrillak, haren etxekoak eta hainbat herritar, hirugarren egunean; lehenengo, kantuan egin zuten, eta gero, argazkia atera. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO ETA MIRARI ALTUBE



**Aretxabaletako
Udala**



Udal Batzordearen agurra

Oi Gatzaga, itsasoa azpian, gazkina herria!
Hiruerreketan, zubi eta guzti, sorburu erreka.

Goitik behera, horra, Gipuzkoan lehena.
Ebro behetik beti mehatxu gorri-laru-gorria;
alabaina itsasoratzen den hartatik dator, ostera,
estelada haize gogo askatzailea.

Oi Gatzaga, herri txiki... Handia bihotza!
Bailaran gora, aurtan, Korrikaren ahotsa;
goitik zein behetik agintari ugarik bisita,
zenbait laguntza eta promesa;
eta, eguzkia bidelagun, gatza eraman genuen Bermeora.

Oi Gatzaga, gatzdun eta euskalduna.
Jarrai dezagun egiten geurea, duguna, garena.

Herria sorburu eta helburu,
izenetik izanera urratzen bidea,
erauzten mineral jangarria:
azaleratzen lehena eta gerora hauspeatzen dena.

Oinarri betiere parte hartzea,
Leintz gazitzen... eta Euskal Herria!

Segi dezagun, segi:
aldarrikatzen bidegorria,
garatzen auzolana, gozatzen ere jai,
-ez, beti, dela ez; zer bestela-eta,
gogoan guztiok ez gaudela, goldatzen itzulera.

Laztan bat Alizia!

Gora Andramaixak!

Eta ingurukoei ohiko deia:
etor zaitzete, errekan gora
nahiz lautadatik behera,

GATZA GARA!!

EGITARAUA

IRAILAK 7

EGUENA

18:00 Etxafuego eta bonba japoniarrak.

18:30 Buruhandiak.

19:00 Bederatziurrena Dorletan.
Eskoriatzako abesbatzarekin.

Ondoren Mokadutxo. Gatza, ogia
eta ardoa.

20:00 Pintxo-potea.

IRAILAK 8

EGUBAKOITZA

11:00 Otxandiokei ongietorria
egingo zaie Dorletan, salda
beroarekin.

12:00 Meza nagusia Dorletan.
Eskoriatzako abesbatzarekin.

14:30 Bazkaria frontoian. Norberak
etxetik eroanda.

16:30 Otxandioko lagunekin

jolasak. Sokatira, laukoa, boloak...

18:30 Apar festa.

19:30 Buruhandiak.

21:00 Bolo txapelketa.

22:00 Rock jaialdia.

IRAILAK 9

ZAPATUA

12:00 Trikitilariekin kalejira.

12:30 *Mr. Frack* malabarista
ikuskitzuna.

13:30 Kantu poteoa.

16:00-18:00 Puzgarriak.

17:00 Mus eta briska karta-joko
txapelketa.

18:00 Kintoen arteko jolasak.

21:30 Herri afaria.

23:00 Akerbeltz taldearekin
dantzaldia.



lazko apar-festa. GOIENA

IRAILAK 10

DOMEKA

09:00 BTT lasterketa –haurrak
10:00etan-.

12:30 Herri kirolak.

13:30 Arrasate Musikaleko Big
Bandaren kontzertua.

17:00 Pilota partiduak.

19:00 Kale bloka.



"Leintz Gatzagako Udalak
Andramari jai zoriontsuak opa
dizkizue gatzagar guztioi!"



Andramaixetan kultura eskaintza zabala

Irailaren 8ko rock kontzertuetan, Txerrikumeak, Oldarkor, Teers And Beers eta Legez Kanpo taldeak igoko dira oholtzara. Zapatuan, berriz, Akerbeltz taldeak dantzaldia eskainiko du eta domekan, Arrasate Musikaleko Big Band taldea izango da

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Andramaixak ate joka daude, eta irailaren 7tik 10era bitartean ekitaldi ugari izango dira. Musikak egitarauaren zati handi bat hartuko du, eta aurten emanaldi bikainak izango dira.

Egubakoitzean, irailaren 8an, 22:00etan hasita, rock kontzertuak izango dira; Gatza City Crew gazte taldekoek antolatuta dituzte. Zapatuan, irailaren 9an, bestalde, Akerbeltz erromeria taldea izango da, 23:00etan, eta euskal musika erreperitorio zabala eskainiko du. Estilo ugari: ska, punka, rocka eta euskal folklorea; eta kontzertu dantzagarria eskainiko dute, lau orduko iraupena izango duena, tarteko atsedendialdiarekin.

Ibilbide luzeko banda

Azkenengo egunean, irailaren 10ean, domekan, ere izango da musika. Izan ere, 13:30ean, Arrasate Musikaleko Big Band taldeak



Akerbeltz musika taldea oholtzan. AKERBELTZ

erreperitorio zabaleko kontzertua eskainiko du.

Arrasate Musikaleko ikasle eta irakasleek osatzen duen taldeak swing, blues, bossa, funk eta rock estiloetako kantuak eskainiko ditu.

LAU ORDUKO EMANALDIA ESKAINIKO DU AKERBELTZ MUSIKA TALDEAK

"Gazteok ere antolatu behar ditugu ekintzak; bestela, jai daukagu"

BEÑAT AGIRREURRETA GATZAGAKO GAZTE TALDEKO KIDEA

Beñat Agirreurreta Gatzagako Gazte Taldeko kidea da eta aurten, irailaren 8ko, egubakoitzeko, rock kontzertuen antolaketa lanetan izan da, besteak beste.

Zein talde izango dira aurten Leintz Gatzagako rock jaialdian?

Txerrikumeak, Oldarkor, Legez Kanpo eta Tears And Beers taldeak izango dira aurten. Guztiak punk-oi! musika estilokoak dira. Musikari gazteek osatzen dituzten taldeak dira. Gernikatik datorren Teers And Beers da ibilbide luzeena



GOIENA

duen taldea, Debako Oldarkor eta Arrasateko Legez Kanpoko musikariek ere beraien ibilbidetxoak dute egina, azken hauek Agressive Combat taldetik datozenak, eta Aretxabaletako

Txerrikumeak hasiberrienak izan arren, hauek ere indarra hartzen ari dira. Talde guztiek emanaldi bikaina eskaintzea espero dugu eta bailarako jende asko etortzea gustatuko litzaiguke. **Gazte Taldearen konpromisoa handia da herriko jaien antolaketan?** Gatza City Crew –Gatzagako gazte– deitzen diogun taldean, 17 eta 28 urte bitarteko hainbat gazte gaude, eta inplikatu beharra daukagu jaien antolaketan; bestela, jai daukagu. Egubakoitzeko kontzertuak guk antolatzen ditugu; zapatukoak, berriz, Udalak. Hala ere, iaz ez genuen irabazi handirik izan, eta Udalak diru gehiago jarri behar izan digu aurten, kontzertuak antolatzeko.

Auzolanean egindako bi hitzordu garrantzitsu

Herri afaria eta kintoen arteko jolasak arrakastatsuak izatea aurreikusten dute antolatzaileek

I.B LEINTZ GATZAGA

Kirol eta kultura hitzorduek gain, ondo jatea ere gustuko dute gatzagarrek, eta Andramaixetako egitarau zabalean ez da faltako otorduetarako tarterik.

Irailaren 8an, 14:30ean, bazkaria egingo da frontoian, eta nork bere jana eraman beharko du. Egun berean, gainera, ohiturari jarraituz, Otxandioko bisitariak izango dituzte goizetik, eta hauek ere batuko zaizkie bazkaria. Joannes Mendizabal Leintz Gatzagako Kultura zinegotziaren esanetan: "Bazkaria lanegunean izango da, egubakoitzean, eta herrikoak zein Otxandiotik etorritakoak izango gara bazkaltzen. Iaz, esate baterako, paellak prestatu genituen, eta aurten ere asmo bera daukagu; edozelan ere, deialdia egin arren, ez dakigu jende asko animatuko den".

Auzolanean egindakoa

Zapatuan, irailaren 9an, berriz, herri afaria izango dute gatzagarrek, eta auzolanean egiten duten hitzordu garrantzitsua izan ohi da. "Sorginak taldekoek egindako entsaladak, parrilan saiheskia eta txuletilak, Eusebiok egindako postrea, flana eta izozkia izango dena... izango dugu", adierazi du Mendizabalek.

Hala, 180 pertsonarentzako afaria egitea kalkulatu dute, eta txartelak Labidean daude salgai; helduentzat hamabost eurotan eta umeentzat bost eurotan. "Batez ere, gatzagarrek egongo gara herri afarian, baina bailarako herriko jendea ere urtero izaten dugu. Hala, beste herrietakoei ere gonbidapena egin nahi diegu, bertaratu daitezten, afari ederra izango delako, eta giro onean jan ostean dantzaldira animatu daitezten".



laz egin ziren lehen aldiz kintoen arteko jokoak. GOIENA

Sorpresaz beteriko jolasak

laz, lehen aldiz antolatu zituzten kintoen arteko jolasak Leintz Gatzagako Andramari jaietan. Herri txikia izanda, kintadaka baino gehiago, hamarkadaka ezberdinetako herritarrek hartu zuten parte: patatak zuritzen, sokatiran eta txupitokak edaten, besteak beste. Izandako arrakastaren ostean, aurten ere antolatu dituzte, eta zapatuan, irailaren 9an, 18:00etan izango dira.

Gatza City Crew gazte taldeko bi kide arduratu dira, batez ere, jokoaren prestakizun lanez, eta aurten egingo den bigarren edizioan sorpresa ugari izango direla adierazi dute. *Pike* sanoa bultzatu gura dute, primeran pasatzea eta, bide batez, barre batzuk egitea. Hala, alde batetik, herritarrei bertaratzeko dei egin nahi diete, eta, bestetik, Debagoieneko jendearek ere gonbidapena egin, jokoak ikustera anima daitezten.



Inaxio Perurena, iaz, Andramaixetan egin zuen erakustaldian. GOIENA

Orotariko kirol eskaintza aurtengo jaietan ere

Andramaixetako azkenengo eguna –irailak 10, domeka– herriko kirolzale eta kirolariei zuzendutako eguna izango da; izan ere, pilota partiduak, herri kirolak eta kale bloka izango dira, 15. urteurrena beteko duen BTT lasterketaz gain

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA Domeka arratsaldean, pilota partiduak izango dira protagonista, 17:00etan hasita. Infantil mailako finala izango da lehenengo partidua: Egiguren-Alonso azpeitiarrak Sein-Aburuza oiartzuarren aurka. Bigarren partiduan, berriz, elite mailako pilotariak izango dira aurrez aurre: Alberdi azpeitiarra eta Garmendia beasaindarra Murua-Bolinaga bikote arrasatearren aurka arituko dira. Nabarmenezkoa da Murua arrasatearra oraindik gazte mailako jokalaria dela, baina dagoeneko bost txapel irabazi ditu aurtun –Lizarran, Deban, Añorgan, Legution eta Donezteben–. Beraz,

lehia polita espero da bi bikoteen artean.

Pilotarekin lotuta, irailaren 17an, Gatzagako txapelketako finalak jokatu dira, 10:00etan. Lehenengo, zazpi urtekoak: Ormazabal-Landa zegamarrak Clavijo-Ibarguren azkoitiarren aurka. Bigarrenik, zortzi urtekoak: Bidezabal-Elosegi azpeitiarrak Segurola-Etxaniz azkoitiarren aurka. Hirugarren partiduan, bederatzita urtekoak: Aldazabal-Arregi azkoitiarrak Gaztañaga-Berroz andoaindarren kontra. Hamar urtekoetan, Perez-Alzelai legazpiarrak Murua-Agirre alegiarren aurka. Hamaika urtekoetan Aldazabal-Segurola azkoitiarrak Beitia-Etxeberria lesakarren

aurka. Hamabi urtekoetan, Barandika-Kareaga munitibartarrak Etxani-Juaristi azkoitiarren aurka, eta hamalau urtekoetan, Ituarte-Paskual atxondoarrak Ibarloza-Urrutia markinarren aurka.

Herri kirolak eta kale bloka

Aurtun herri kirol mistoak izango dira. Hala, emakumezko bi aizkolari –Irene Izkué eta Itsaso Ontsaló– eta gizonezko harri-jasotzaile bat –Jokin Eizmendi– izango dira protagonistak, 12:30ean hasiko den ekitaldian.

Azkenik, kaleko paretak eta harrietan eskalatzeko aukera ere egongo da, hainbat monitorrek gidatuta, 19:00etan.

"Aurtengo ibilbideak bidezidor gehiago ditu, teknikoagoa da"

IBAI AGIRREURRETA ANTOLATZAILEETAKO BAT 27 kilometroko ibilbidea da izango du BTT lasterketak

E.A. LEINTZ GATZAGA

Aurtun 15 urte betetzen ditu Leintz Gatzagako BTT lasterketak, eta zirkuituan hainbat aldaketa egongo dira. Gazte talde batek diseinatu du ibilbide berria. Irailaren 10ean izango da lasterketa, 09:00etan. Haurrendako lasterketa, berriz, 10:00etan izango da. Azken honetako ibilbidean ez da aldaketarik egongo, bi kilometro izango ditu.

Ze aldaketa izango ditu zirkuituak?

Aurtengoak bidezidor gehiago izango ditu, zirkuitu teknikoak da; izan ere, orain arte, pista asko zegoen. Distantzia ere luzatu egin dugu. 27 kilometro izango dira, 1.200 metroko desnibelarekin. Iazko zirkuituarekin alderatuta, gogorragoa dela esango nuke, baina, bizikletan ibiltzen den edonorentzat, nahiko erraza. Azken finean, profil horretako jendeari zuzendutako martxa da, ez da edonorentzat.

Zergatik aldatu duzue ibilbidea?

Azkeneko urteetan parte-hartzaile kopurua jaitsita zegoela ikusten genuen. Urtero gutxi gorabehera ibilbide bera izaten zen. Guk geuk urtero egin izan dugu eta gure artean komentatzen hasi ginen jendea aspertuta zegoela beti ibilbide bera egiteaz, eta aldaketa baten beharra ikusi genuen.

Zein izango litzateke jendea parte hartzera hurbiltzeko mezua, antolakuntzaren partetik?

Aurtun egin ditugun aldaketekin, nire ustez, bizikleta gainean disfrutatzeke moduko ibilbidea



Ibai Agirreurreta. I.A.

dela, ikuspegi ederrak eskaintzeaz gain, ibilbidea bera ere oso polita iruditzen zaigulako. Horrez gain, urtero moduan, antolakuntza oso ona da. Anoa guñeak oso ondo prestatuta izaten ditu eta ibilbidea ondo seinalatuta dago.

Izena emateko zer egin behar da? Egunean bertan izango da horretarako aukera, lasterketa hasi aurretik.

Aurrera begira, asmo berarekin jarraituko duzue?

Bai; datorren urterako baditugu gauza berri batzuk buruan, baina joango gara pixkanaka gauzak aldatzen, ez genuen gura urte batetik bestera lasterketa goitik behera aldatu. Gu berez ez gaude antolakuntza batzordean, baina haiekin harremanetan jarraituko dugu, aurretiz ere elkarlanean aritzeke helburuarekin.



sormen ood
industrial design

Andramaix jai
gorioak !!



lazio helduen danborrada eurpean egin zen, 450 bat parte hartzaileekin. GOIENA

Inoizko danborradarik zaratatsuenerako gertu

San Martin jaietako helduen danborrada irailaren 15ean irtengo da udal biltegitik (22:30), eta, izen-ematea gaur amaitzen bada ere, orain arteko parte hartze handiena izatea espero da; oraingo, 18 taldek eta 550 danbor-jole inguruk eman dute izena

Jokin Bereziartua BERGARA

Ate joka dira San Martin jaiak. San Martin Agirre eguna –irailak 16– zapatua izanik, astebete lehenago, irailaren 9an, egingo da feria –hurrengo astean eman go ditu Udalak azokaren eta gainerako ekitaldien inguruko xehetasun guztiak, egitarauaren aurkezpenean–. Udalak aurreratu dutenez, baina, gazta lehiaketan 21 postuk hartuko dute parte eta barazkien eta fruten lehiaketan, berriz, 15 postuk.

Danborrada arautzeko beharra

Azokak hartuko du protagonismoa irailaren 9an. Hala ere, alde aurretik izena ematea beharrezkoa den ekitaldiak ere badira, eta horren adibide da helduen danborrada.

Udalak, 2016an parte hartu zuten taldeetako zuzendari gehien adostasunarekin, danborradaren funtzionamendua arautzea erabaki du aurten. Hala, izena emateko azken eguna gaur da, irailak 1. Honako datu hauek

eman beharko dira Kultura Zerbitzuan: taldearen izena, taldekide kopurua, taldeak danborra edo barrika joko duen eta taldeko zuzendariaren kontaktua –izen abizenak, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa zehaztu behar dira–. Orain arte 18 taldek eta 550 parte hartzaile inguruk eman dute izena. Entseguak, berriz, irailaren 5ean, 6an, 11n, 12an eta 13an izango dira seminarioko karpan (20:00). Hori bai, talde bakoitzeko zuzendaria irailaren 5ean Musika Eskolan 18:00etan egingo den saiora ere joan beharko da.

Bestalde, taldearen ardura izango da danborradarako banderak lortzea; eta banderaduna, ahal dela, emakume bat eta gizon

GAZTA LEHIAKETAN 21 POSTUK EMAN DUTE IZENA; BARAZKIEN ETA FRUTEN LEHIAKETAN, BERRIZ, 15 POSTUK

bat izan beharko da. Izan ere, talde bakoitzak gehienez bi bandera eraman ahal izango ditu.

Euriarekin, ibilbide motza

Iaz eurpean egin zen helduen danborrada eta aurtengora begira zenbait erabaki hartu dira. Eguraldi txarra egiten badu danborrada San Martin plazatik behin bakarrik pasatuko da; bestela birritan pasatuko da.

Hori bai, Udalak pontxo batzuk erosiko ditu eta euria egin ez gero parte-hartzaileei banatuko zaizkie. Danborrada bukatutakoan bakoitzak pontxo bere etxera eramango du, ez da danbor eta makilekin batera entregatuko.

Talo eta odoloste postuak

Irailaren 9ko azokan taloen eta odolosten postua –Katabixa plazan, Oxirondo ondoan– jartzeko zozketa egin du Udalak: Harrera elkarteak jarriko du taloen postua eta Jardun euskara elkarteak, berriz, odolosteena.

Gaur hasi eta domekara arte, jai giroa izango da nagusi Osintxun

Osintxun Musikara! lehiaketaren bigarren edizioa gaur, 22:00etan hasita; talde gonbidatua Eskean Kristo da

J.B. BERGARA

Osintxuko Kofraixetan egitarau zabal antolatu dute gaur arratsaldean hasi eta domeka gaue bitartean. Adin eta gustu guztiak asetzeko moduko askotariko ekintzak antolatu dituzte;

tartean, Osintxun Musikara! lehiaketaren bigarren edizioa; final handia gaur izango da eta aurten hiru talde izango dira lehiatuko direnak. Gonbidatu moduan Arratiako Eskean Kristo taldea igoko da oholtzara.

Egitarauko ekitaldi aipagarrienak

Irailak 1, egubakoitza

- 18:00** Jaien hasiera suziri jaurtiketarekin.
- 18:15** Bizikleten prestaketa eta moztorro desfilea.
- 18:30** Soroluzera irteera bizikletan.
- 20:15** Sakatu elektrotzaranga.
- 21:00** Buruhandiak.
- 22:00** II. Osintxun Musikara! Lehiaketa. Lehiakideak: Red Iron Squad (Gasteiz), Bolbora (Lizarrak) Eta Pomeray (Bilbo). Ondoren, Eskean Kristo taldearen kontzertua! Sari banaketa 02:30 aldera.

Irailak 2, zapatua

- 11:00** Umeendako jolasak.
- 12:00** Kuadrillen arteko jokoak.
- 15:00** Kuadrillen arteko bazkaria frontoian.
- 15:00-18:00** Puzgarriak.
- 18:00** Sukaldaritza lehiaketa.
- 18:00-19:00** Apar festa.
- 19:00** Toka txapelketa.
- 21:30** Herri afaria.
- 00:00** Erromeria Honat taldearekin.

Irailak 3, domeka

- 10:30** Diana Bergarako txistularien eskutik.
- 12:00** Meza nagusia Osintxuko elizan.
- 12:30** Bergarako Zezenak.
- 12:45** Karitate banaketa.
- 17:00** Pilota partiduak Osintxuko *Martires Jai-alai* pilotalekuan.
- 19:00** Pintxo-pote berezia.
- 19:00/20:00** Saria Osintxuko urrezko kofradeari.
- 22:00** Jaietako amaiera emateko suziri jaurtiketa.

San Emeteri eta San Matei jaiak ospatuko dituzte bihar Uberan

Egun osorako egitaraua izango dute bihar Uberan: kalejira Ubera kaletik San Mateira (10:30), meza San Matei ermitan (11:00), txistorra, ardoa, bola jokoa eta umeendako jolasak (11:45), auzo bazkaria Jaolatzak elkartearen (14:00) –gero, kantuan egingo dute– eta kalejira San Mateitik Ubera kalera. Berakatz-zopa jateko aukera ere egongo da afaritarako.

Udako merkealdien azoka egingo du Bedelkarrek bihar

Biharko, irailak 2, udako merkealdien azoka antolatu du Bedelkar merkatari elkarteak. Seminarioko karpan jarriko dituzte udako arropen eta osagarrien aukak, eta, aurreratu dutenez, taberna eta magia ikuskizuna ere izango dira. Bergarrek goizez bakarrik bisitatu ahal izango dute azoka berezia, 10:00etatik 14:00etara.

Bergarako Zezenak-en beste balentria bat Chivan

"Sokamuturraren katedrala" den Valentziako Chiva herrian sari bikoitza lortu du, bigarren urtez jarraian, Bergarako Zezenak ganadutegiak: "Gauzak mimoz egiten direnean, emaitzak datoz; gure atzean dagoen jende guztiarendako ere bada saria"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Zezenak ganadutegiak berriro egin du. "Sokamuturraren katedrala" den Valentziako Chiva herritik bigarren jarraian sari bikoitzarekin bueltatu dira Iñigo Almortza eta konpainia, zezen onenaren –aurten *Sardo* zezena izan da saritua– eta goizeko lasterketa onenaren sariarekin. "Oso maila handia dago; Espainiako zortzi ganadutegi onenak aukeratu dituzte. Gure zezenak ikusgarri aritu dira, eta aurten ere irabazi izanak berresten du ez dela zorte kontua izan, ondo egindako lanaren fruitu dela", azaldu du Almortzak. Goizean lau ganadutegi irtetzen dira eta arratsaldean, beste lau.



Bergarako Zezenak-ekoak Chivan; ondoan, *Sindikalista* zezena. BERGARAKO ZEZENAK

Itxura eta, bereziki, hauspoa

Abuztuaren 19a izan zen lasterketaren egun handia: "Zezenak ukuiluetan deskargatzeko 04:30ean heldu ginenerako jendetza zegoen, eta inongo mozkorrik ez. Han zeudenak zezenengatik zeuden, eta euren artean euskaldun asko. Lau egunetan milaka lagun elkartzen dira Chivan zezenen lasterketez gozatzeko". Soka zezenaren lepotik lotu beharrean, adarretatik lotzen dute Chivan, eta, Almortzak azaldu duenez, zezenek bi kilometro eta erdi inguruko lasterketak egiten di-

tuzte: "Euskal Herrian ezagutzen ditugun sokamuturretan zezen bakoitzak 15 edo 20 minutuko saioak egiten ditu eta Chivan zezen bakoitza ordubete inguru aritzen da. Urte asko daramate lasterketa horiek antolatzen eta zezena errespetuz tratatzen". Etzex etxe lotzen dituzte –bertakoendako ohorea da zezena norberaren etxean lotzea– eta gehien gustatzen zaiena da gelditi egotetik abiada bizian irtetea: "Gure zezenak badu esplosibitate hori eta uste dugu horrek eman diola saria". Horrez gain, zezenaren

itxura ere hartzen dute kontuan; adar onak izatea, elegantea, presentzia eta ondo zainduta dagoela erakustea. Eta, gainera, hauspo handikoa izatea: "Hor dago gure sekretua. Bi edo hiru hilabete lehenago zezenak entrenatu egiten ditugu, egun handirako prest egon daitezen". Nekez ahazten den esperientzia da Chivakoa: "Oso gustura daude gurekin eta gu eurekin, ate asko ireki dizkigute. Gauzak mimoz egiten direnean emaitzak datoz; gure atzean dagoen jende guztiarendako ere bada saria".



AMAIA TXINTXURRETA

Azken ukituak Komenio kaleari

Komenio kaleko lanen helburua izan da lur azpiko zerbitzu guztiak berritzea, telekomunikazio azpiegitura berria ezartzea eta gainazaleko materiala aldatzea. Azken asfaltatze lanekin dihardute egunotan, eta, eguraldiak ahalbidetuz gero, martitzenean irekiko da bidearen alde bat, autoendako. Kamioiek hamar bat egun itxaron beharko dute. Lanek bi hilabete iraun dute.

San Lorentzoko jaiak bihar eta San Juan auzoko feria domekan

Bihar, zapatua, jaiak ospatuko dituzte San Lorentzon. Egun osorako egitaraua prestatu dute: ogi-mamiak eta igel-toka txapelketa eta trikitalariek alaitutako poteoa Lainon (12:00); kukañak, txokolate-jana eta buruhandiak Maduran (16:00); kontzertua Lainon (19:00), meza San Lorentzoko ermitan (20:00) eta sardina-jana arkupeetan (21:00). Amaitzeko, dantzaldia egingo dute.

Bestalde, domekan, azoka eta VII. ortu lehiaketan parte hartuko duten ortuko produktuen dastatzea izango dute San Juan auzoan. Azoka (11:30), Arragoa taldearen kontzertua (12:00) eta dastatzea (12:30) izango dituzte, besteak beste.

Orain arteko "urterik eskasena" izan dute Elurra txakurtegian

Elurra txakurtegian animalia ugari zaintzen dituzte udan, eta, bereziki, abuztuan. Txakurrak dira gehienak, baina katuak eta txoriak ere zaintzen dituzte, horien jabeak oporretan dauden bitartean. "25 urtean, aurtengoa izan da urterik eskasena. Bestetan, ehun txakur inguru izan ohi ditut, eta, oraingoan, berrogeita hamar inguru izango ziren", adierazi du Elurrako arduradun Axen Garitanok. Opor garaian animalien hotel moduan funtzionatzeaz gain, utzitako edo kalean galdutako txakurrak eta katuak ere zaintzen ditu Garitanok, udaltzainek eroandakoak, eta abar. Elurra urte osoan zehar dago zabalik.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Iazko Palmerakuak bizikleta martxa. IMANOL SORIANO

Bidezidorretan barrena 'palmerakuen' eskutik

Mendi bizikleta taldeak bosgarrenez antolatu du MTB martxa, eta nobedade ugari izango ditu aurtengo edizioak. Esaterako, Trekutz inguruko parajeetatik igaroko dira txirrindulariak. Bi ibilbide ezberdinekin, txirrindulari guztiei egokitutako proba da

Maite Txintxurreta BERGARA

Beste urte batez, Bergarako Palmerakuak mendi bizikleta taldeak martxa bat antolatu du irailaren 10erako Bergara inguruko mendi eta bidezidorretan zehar. Hain zuzen, Palmerakuak martxaren bosgarren edizioa izango da. Goizeko bederatzietan abiatuko dira txirrindulariak Agorrosin kirolgunetik.

Aurten, nobedade modura, kamisetak jasoko dituzte parte hartzaile guztiek. "Honetaz gain, parte hartzaileen artean, martxaren ostean, bizikletarekin lotutako materiala zozketatuko dugu eta luntx eder bat ere izango da", zehaztu du Palmerakuak taldeko Ander Agirrek.

Martxaren ezaugarriak

Aurtengo edizioan, bi ibilbide izango dira: bata, luzea, 40 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboarekin; bestea, laburra, 26 kilometro eta 900 metroko desnibel positiboarekin.

"Aurreko urtean ez bezala, Trekutz inguruko paraje eta bidezidor zoragarriak ezagutzeko aukera izango dute parte hartzaileek", azaldu du Agirrek.

Hortaz, zailtasun aldetik, "denetarikoa aukera" izango da. "Alde batetik, aldapan gora eta behe-rra trebeak direnentzako, bidezidor aproposak izango dira. Bestalde, gaztetxo zein hasi berrientzat ere, beraien mailako ibilbidea prestatu dugu. Urtero ibilbide ezberdina izateak jendearen parte-hartzea sustatzen duela uste dugu", dio Agirrek.

Hala, antolaketa taldeak maila guztietako jendea animatu nahi izan du martxan parte hartzera.

Izen-ematea

Palmerakuak martxan parte hartu nahi dutenek irailaren 8ra arte daukate *Kirolprobak* webgunean izena emateko aukera. Horrez gain, baina, egunean bertan ere eman daiteke izena, irteera puntuan. Aurrez izena emanez gero, federatuek 12 euro ordaindu behar dute eta federatuta ez daudenek, berriz, 15. Egunean bertan izena emanda, inskripzioa 20 euro ordaindu behar da. Hala, antolatzaileek eskatu dute ahal den neurrian jendea aurrez apuntatu dadila, prestaketak erraztu ahal izateko.

ariznoa elkarte

2017-2018 KURTZO HASIERA

Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):

irailaren 4an, 18:00etan, Labegarietan

Aurre-benjaminak I (2012an jaioak):

irailaren 19an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailetakoak):

irailaren 19an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Benjaminak (3. eta 4. mailetakoak):

irailaren 19an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Antzuolako taldea:

irailaren 20an, 14:30ean, frontoian



Iraila osoan zehar ATE IREKIAK Ipintzan.

Etor zaitetz gu ezagutzera!

Harremanetarako: ariznoa_ge@hotmail.com

Puntako musika izango da irailean Bergaran

Kultura Kalera Bergaran egitasmoaren baitan, kontzertu mordoa antolatu ditu Bergarako Udalak irailerako; herriko taldeek protagonismo berezia izango dute, baina kanpotik datozen musikariek ere izango dute tokia domekan hasiko den ekimenean

M.A. /E.A. BERGARA

Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak *Kultura Kalera Bergaran* programaren beste edizio bat antolatu du. Badira urte batzuk Udalak herriko taldeen lana ikusarazteko apustua egin zuela, eta hor kokatzen dira *Kultura Kalera Bergaran* ekimenaren barruan antolatu dituzten he-

rriko taldeen kontzertuak. Iaz, bestetik, bide berri bati ere ekin zioten; alegia, musika klasikoa- ren alorreko eskaintzak herriko gune desberdinetara eroateari. Alor horretan, Oñatiko Ganbara Abesbatza, Kamerata Oiasso, Duphonik bikotea eta Ane Artechete izango dira protagonistak irailean zehar.

Bestetik, herriko musikariek eta kultur eragileek ere lekua izango dute irailean zehar garatuko den programan.

Hala, Maite Agirre Kultura zinegotziak eta Edurne Kotra Kultura teknikariak musikaz gozatzeko eta emanaldietara gerturatzeko dei egin nahi izan diete bergarar guztiei.



Olatz Salbador da gaztetxean joko duteneko musikari bat. GOIENA

Goi mailako gonbidatuekin dator Egubakoitzak Kartzelan

Irailaren 8an hasiko da musika akustikoan oinarritzen den ekimenaren seigarren edizioa, antolatzaile berriekin

E.A. BERGARA

Bi urteko isiltasunaren ostean, bueltan da Bergarako gaztetxeak antolatzen duen Egubakoitzak Kartzelan egitasmoa. Seigarren edizioa izango da aurtengoa. "Herriko bost gazte elkartu gara, bere garaian hain arrakastatsua izan zen egitasmo honi jarraipena emateko. Gutako inork ez du parte hartu aurreko edizioetan, ez antolatzen ezta ikusle moduan ere, baina ideia oso polita iruditu zitzaigun eta aurtentz berrituz antolatzea erabaki dugu", azaldu dute antolatzaileek.

Egitasmoaren orain arteko ezaugarriak eta antolatzaile berrien ideiak uztartuko ditu Egubakoitzak Kartzelan egitasmoaren seigarren edizio honek. "Musika akustikoak protagonista izaten jarraituko du. Kontzertuak gaztetxeako kanpoko patioan izango dira. Eserita egoteko mahaia ipiniko ditugu eta pa-

tio osoa dekoratuko dugu, giro lasai eta goxoa izan dadin nagusi", adierazi dute.

Musika ardatz

Esan bezala, musika izango da nagusi, Euskal Herri mailan ezagunak diren puntako musikariek eskutik. Berrikuntza moduan, aurtentz bi antzerki saio izango ditugu, Bertxortan eta Txabela Bragasen eskutik.

Hala, irailaren 8an, Bertxortan, Iker Lauroba eta Itsasargiak izango dira; irailaren 22an, Txabela Bragas eta Kokein Akustikoa; irailaren 29an, Olatz Salbador eta Erraiak; azkenik, urriaren 6an, Jon Basaguren, Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxea. 22:00etan izango dira emanaldiak eta sarrerak hiru eurotan egongo dira salgai.

Adin guztietako herritarrentzat proposamen erakargarria izatea espero du antolakuntza taldeak.

'Kultura Kalera Bergaran', egitaraua

Irailak 3, domeka

• **10:30** Bergarako Txistularien Kalejira, Osintxun.

Irailak 10, domeka

• **19:00** Oñatiko Ganbara Abesbatza, Mariaren Lagundia elizan.

Irailak 16, zapatua

• **12:30** Bergarako Musika Bandaren kontzertua, San Martin plazan.

Irailak 17, domeka

• **19:00** Kamerata Oiasoren kontzertua, Mariaren Lagundia elizan.

Irailak 22, egubakoitza

• **19:00** Ane Artecheren harpa eta txalaparta kontzertua, Errekalde parkean.

Irailak 29, egubakoitza

• **19:00** Duphonik bikotearen piano eta bonbardino kontzertua, Arrizuriaga parkean.

Irailak 30, zapatua

• **11:30** Europako Ondareari buruzko jardunaldien barruan, Bergarako Lorategi Historikoen bisita gidatua –euskaraz–.
• **18:00** Kalejira Batukada taldearekin.
• **19:00** Aritzeta Abesbatza, Bergarako Musika Eskolako Abesbatza, Bergarako Orfeoia, Gabero Orfeoi Gaztea, Sutargi eta San Joxeperen kontzertua San Martin plazan –euria bada,

Santa Marinaran–. Ondoren, kantu jira San Martin plazatik abiatuta.

• **21:00** Kopla Barik, Simon Arrietan.

Urriak 1, domeka


• **11:00** Bisita gidatua herrian.
• **11:30** Txistularien kalejira.
• **12:00** Alai Taldea.
• **12:00-13:30** Tailerrak San Martin plazan: Taila elkarte, Zeramika elkarte, Bolillos taldea, BET erraldoi konpartsa, Arizondo Argazki elkarte, Jardun Euskara elkarte, Beart, Musika Eskola, Ehungintza Tailerra.
• **13:30** BTB, San Martin plazan.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



BERGARAKO SHOTOKAN KARATE - DO KE KRAV MAGA - BERGARA DEFENTSA PERTSONALA KLUB BAT BAINO GEHIAGO



SHOTOKAN KARATE ESKOLAK IRAILAREN 8AN HASIKO DIRA

ASTELEHEN, ASTEAZKEN ETA OSTIRALETAN.

UMEAK: 1. TXANDA: 17:30etik 18:30era

2. TXANDA: 18:30etik 19:30era

NAGUSIAK: 19:30etik 20:45era

Harremanetarako, deitu 615 79 90 78 telefonora, bergarako.shotokan@gmail.com
helbidera idatzi edo etor zaitez Bergarako Ipintza Institutuko DBH eraikineko gimnasioa
entrenamendu orduetan.



BERGARAKO KRAV MAGA ESKOLA

ENTRENAMENDUAK IRAILAREN 7AN HASIKO DIRA
BERGARAKO INSTITUTUKO DBH ERAIKINEKO GIMNASIOAN
ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN

18:00-19:00 (gazteentzat - zortzi pertsona, gutxienez)

19:00-20:30 (guztiontzat)

Harremanetarako, deitu 615 79 90 78 telefonora, bergarako.shotokan@gmail.com
helbidera idatzi edo zatoz Bergarako Ipintza Institutuko DBH eraikineko gimnasioa
entrenamendu orduetan.





Kataluniako talde batek atzo, eguena, ezagutu zuen Oñati. O.E.

Jende gehiago ibili da aurtengo udako bisitetan

Euskal Herritarrek ez ezik, Valentziatik, Andaluziatik, Kataluniatik, Frantziatik, Italiatik eta Herbehereetatik etorritako turistak izan dira, gehienbat, abuztuan Oñatin. Iazko kopurua gainditu egin da. Ostatuetakoa logelak eta autokarabana gunea beteta egon dira

Oihana Elortza OÑATI

Egunean bi bisita gidatu eskaini ditu Oñatiko Turismo Bulegoak abuztuan eta ia denetan izan dute jendea. "Iaz baino jende gehiagok hartu du parte aurtengo bisita gidatuetan", dio bulegoko langile Edurne Urteagak.

Arrikruzen ere pozik daude. "Hilabete ona izan da, bai. Kataluniarrak, adibidez, asko etorri dira. Bisitari asko, gainera, Euskal Herrian dituzten lagun euskaldunekin etorri dira", adierazi du Aitor Montesek.

Mendizaleak

Herriko ostatuek ere baieztatu dute turista asko ibili direla. Arregi nekazaritza etxea, esaterako, beteta egon da ia hilabete osoan. Ongin ere okupatuta izan dituzte gelak, horietako batzuk zabalik egon diren enpresetara etorritako langileekin bete dituzten arren. Sindikan ere ondo egin dute lan, baita Goiko Bentan eta Zumeltzegi dorrean ere. "Seme-alaba nerabeak dituzten

familiak eta bikoteak izan ditugu, gehienbat. Hemen ostatu hartu eta Euskal Herria ezagutzeko egun-pasako irteerak egin dituzte. Iluntzean, baina, herri-ira jaitsi eta kalean afaltzeko asmoz egoten ziren, baina ez zegoela non afaldu eta hotelera igotzen ziren berriro. Ostalaritza zerbitzuak itxita zeuden kexa bezero askok komentatu digute", azaldu du Edurne Gorostiagak.

Goiko Bentako Ana Maiztegi, berriz, harrituta gelditu da aurtengo izan dituzten bezeroetako asko mendiko planarekin etorri direlako: "Guk ere igarri dugu aurtengo egonaldia luzeagoak izan direla. Familiak izan ditugu, baina bikote gazteak ere asko, eta mendira joateko asmoarekin

AIZKORRI ARATZEN BERRI ZUTEN TURISTA ASKOK, ETA MENDIRA JOATEKO PLANEKIN ETORRI DIRA

etorri dira gehienak. Aizkorri Aratz parkearen berri ere bazuten askok eta inguruko mendietara bat baino gehiago joan dira. Urbiara joan barik, adibidez, inor ez da bueltatu etxera". Bestalde, Gaztaren Ibilbidea eta Loiolako Inaziotar Bidea egin duten lagun askok hartu dute ostatu Goiko Bentan aurtengo abuztuan. "Bisitari batzuk Arantzazuko aterpetxera bideratu ditugu, herrian tokirik ez zegoelako lotarako", dio Jaione Elortza turismo gidariak.

Italiarrak

Unibertsitatea eta San Migel parrokia bisitatzeaz gain, Txokolatexia ere batek baino gehiagok zapaldu du. "Andaluziarrak etorri dira gurera, batez ere", esan du Oihana Diazek. "Aurtengo asko etorri dira Italiatik. Bilbotik eta Gasteiztik zuzeneko hegaldiak egon dira Milanera eta Veneziaara, eta, agian, hori izan daiteke italiarren gorakada horren arrazoia", azaldu du Elortzak.



NIRE USTEZ

JOSE LUIS MADINAGOITIA

Nola hobetu euskararen erabilera?

Ezagutu ditugun datuengatik, Euskal Herrian %36,4k badaki ongi euskaraz. Duela 30 urte %22 ziren; horrela jarraitzen badugu, 20 urte barru %70 euskalduna izango da. Baina kaleko erabilera %12,6 da, duela hamar urte baino puntu bat gutxiago. Adin tarte guztietan ari da erabilera jaisten, gainera. Beste datu kezkarri bat da lehen aldiz Gipuzkoan ere jaitsi egin dela. Gipuzkoak zuen erabilera onena 2016an, alde nabarmenarekin (%31,1), baina 2011tik %1,5 jaitsi da; Oñatin %65 inguruan dago kale erabilera.

Ezagutza gora eta erabilera behera? Lotsatu egiten gara euskara erabiltzen? Oporretan Jacan eta Donostian izan naiz eta kalean ia euskara gehiago entzuten zen Jacan, Donostian baino, eta Donostian euskara dakitenean kopurua handia da. Zer egin behar dugu? Nire proposamena hauxe litzateke: bakoitzak bere buruari galdetzea zer egin dezakeen bere inguruan erabilera hobetzeko eta erantzuna aplikatzen hastea.

Ez ahaztu Joxean Arzek esan zuena: "Hizkuntza bat ez da galduko ez dakitenean ikasten ez dutelako, dakitenean erabiltzen ez dutelako baizik".

Ohiko ordutegiak dituzte udal zerbitzuak gaurtik

Uztaila eta abuztua pasatuta, ohiko ordutegia izango dute aurrerantzean udal zerbitzuak.

Zubikoa kiroldegian, gaur, egubakoitza, sartuko da indarrean neguko ordutegia. Hala, astelehenean egubakoitzera 07:30etik 21:30era zabalduko dute eta zapatuetan 09:00etan zabaldu eta 19:30ean itxi, eguerdian atse-

den hartuta; domeka eta jaiegunetan goizez bakarrik izango da zabalik. Udaletxeko ordutegia ere eten bakoa da gaurtik, aste barruan, 09:00etatik 21:00etara; zapatuetan 13:00ak arte izango da eta jaiegunetan, itxita.

Gaztelekuko zerbitzuak ere martxan daude eta sotoa, zabalik. Baita kultura etxeko bulegoak ere. Liburutegiak astelehenean bueltatuko dira ohiko ordutegira: helduena goiz eta arratsalde zabalik eta txikiena, arratsalde.

Emakumeek gerra nola bizi izan zuten erakutsiko dute

Gerra eta frankismo garaia emakumeen ikuspegitik kontatzen duen erakusketa zabalduko dute astelehenean, irailak 4, kultura etxean. 1936tik aurrera frankismoaren garaiko testuinguru historikoan emakumeek izan zuten zeregin aktiboa jasotzen da emakumeen aurpegiekin. *Emeek emana* du izena erakusketak eta garai hartako emakumeen bizipenak jasotzen ditu.

Irailaren 22ra arte egongo da zabalik. Hilaren 19an, *Emakume oñatiarrak gerra garaian* hitzaldia egingo dute kultura etxean. Bisita gidatuak ere egingo dituzte eta 15ean, *Ama, nora goaz?* dokumentala emango dute.

Rojo Telon taldea domekan, Kalean egitarauko azkena

Familiendako ikuskizuna eskainiko du Rojo Telon taldeak domekan. Hiru emakume osatzen dute Rojo Telon eta zirkua, poesia, keinu hizkuntza eta antzerkia uztartzen dituzte euren lanetan. Familiei zuzendutakoak izaten dira eta domekan Oñatin egingo dutena ere horrelakoa izango da. Erremontari plazan hasiko da saioa, 19:00etan.

Udako kultur egitarauko azken emanaldia izango da Bilbon egoitza duen talde horrek egingo duena. Ekainaren 21ean izan zen lehena eta Foruen plazan, San Lorentzoko ermita parean, Lazarraga lorategian eta Atzeko kalean izan dira emanaldiak.



Aurreko bietan bezala, Oñatiko inguruaz gozatzeko aukera egongo da aurtengo mendi martxan. GOIENA

Bi ibilbide ditu aurtengo mendi martxak ere

Irailaren 16an egingo da eta Foruen plazatik eta Kortakogainerainoko ibilbidea berdina izango da parte-hartzaile guztiendako. 13:30ean Tiago omenduko dute. Plazako anoa puntuaz kilometroak egitasmoko lantalde bat arduratuko da

Oihana Elortza OÑATI

Hirugarrenez antolatu dute Oñatiko mendi martxa. Irailaren 16an, zapatua, egingo da aurtengo, eta, aurreko edizioetan bezala, honetan ere bi ibilbide ezberdin egongo dira aukeran.

Ibilbide biak Foruen plazatik abiatuko dira, 07:30ean, eta, Garagartzatik, Lamiategitik, Olaretik, Jaturabetik eta Arrikruztetik pasa ostean, Kortakogainera iritsiko dira. Luzea aukeratu dutenak Arendui aldera joango dira handik, eta gero, Bellotzara, Iturrigorrira, Urbiera, Mallara, Biozkornera, San Jurgira, Asentziora eta San Martinera, Foruen plazara heldu aurretik. Guztira 32 kilometroko ibilbidea egingo dute horiek. Ibilbide motza aukeratu dutenak, berriz, Kortakogaineratik Gesaltzara joango dira eta handik Arantzazuko Errotara, Zapiarbera, Arantzazura, Durura, Mallara, Biozkornera, San Jurgira, Asentziora, San Martinera eta berriz plazara; 23 kilometro.

Lau anoa puntu

Ibilbide biak ondo markatuta egongo dira eta ez da galtzeko arriskurik egongo. Anoa puntuak ere egongo dira; lau guztira. "Arantzazuko auzo etxean eta Mallan jarriko ditugun puntuetan jatekoa eta edatekoa egongo da parte-hartzaileendako. Ibilbide luzea aukeratzaren dute-nendako Iturrigorrin ere egongo da postu bat, baina han edatekoa bakarrik eskainiko zaie. Laugarren puntua izango da Foruen plazan bertan egoten den txosna", azaldu du antolatze lanetan diharduen Josu Lizarralde.

Plazako postuaren ardura herriko talde edo eragile batek hartzen du eta parte-hartzaileek

ALOÑA TABERNAN EDO INTERNET BIDEZ EMAN DAITEKE IZENA IRAILAREN 11 AURRETIK

ordaintzen duten kopuruaren euro bat talde horrendako izaten da. Joan den urtean, esaterako, Hotz Oñati taldeak hartu zuen ardura. Aurtengo, irailaren 24an Oñatin egingo den kilometroak festa antolatzen ari den lantalde bat arituko da txosna horretan lanean.

Aurtengo mendi martxan, bestalde, maiatzean hil zen Tiago Gonçalves oñatiarra omenduko dute. "Aurreko edizioetan laguntzaile izan genuen eta egingo lan hori eskertu gura diogu. Oroigarri bat emango diogu haren familiari", azaldu du Lizarralde. Ekitaldia Foruen plazan izango da, 13:30ean.

Zabalik

Mendi martxan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago irailaren 11ra arte. Bi bide daude egiteko: Oñatiko Aloña tabernan eta www.kirolprobak.com helbidean. Prezioak dira: hamabi euro federatuak eta hamalau euro federatu gabeak.



Neska bat bizikletan San Lorentzoko autobus geltoki parean. O.E.

Herriko eraztun berdearen bidegorri sarea eratuta dago

San Lorenzo eta Ugarkalde auzoak lotzen dituen tartea udan bukatu dute eta dagoeneko erabilgarri dago

O.E. OÑATI

Aparkaleku batzuk kendu eta zuhaitz batzuk bota dituzte bidegorriaren azken zatia egiteko baina dagoeneko eraztun berdea bukatuta dago. "San Lorenzo eta Ugarkalde lotzen dituen bide horren zati bat ez da gorriz margotu. Oinezkoek eta bizikleta gainean doazenez elkarbizitza landu beharko dute gune horretan. Bestalde, autobus parean dagoen argi koadroa kentzea falta da. Oñargik egingo du hori", azaldu du Irati Etxeberriak, Hirigintza zinegotziak.

Txorrotak

Eltzia parean jarritako ur txorrotak erabilgarri daude abuztuaren 4a ezkerro. Egurrezko mahaiak ere badaude, baina belarra ez da oraindik nahiko adina hazi. 11:00etatik 21:00etara da egun ur txorrotek duten ordutegia, baina egutegia finkatu barik dago. Parkean bertan jarri dituzten gimnasia egiteko aparailuek ere harrera ona izan dute. Bestalde, skate parkea handitu egin dute udan. Orain, ping-pongareta eta xakean jokatzeko mahai bana jarriko dituzte.

Bidebarrietako jaiak Errementari plazan ospatuko dituzte


Gaurtik domekara bitartean egingo dituzte Bidebarrieta kaleko jaiak, eta, auzoko jaiak izate aldera, Errementari plazan ospatuko dituzte. Han jarriko dituzte oholtza eta txosna, eta ez Foruen plazako frontoian, joan den urtean moduan. "Bizilagun batzuen kezak izango dira, agian, baina auzoko jaiak izateko ahalegina egin gura izan da", dio Bidebarrietan bizi den herritar batek.

Zuzeneko musika emanaldiak, mahai-futbol txapelketa, garga dastatzea, txorimalo eta erraldoiak, Oñatz dantza taldekoen dantza ikuskizuna, mus txapelketa eta auzo bazkaria egingo dira, besteak beste.

Arantzazurako neurri bereziak egon daitezke hilaren 9an

Irailaren 9an ospatuko da Arantzazuko Amaren Eguna, eta, aurreko urteetan sor izan diren arazoak ekiditeko, baliteke zirkulazioko neurri bereziak hartu behar izatea. Adibidez, Arantzazura bakarrik autobusez igo ahal izatea. Neurri hori hartuz gero, ohikoak baino geldialdi gehiago izango ditu Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzuak eta ordutegia ere aldatu daiteke, jende pilaketaren aurrean maiztasuna izango delako lehenetsuna.

Bestalde, irailaren 30ean, Herri Egunean, autobus zerbitzu hori martxan egongo da, hainbatek aurreko urteetan egindako proposamenari kasu egingez.



13. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

egin klik!

Irailaren 17ra arte bidal ditzakezu zure argazkiak!



SALTOKA, SALTOKA | Argazkia: Aitziber Oianguren



PUNTUA OSAKAKO KOMIKI-DENDAN | Argazkia: Maite Bolibar Zabala



VIÑALESKO TABAKO-LANDETAN (KUBA) | Argazkia: Aitor Beloki



VENEZIAN BI ESKUAK ETXEARI EUSTEN | Argazkia: Jesus Mari Alonso



ZARAUTZ EURIPEAN | Argazkia: Estitxu Lobato



ARNASA HARTU, HAREA ZAPALDU ETA ITTSASOA SENTITU | Argazkia: Ainhoa Anduaga Cantero



SUANCESKO LOS LOCOS HONDARTZA | Argazkia: Cristina Tejada



HONDARTZAN JOLASTEN | Argazkia: Itsaso Villar

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:






PISAKO DORRE JASOTZAILA | Argazkia: Garbiñe Beltia



ITSASARGIARI BEGIRA | Argazkia: Garbiñe Pastor



URREZKO HARKAITZA, KYAIKTIYO PAGODAREKIN MYANMARREN | Argazkia: Iban Gofij



ZURRIOLAKO INURRI HEGALARIAK | Argazkia: Kepa Mendieta Arregui



PAMELA | Argazkia: Jone Erostarbe



LAMINA GESALTZA AÑANAN | Argazkia: Inma Quintero Otxoa



VALLUNARAJU MENDIKO MORRENAKO KANPALEKUA, ATZEAN RANRAPALCA DUELA | Argazkia: Igor Okina

Sariak

LEHEN SARIA: LENOVO TAB 2 A10-30 tableta

GOIENA SARIA*: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.

* Eraman GOIENA edo 'Puntu' oporretara, eta argazki originalenak, kuriosoan, graziosoan saria izango du. Animatu eta bidali zuen argazkia!

PUBLIKOAREN SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua

PARTE-HARTZE SARIA: Intersport Loramendin erabiltzeko 100 euroko erosketa-txartela.

(Publikoaren Saria aukeratzeko parte hartzen dutenen artean zozketatuko dugu)



Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!



Argazki guztiak foto-blog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



Imanol eta Gartzia, iazko Arrasate Hiria torneoan, lehian. UDAk eraman zuen garaikurra etxera. GOIENA

Liga aurreko azterketak, bihar

FUTBOLA Mailaz igo den Bergara lehiatuko da, Aretxabaletarekin eta Mondrarekin batera, Ohorezko Erregional mailan. Eta liga hasi aurretik azterketak izango dituzte bihar, zapatua, Arrasate Hiria eta Bergara Hiria torneoak egongo dira-eta jokoan

Xabier Urzelai DEBAGOIENA

Ia ordu berean jokatuko dituzte bihar, zapatua, Arrasate eta Bergara Hiria torneoak. 17:00etan hiruko tornea egongo da jokoan Mojategin, eta iazko kontrario berberak gonbidatu dituzte mondragonarrek: Aretxabaleta eta Amaiak Bat. Hor, zaleendako partidu interesgarriena 19:00etan izango da, orduan neurtuko dituzte indarrak Mondrak eta UDAk: "Udako torneo horiek bakoitza non dagoen ikusteko balio izaten dute. Lagunartekoa da, baina UDA eta Amaiak Bat maila oso oneko taldeak dira, eta, etxeko taldea izanda, gure zaleen aurrean hamabost egunean behin Mojategin ikusiko dutenaren aurrerapen bat emateko aukera ere bada", adierazi du, aste barruan, Jorge Davila entrenatzaile arrasatearrak.

Oñatikoak Bergara Hirian

Agorrosinen, berriz (17:30), Bergarak Aloña Mendi hartuko du bihar, zapatua, lagunarteko torneoan. Partidu erakargarria da, bi talde horiek aspaldi ez duten eta elkarren kontra jokatu.

Aurten ligan ere ez dute elkarren kontra indarririk neurtuko, Oñatiko taldea maila bat beherago dagoelako, baina azterketa ona izango da bi taldeendako. 17:30ean izango da norgehiagoka eta partidurako sarrera 3 euro izango

Leintz Arizmendiko neskak batera, lehenengoz

Martitzenean jokatu zuen Leintz Arizmendi talde berriak denboraldiaurreko lehen norgehiagoka. *Titu*-k eta Ezkurrak zuzentzen duten taldeak 0-0 egin zuen Tolosaren kontra. Hurrengo hitzordua irailaren 5ean izango dute, Gasteizko Aurreraren kontra (18:00, Mojategi). Liga, berriz, irailaren 9an hasiko dute, Añõgaren zelaian.



Lagunartekoa hasi aurretik egindako talde argazkia. R.AZKARATE

da. Bergara Kirol Elkarteak, gainera, oharra helarazi du Goienara: "Lehen taldeko atezainen entrenatzaile Jon Sotori mahonero guztion besarkada handiena eta animoak bidali nahi dizkiogu izandako lan istripuaren ostean. Ziur gaude dena ondo joango dela".

Liga hasiera, irailaren 9an

Mondrak, Bergarak eta UDAk datorren asteburuan hasiko dute liga, eta, hain zuzen, hirurek etxean jokatuko dute lehenengo norgehiagoka. Aretxabaletak Hernaniren bisita izango du, Añõgarena Mondrak eta Urolarena Bergarak.

Helburuei dagokienez, Mondrak eta UDAk iaz erakutsi zuten aurrealdean egoteko moduko taldeak direla. Arrasatekoek indartsu hasi zuten liga, nahiz eta amaieran behera egin. Kontrara, UDARI gehiago kostatu zitzaion erritmoa hartzea, baina motz geratu zitzaion liga -hirugarren izan ziren-. Bi taldeetako entrenatzaileek aurrean egoteko intentzioa erakutsi dute, jakinda, egunerokoak erakutsiko duela non egotea merezi duten. Bergara iritsi berriak, berriz, lehenbailehen hartu gura dio neurria mailari.

Preferentean, saltsa polita

Aloña Mendik maila galdu izanak eta Antzuolak kategoriaz igo izanak saltsa handia emango diote Erregional Preferenteari, Debagoieneko bost talde batuko dira-eta liga horretan: Aloña Mendi, Antzuola, eta Mondraren, Bergararen eta Aretxabaletaren bigarren taldeak. Irailaren 17ko asteburuan hasiko dute liga, eta hurrengo astebururako jada lehenengo derbia izango da: Antzuola-Aloña Mendi.



JORGE DAVILA

MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Urte gogorra izango da, baina ilusioz gaude aurrealdekoen multzoan taldea finkatzeko. Beste helburuetako bat zaleak Mojategira erakartzea izango da, eta horretarako garaipenak behar dira. Gero, urteak esango du non egotea merezi dugun, baina ilusio horrekin gaude".



IÑIGO V. DE MENDIZABAL

UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Helburu nagusia da taldea urte osoan zehar goiko postuetan mantentzea, baina ez da erraza izango, besteak beste, Hirugarren Mailatik jaitsi diren taldeak daudelako hor. Indartsu ibiliko dira Tolosa, Pasaia, Real Union, Mutriku edota Mondra moduko taldeak. Pausoz pauso joango gara".



MIKEL JUARISTI

BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Bi urte egin ditugu beheko kategorian, baina, berez, Bergarari Ohorezko Erregionalen egotea dagokio. Helburua iazko dinamikari jarraipena ematea izango da, partidu guztietan lehiakorrik izatea; gero, lehiaketak jarriko gaitu gure tokian".

"Urduri ez, baina luzea egin zait itxaronaldia"

MIKEL GONZALEZ DE MARTIN ZARAGOZAKO JOKALARIA

FUTBOLA Mikel Gonzalez de Martinek Zaragozan jokatu du datozen hiru denboraldietan; fitxaketa merkatua itxi bezperan eman zuten aditzera albistea

Xabier Urzelai ARRASATE

Realeko lehenengo taldean hamaika urte egin ostean, Mikel Gonzalez de Martinek hiru urterako kontratua sinatu du Zaragozarekin. Arrasatekoak (31 urte) aitortu du itxaronaldia luzea egin zaiola, baina ez dela urduri egon, mahai gainean hainbat aukera zituelako. Goienak Zaragozara bidean harra-patu du kapitain ohia, osasun azterketara bidean.

Zer moduz zaude?

Pozik nago. Egia esan, uste baino gehiago luzatu da prozesua, uste nuen lehenago aurkituko nuela taldea, baina, azkenean, luzatu egin da, bai.

Hiru urterako sinatu duzu Zaragozarekin.

Nire lehentasuna Lehenengo Mailan jarraitzea zen, baina gauzak ez dira beti norberak gura duen moduan izaten, eta Zaragozak hasieratik erakutsi du interes handia; alde horretatik, oso baloratuta sentitu naiz. Erabakia hartzeko orduan hainbat gauza izan ditut kontutan, baina egia da iaz ez nintzela berdegunean protagonista izan, eta Zaragozan hori berreskuratzeko aukera izango dut.

Denboraldi-aurre ezohikoa izan da zuretzat, bakarrik ibili zara entrenatzen.

Bai; imajinatzen dut Zaragozan denboraldi-aurre motz bat egingo dudala, baina, sasoiari eusteko, nire kabuz ibili naiz entrenatzen. Alde horretatik, eskerrak eman gura dizkiot Mondrari, Mojategiko instalazioak erabili ahal izan ditudalako, eta baita ere ondoan izan ditudan lagunei, hobeto entrenatzen lagundu didate eta.

Ezagutzen duzun kategoria da Bigarren Maila.

Bai, alde horretatik ez dut uste sorpresa handirik izango dudarik, ea hilabete barru ez dizudan bestelakorik esaten. Zaragozak, berriz, nahiz eta Bigarren Mailan



Mikel Gonzalez de Martin, Anoetan. IÑIGO JIMENEZ

"ALDAKETA HANDIAK EGON DIRA ZARAGOZAN, HARTUKO DIOGU NEURRIA LIGA TXAPELKETARI"

lan jokatu, beti izan du Lehenengo Mailara bueltatzea helburu. Klub handia da, zale eta bazkide askorekin, eta ea helburu horretan lagun dezakegun. Orain momentuan, taldekideak ezagutzeko gogoz nago, kluba barrutik ezagutzeko gogoz, eta lanean hasteko gogoz.

Sare sozialetan, orain artean, Zaragozako zaleek pozik hartu dute albistea; jendeak anonimotasunetik edozer idazteko duen joera ikusita, ez da gutxi.

Bueno, dagoeneko badakigu gauza horiek zelan funtzionatzen duten. [Barre] Eta, egia esatearren, saiatzen naiz halakoetatik alde batera mantentzen, ez diet kasu handirik egiten. Etorriko dira zaleen epaiketak, jokatzeko hasten garen momentuan, denboraldi amaieran... Baina normala da, futbolaren parte da hori ere.

Ez zara Zaragozan egongo den euskal jokalaria bakarra izango; bertan daude Javi Ros, Gaizka Toquero...

Bai, eta erabakia hartu aurretik eurekin izan naiz harremanetan. Hiriaren gainean berba egin didate, klubaren gainean, entrenatzailea... Erabakia hartzeko orduan halakoak ere lagungarri izaten dira.

Dena dela, Zaragozak ez du liga txapelketa gura moduan hasi.

Ez, bi partidutan puntu bakarra batu dute, eta ez da hasteko modu onena. Baina ondo dakigu Bigarren Maila ze luzea den, eta, dakidanez, talde oso gaztea da, entrenatzaile berriarekin, eta jokalaria asko berriak dira Zaragozan. Horrek egokitzapen fasea behar du, eta joango gara neurria hartzen txapelketari.

Ez zara etxetik oso urrun joan. Bi ordu eta erdi behar dira autoz Zaragozara iristeko.

Denok gura izaten dugu etxeok gertu izan, eta hori ere baloratu dugu erabakia hartzeko orduan, baina ez diogu aparteko lehentasuna eman. Etxeko laurok etorriko gara Zaragozara bizi izatera, eta ea hiri berri honetara ondo moldatzen garen, hori da espero dudana.



Ezkerretik, Mikel Basterra, Josu Andres, Diego Lopez eta Simon Mancebo. GOIENA

Lau jokalaria berrirekin hasi ditu MUK denboraldi-aurreko lanak

SASKIBALOA Etorritako jokalaria guztiak gasteiztarrak dira, Baskoniaren harrobikoak; gehiago espero dituzte

X.U ARRASATE

Urriaren 7ko eta 8ko asteburuan hasiko du Mondragon Unibertsitateak EBAn egingo duen denboraldia. Urte berezia dute aurretik, klubak, besteak beste, 50 urte beteko dituelako, eta kantxan talde lehiakorrarekin ospatu gura dute urteurrena.

Hala, Josu Larreategiren taldeak 40 egun inguru ditu denboraldi-aurre txukuna egiteko, eta eguaztenean eman zuten lehenengo pausoa. Jokalaria berriei ongietorria ematearekin batera lanean hasi ziren denak, eta jokalaria berriek hasierako

minututik ikusi ahal izan zuten datozen asteotan gogotik botako dutela izerdia, lan-saio fisikoa egin zuten eta.

Lau jokalaria, oraingoz

Etorri diren lau jokalaria gasteiztarrak dira. Josu Andres (20 urte) Araberrin egon zen iaz, Mikel Basterrak (19 urte) Tolosan jokatu zuen, Simon Mancebo (23 urte) Araban egon zen lehen probintzian jokatzeko eta Diego Lopez (18 urte) Baskoniaren gazte mailan ibili zen jokatzeko. Hala, denak dira Baskoniaren harrobikoak.

MENDIKO BIZIKLETA Izerdia botatzeko gura beste hitzordu

Datorren asteburuan hasiko dute Debagoieneko mendi bizikleten martxetako eskaintza. Arantzazuko izango da lehenengo, irailaren 9an egingo dutena -08:00etan Oñatiko plazan batuko dira Arantzazuko auzoetxera tropelean igo gura dutenek, irteera bertan izango da 09:00etan-, eta hurrengo egunean, hilak 10, bi hitzordu egongo dira aukeran: Leintz Gatzagako 15. mendi bizikleta martxa -09:00etan nagusiak, 10:00etan gatzetxoak- eta Bergaran Palmerako lagunek antolatuko dutena 5.a -irteera 09:00etan, Agorrosinen-. Aretxabaletakoa -irailak 17- eta Arrasatekoa -urriak 8- izango dira hurrengoak.

SASKIBALOA GBCK Bergaran jokatu du irailaren 8an

Gipuzkoa Basquet Saskibaloia Taldea aurre-denboraldian murgilduta dabil, eta Porfi Fisacen mutilek guztira zortzi lagunarteko jokatu dituzte, liga prestaketa egokia egiteko.

Durangon jokatu dute lehenengo norgehiagoka, irailaren 2an, RETabet Bilbao Basket taldearen kontra (19:00). Hurrengo hitzorduak, baina, Debagoienara ekarriko du talde gipuzkoarra, egubakoitzean, irailak 8, GBCK Labegarietan jokatu duela Argentinako Obras Sanitarias taldearen kontra (19:00). Sarrera 5 eurokoa izango da, eta txartelak salgai daude Pol-Polen, Deporren, Ganbaran, eta Labegarietako kiroldegian.

"Istorioa modu errealean kontatzea da asmoa"

AITOR ARREGI GALDOS 'HANDIA' FILM LUZEKO ZUZENDARIA

Irailaren 22an hasiko den 65. Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean aurkeztuko dute 'Loreak' filma egin zuen lantaldearen azken lana: 'Altzoko Erraldoia'-ren istorioa

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

2016ko apirilean hasi zen Moriarti Ekoiztetxea *Handia* filma errodatzeko. Aitor Arregi Mondragon Unibertsitateko irakasle eta zinemagile oñatiarrak eta Jon Garañok zuzendu dute. Nekatuta daudela aitortzen duten arren, pozik daude emaitzarekin. **Zelan doaz azken joste-lanak?**

Gerorako geratu diren gauzatxo horiek ixten ari gara. Batetik, soinu nahasketekin ari gara; soinua beti bukaerarako ixten da, irudia guztiz bukatuta dagoenerako. Efektu bereziak dira, nahiko zalaparta izan dugu, baina katearen azkeneko zatian gaude, bai.

Efektu bereziak ziren erronka nagusietako bat. Zer moduz?

Pozik gaude; erronka nagusietako bat zen, bai, efektuen bitartez lortu gura genuen filma sinesgarria izatea. Alde batetik, erraldioaren figura dago, eta horrekin pozik gaude; grabazioan egin daitezkeen trukoak ditu, batetik, eta efektu bereziekin egindakoak, bestetik. Eta, era berean, XIX. mendeko giroa ere irudikatu behar genuen. Eta horrekin guztiarekin istorio errealista bat lortzea zen helburua. Orokorrean, fantasiako filmetan ez da inporta efektuak agerian agertzea, baina, kasu



Aitor Arregi zuzendaria eguztenezan, Donostian. XABI BERZOSA

honetan, kontakizuna ahalik eta errealean geratzea da ikuspuntua. Ez da fantasiako mundu bat, XIX. mendeko istorio bat baizik; hortaz, efektuak sartu behar dira efekturik ez dagoela erakusteko, eta hori da zailena.

Eta horretarako aukeratu duzue User T38 etxea. Zeintzuk dira?

Madrilgo enpresa bat da, hemen ez dago horrelakorik; hango bazkideetako bat Lasarteko mutil bat da, eta harreman ona izan dugu. Behar izaten den moduan, elkarrekiko pazientzia handia izan dugu.

Musikari dagokionez, Loreak-en moduan, Pascal Gaignerekin ari zarete. Zelan moldatu zarete?

Aspaldiko ezaguna da guretzat, ia betidanik ibili gara harekin lanean; horrek lagundu egiten du, azken finean, konfiantza batetik abiatzen zarelako. Hor badago fase bat *ajuste fasea* esaten zaiona; hau da, berak filma ikusi ondoren proposamen bat egiten du eta eztabaidatu egiten dugu gero. Hori da, agian, gauzarik zailena, *ajustean* gauzak adostea. Behin hori eginda, ibilbidea samurragoa da. Pascal

garantia bat da, badakizu egingo duen musika oso ondo egingo dela, eta sekulako lasaitasuna ematen dizu horrek. Pozik gaude musika emaitzarekin. **Orokorrean, hortaz, itxura ona hartzen diozula dirudi.**

Orokorrean, pozik nago emaitzarekin, baina gertatzen dena da oso kutsatuta ere banagoela; izan ere, auskalo zenbat bider ikusi dudana osorik; 200 aldiz? Batek daki! Zure ikuspuntua ahuldu egiten da eta ikusle arrunt batek ikusiko ez dituen gauza asko ikusten dituzu. Nire aurreko lanekin, urte batzuk behar izan ditut modu objektiboan ikusi ahal izateko. Hala ere, pozik nago, baina, aldi berean, urduri ere bai, jendearen erantzunagatik. Jendeak espektatiba handiak ditu, bi aldetatik: *Loreak*-en atzean zegoen taldearen hurrengo lana da, eta hark sortu zuen *zaratak* eragin du espektatibak sortzen; eta horretaz gain, *Altzoko Erraldoia*-ri buruzko istorioa da, pertsonaia ezaguna, XIX. mendekoa... Kuriositatea piztu duela dirudi. Horrek guztiorrek ilusioa eta urduritasuna sortzen ditu.

Abuztuaren 23an aurkeztu zenuten filmaren aurrerapena. Zelako feedbacka jaso duzue?

Hasiera batean, ona; orokorrean, iritzi ona. Batzuek esan digute gutxi erakusten dugula eta misteriotik jotzen dugula... Motela dirudiela ere esan digute. Hasierako *teaser-trailer* bat da, eta asmoa da hemendik aste pare bat barru beste bat botatzea, beteagoa. *Teaser*-a pentsatu dutenek -zuzendariak ez gara lan horretan ibili- asmatu egin dute informazioa ematen; asko erakutsi barik, aperitiboa da.

Irailaren 22an hasiko da Zinemaldia. Ze asmorekin zoazte?

Oraindik ez digute zehaztu zein egunetan izango den gure aurkezpena, baina, duda barik, ohorea da Zinemaldian egotea: horrek bermatzen dizu foku bat egongo dela horrenbeste esfortzu eskatu dizun proiektuan; izan ere, ikaragarria da zenbat film dauden apenas oihartzunik izaten ez dutenak gero; beldur hori izaten duzu filma egiten ari zarenean. Zinemaldiko esperientzia oso polita izan zen; kasu hartan, zuzendari lanetan beharrean, atzeko lanetan ibili nintzen. Sinatuko nuke antzerako bizi-penak errepikatzea. *Loreak*-ekin ez genuen saririk irabazi, baina indartuta atera zen, eta horrek lagundu zion geroko ibilbidean.

Aurrez Zinemaldian egon izana lagungarri izango da, ezta?

Esperientzia bat ematen dizu, badakizu zer egin zen ondo, zer ez... Abiapuntu bera izateak paralelismoetara bultzatzen zaitu, baina oso film ezberdinak dira. Talde bera dago, baina generoa, garaia... bestelakoak dira. Hain justu, hori da bilatu duguna, aurrekoa apurtzea.

Zinemaldiaz gainera, baduzue beste jaialdi batzuetarako asmorik?

Loreak-ekin moduan, banaketa etxe bat hartu dugu, eta orain hasi da erakusten; hortaz, ez dugu oraindik datu zehatzik, baina, dirudienez, harrera ona izaten ari da. *Loreak* bezala, *Handia* ere, gehienbat, jatorrizko bertsoian -euskaraz- mugitzeko asmoa dugu, Espainian bikoiztu egingo duten arren.

"SINATUKO NUKE 'LOREAK'-EN MODUKO BIZIPENAK IZATEA BERRIZ ERE ZINEMALDIAN"

Eduardo Apodaka soziologoa eta filosofoa 'EKT' saioan

laz argitaratu zuen 'Identitatea eta anomaliak' saiakera abiapuntu hartuta elkarrizketatuko du Ane Zabalak

A. A. ARRASATE

EHUko irakasle deustuarrak identitate terminoa zer den, zerk edo zeren arabera sortzen den eta dauden identitate formak -tradizionala, modernoa eta hipermoderno- aztertu zituen iaz

kaleratu zuen *Identitatea eta anomaliak* saiakera-liburuan.

Saiakera eskuetan hartuta egin zuen MUK bultzatzen duen Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa eskaini zuen Eduardo Apodakak hitzal-

dia, eta ikasgelan kontaktutakoak laburbildu zituen gero, Goiena telebistak egindako *EKT* elkarrizketa saioan.

Goiena Komunikazio Taldeak, Bilbo Hiria Irratiak eta Euskadi Irratiak MUREkin elkarlanean egindako saioa da, eta, oraingoan, Ane Zabala kazetariak izan zuen gonbidatuari galderak egiteko ardura. Maiatzaz geroztik, eguenero eskaini da Goiena telebistan *EKT* kapitulu berri bat. Irailaren 7an 21:30ean izango da oporren osteko lehenengoa.



Edu Apodaka EHUko irakaslea EKT saioan. GOIENA



Luis Vilek –ezkerretik bigarrena– abiarazitako Mushkum taldea zabalduko du aurtengo *Kulturate Akustikoak*. LUIS VIL

Kulturaten, eserita eta lasai entzuteko doinuak

Rock-and-rollaren askotariko erpinak ukitzen dituzten taldeak eta bihotza eta belarria gozaten dituzten ahotsak aukeratu ditu Kultura Sailak datorren astean abiaraziko duen musika zikloaren eskaintza osatzeko; bi asteburutan bost emanaldi izango dira

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Arrasateko Udaleko Kultura Sailak datorren egubakoitzean abiatuko duen *Kulturate Akustikoak* musika zikloaren barruan, ohiko egitarauetan sarritan entzuten ez diren musika estiloe-kin gozatzeko aukera izango da. Hori da, Karmelo Alberdi Kultura teknikariaren esanetan, bederatzigarrenez prestatu duten musika emanaldien helburua.

Aurrekoetan moduan, Kulturateko areto nagusia agertoki bihurtuko dute bi asteburutan. Emanaldi guztiak 20:00etan eta dohainik izango dira.

Sei beharrean, bost kontzertu Irailaren 16a *Elkartasun Eguna* jaia izango da Arrasaten eta egun horretarako ez dute emanaldirik lotu; hortaz, aurtengo bost izango dira. "Aurrekontua, hala ere, iaizkoaren bestekoa izango da, 12.000 euroren bueltan; talde gutxiago izan arren, jendetsuak dira eta urrunetik datoz; beraz, gastuak igo egin dira. Guztiak

Kulturate Akustikoak

Emanaldi guztiak Kulturateko areto nagusian, 20:00etan eta doan izango dira.

Irailak 8, egubakoitza

- Mushkum.

Irailak 9, zapatua

- Tori Sparks.

Irailak 10, domeka

- Maria Carnal | Marcel Bages.

Irailak 15, egubakoitza

- Bantastic Fand.

Irailak 17, domeka

- Ghost Number & His Topsy Gypsies.

lehenengo aldiz datoz, eta ez dago estilo bakar bat, nahiz eta AEBetako soinuak nagusituko diren. Esango nuke aurtengo kartela orekatua eta interesgarria dela. Aipatzekoa da Maria Arnal eta Marcel Bages bikotea; aurtengo kaleratu duten *45 cerebros y un corazón* lana 2017ko disko onenen lista guztietan dago. Bezperan –lehenengo zapatuan– izango den Tori Sparks taldearen apustu bitxia ere nabarmenduko nuke; bluesa eta bestelako musika estilo amerikarrak flamenkoarekin nahasten dituzte. Cartagenako Bantastic Fan klasi-koagoa da, baina oso kalitate onekoa", azaldu du Alberdik.

Euskal Herriko musikariek zabaldu eta itxiko dute aurtengo eskaintza: Luis Vilen estudioan sortutako Mushkum rock akustiko egitasmoa hasteko, eta 2014an sortutako eta Arizonako country-and-western eta folk doinuak jorratzen dituen Ghost Number&His Topsy Gypsies sei-kotea, egitaraua borobiltzeko.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko iraileko zozketa!



Autorako irakurgailu multimedia

Parte hartzeko sariaren izena: Irakurgailua



Diskoa Kokein taldearen binilo sinatua

Parte hartzeko sariaren izena: Kokein



Sarrerak Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA El barbero de Sevilla [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketak honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

UNZUETA SAGARDETEGIARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA *Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2017 (irailetik aurrera): 20 euro. Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

GORBEIAK

DONOSTIAKO

65.

ZINEMALDIRA

PARTE HARTU ZOZKETAN
ETA LORTU SARIA:

**1 BAZKARI AKELARRE JATETXEAN
BI PERTSONARENTZAT**

**2 SARRERA ZINEMALDIAREN
ITXIERA-EKITALDIRAKO**

**1 GAU MONTE IGELDO HOTELEAN
BI PERTSONARENTZAT**

Parte hartu ahal izateko, gutxienez 10€-ko erosketa bat egin edo zinemarako sarrera bat erosi eta erregistra zaitetz webgune honetan:

centrocomercialgorbeia.com



Promozioa indarrean izango da irailaren 1etik 25era arte.
Oinarri osoak hemen: www.centrocomercialgorbeia.com

GONBIDATU NAHI ZAITU
IRAILAREN 30EAN

**SAIL OFIZIALEKO
"HANDIA" FILMA**

**AURKEZTU NAHI DIZUEGU
URRIAREN 5EAN 20:00ETAN,
DOAN GORBEIA ZINEMETAN**

JASO ZURE GONBIDAPENAK GORBEIA MERKATARITZA GUNEKO GERENTZIAREN BULEGOETAN IRAILAREN 25ETIK AURRERA, ASTELEHENETIK OSTEGUNERA 9:00-14:00 ETA 16:00-19:00 EDO OSTIRALETAN 8:00-15:00 ORDUTEGIAN, ESERLEKU MUGATUAK, GONBIDAPENAK AMAITU ARTE

CINES
GORBEIA
ZINEMAK

ZINEMARIK ONENA
PREZIORIK ONENEAN

DOLBY. ATMOS™
TEKNOLOGIA DUTEN ARETO BAKARRAK



GORBEIA

Parque Comercial Gorbeia

Carrefour

CINES
GORBEIA
ZINEMAK



DECATHLON

Norauto

HERCO
DEPOT



merkak
kalastros



TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Mendeurrenera iritsita, aitortza

Ignacia Llodio Bengoa arrasatearrak 100 urte bete ditu uztailaren 31n eta lore eskaintza egin zioten. Plaka oroigarri bat eman zioten. Talde argazkia atera zuten bukaeran.

3. Ezkonberriak

Uztailaren 28an ezkondu ziren Maite eta Anibal arrasatearrak, eta Errekamendiko lankideek zorionik beroenak eman nahi izan dizkiete. "Zorionak!".

5. Ezkontza

Patricia Garcia eta Erik Garcia bihar ezkonduko dira. "Zoriontsuak izan! Besarkada handi bat, Unairen, Beñaten, Lurren eta Reberen partetik!".

7. Mende erdia elkarrekin

Angelita Enak eta Juanito Lizundiak urrezko ezteiak ospatuko dituzte. "Zorionak, etxeko guztien eta, bereziki, zuen hiru biloben partetik: Iraide, Kimetz eta Alaitz!".

2. Sanbartolomeak Zabaletan

Abuztuaren 24a egun berezia izaten da urtero Angiozarko Zabaleta auzoan. Meza, bertsoak, erromeria eta, nola ez, bolo txapelketa izan ziren.

4. Sardina jana

Eguraldi onak lagunduta, herritar asko animatu ziren, beste urte batez, Anelkarrek antolatutako sardina jan solidariora. Hala, giro ezin hobean pasatu zuten eguna.

6. Egun handia bihar

Xabi Arregi eta Ainhoa Fernandez de Arroiabe bihar ezkonduko dira, Dorletan. "Zorionak! Egun zoriontsua opa dizuegu! Musu handi bana, familiakoen eta lagunaren partetik!".

8. Urrezko ezteiak

Iñaxio Aranburuk eta Milagros Erañak urrezko ezteiak ospatuko dituzte domekan. "Zorionak eta musu handi bat, etxeko guztien partetik!".

URTEURRENA



Esteban Irurzun Otamendi



2016ko abuztuaren 20an hil zen, 54 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2017ko irailaren 1ean.

URTEURRENA



Rufina Garay Echave



2016ko abuztuaren 23an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.


Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2017ko irailaren 1ean.

URTEURRENA



Pedro Mari Igartua Arrue




2016ko abuztuaren 7an hil zen, 74 urte zituela.


Urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2017ko irailaren 1ean.

ESKER ONA



Juanita Alberdi Arreseigor




2017ko abuztuaren 28an hil zen, 87 urte zituela.


Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2017ko irailaren 1ean.

ESKER ONA



Mari Cruz Erosteigi Zubia



2017ko abuztuaren 13an hil zen, 98 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 2an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Aldez aurretik eskerrik asko etorriko zareten guztioi.

Oñatin, 2017ko irailaren 1ean.

ESKER ONA



Markele Lizarralde Arbulu




2017ko abuztuaren 20an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 2an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2017ko irailaren 1ean.

ESKER ONA



Antonio Igarza Cortabarría



2017ko abuztuaren 29an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2017ko irailaren 1ean.

ESKER ONA



Mikel Crespo Zuazua



Balaitusen hil zen, 20 urte zituela.

Une latz eta gogor hauetan gure aldamenean egon zareten eta gogoan izan gaituzuen guztioi bihotz-bihotzez mila esker.

Etxekuak. Aretxabaletan, 2017ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA



Mikel Crespo Zuazua



Balaitusen hil zen, 20 urte zituela.

Orain arte gurekin, Mikel, hemendik aurrera gugan.




Leintz bailaran, 2017ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA




Jose Ramon Petreñas Arrieta

Atletismoko epailea



2017ko abuztuaren 30ean hil zen, 80 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Arrasaten, 2017ko irailaren 1ean.

OROIGARRIA



Maria Soba Landeta

(Josu Bilbao lankidearen amama)



2017ko abuztuaren 30ean hil zen, Larrabetzun, 86 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Goiena Komunikazio Taldea. Arrasaten, 2017ko irailaren 1ean.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ZORION AGURRAK



BERGARA
Oier eta Asier Garitano Agirre
Asierrek irailaren 7an, 4 urte eta Oierrek 8an, 6 urte. Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu zuen urtebetetze eguna. Patxo handi-handi bat aitarien, amamaren eta, bereziki, Juleneren partetik..



BERGARA
Ane Mendi Beldarrain
Irailaren 7an, 6 urte. Zorionak, Ane. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Bihotz-bihotzez, etxekoen eta, bereziki, Sararen partetik.



ARRASATE
Odei Prol Barbero
Irailaren 5ean, urtebete. Zorionak, gure pirata txikia. Ospakizun berezia prestatuko dugu zure lehenengo urtebetetzean. Maite zaitugu.



ARETXABALETA
Alluiz Lazkano Gorostiza
Irailaren 2an, 10 urte. Zorionak, Alluiz! Ondo-ondo pasa deizula zeure urtebetetze egunean. Muxu potolo bana, etxeko danon partetik! Pa!



ARETXABALETA
Izar Zuazo Oianguren
Irailaren 2an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Egun ona pasa deizula eta milaka muxu aitaxoren, amatxoren eta, batez ere, Unaxen partetik, laztana!



OÑATI
Ekain Olalde Suarez
Irailaren 1ean, 8 urte. Zure familiaren eta lagunaren partetik, zorionak maillia! Ondo pasatu!



ARRASATE
Garazi Iñiguez Porcel
Irailaren 1ean, 7 urte. Zorionak, Garazi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Patxo potolo bat amatxoren, aitaxoren eta Landerren partetik.



BERGARA
Malen Bardezi Kerejeta
Irailaren 1ean, 5 urte. Zorionak, poliitt hori! Amestutako egun ederra euki deizula! Patxo handi-handi bat! Mui! Mui, aitaxo eta amatxo.



ARRASATE
Iraia Prol Barbero
Abuztuaren 27an, 7 urte. Zorionak, etxeko printzesa nagusia. Ondo pasatu zure egunean laguntxoekin eta familia osoarekin. Maite zaitugu.



ANTZUOLA
Inge Narbaiza
Abuztuaren 26an, 2 urte. Zorionak gure etxeko txikixari! Segi beti bezain pozik eta zure irribarre politx horrekin! Familixa guztixaren eta, batez be, Unairen partetik!



OÑATI
Oier Sagasta
Abuztuaren 26an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



ARETXABALETA
Nikole, Izadi eta Elaia
Zorionak, printzesak! Muxutxo pillia, etxeko danon partetik!



BERGARA
Asier Bardezi Etxarri
Abuztuaren 26an, 45 urte. Zorionak, aitaxo! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Patxo potolo bat! Mui! Mui, Malen eta Nerea.



ARETXABALETA
Manex Amozarrain Olabarria
Abuztuaren 25ean, 7 urte. Zorionak, Manex! Patxo potolo-potoluak! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



OÑATI
Katixa Zurutuza Garcia de Albeniz
Abuztuaren 25ean, 5 urte. Zorionak, *guapisima!* Ondo pasatu zure bosgarren urtebetetze egunean. Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
Aimar Garcia Lopez
Abuztuaren 21ean, 3 urte. Zorionak, maillia! Oso ondo pasatu zure eguna! Segi zure alaitasun horrekin! Familia danaren partetik. Muxuak.



OÑATI
Lide Lazkano Kortabarría
Abuztuaren 20an, 4 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure laugarren urtebetetze eguna. Muxu potolo bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Iker Garitano Arroyo
Abuztuaren 20an, 8 urte. Zorionak, maillia! Muxu handi-handi bat, familia osoaren partetik eta segi horrelako mutil jator eta alai izaten!



OÑATI
Saioa Biain Campos
Abuztuaren 20an, 8 urte. Ondo pasatu zure eguna *preziosa!* Muxu erraldoi bat, zure familiaren eta, bereziki, Iraideren partetik.



ANTZUOLA
Izadi Sodupe Larrea
Abuztuaren 19an, 8 urte. Zorionak, maillia! Segi orain arte bezalako irribarretsu eta alai izaten! Patxo potolo pila bat, Iratiren, aitaxoren eta amatxoren partetik!



ARAMAIO
Maddi Lizarralde
Abuztuaren 19an, 7 urte. Zorionak, poliitt hori! Jada 7 urte gurekin! Eskerrik asko, Maddi! Ondo-ondo pasatu eta patxo bat!



BERGARA
Malen Egaña Fernandez
Abuztuaren 18an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik.



DEBAGOIENA
Naia eta Ane Okina
Abuztuaren 16an eta 31n, 5 eta 2 urte. Zorionak gure etxeko bi printzesei! Patxo potolo bat.



LEINTZ GATZAGA
Manex Ugarte Zubizarreta
Abuztuaren 15ean, 8 urte. Zorionak etxeko danon partetik!



ARRASATE
Jon Aranzabal Vitoria
Abuztuaren 15ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Zein ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat, etxeko danon partetik.



ESKORIAZTA
Aroa Garro
Abuztuaren 14an, 11 urte. Zorionak, Aroaxo! Primeran pasatu zure egunian. Patxo potolo bat, aitaxoren eta amatxoren partetik. Mui!



ARRASATE
Nahia Alvarez Fuentes
Abuztuaren 14an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo bat, etxeko danon partetik. Ondo pasatu!



ARRASATE
Olaia Vitoria Herranz
Abuztuaren 12an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Hainbeste espero zenituen 5 urteak heldu dira. Zuretzat luze, guretzat motz. Mila muxu, guztion partetik!



ARRASATE
Naia Enbeita Ezpeleta
Abuztuaren 11n, 10 urte. Ze handi egin dan etxeko txikiena; 10 urte jada. Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Alain Fernandez Davila
Abuztuaren 11n, urtebete. Zorionak amamaren, Kolegiren, Egoitzen, izekoren, amaren eta aitaren partetik! Muxu potolo bat, pirata!



ARRASATE
Nerea Oroiz Muñez
Abuztuaren 5ean, 7 urte. Zorionak, Nerea! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat etxekoen partetik, polita!



ARRASATE
Nerea Baena Gorosabel
Abuztuaren 5ean, 33 urte. Zorionak, Txupitxuski! Betiko moduan, urrun baina nire bihotzian beti. Urte askotarako. Maite zaut! Oyi.




ARETXABALETA
Iraide Larrañaga Ormaetxea
Abuztuaren 5ean, 7 urte. Zorionak, sorgintxo: 7 urte bete duzu. Muxu potolo bat, etxekoen eta, bereziki, Jonen partetik.



BERGARA
Danel Goikoetxea Blanco
Abuztuaren 4an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Muxu handi bat, maite zaitugun guztion partetik.



LEINTZ GATZAGA
Martina Bengoa Basaras
Abuztuaren 4an, 11 urte. Zorionak, Martina! Patxo pila bat, Olaungo familixa danaren partetik.



BERGARA
Xabat Unamuno Etxeberria
Abuztuaren 3an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada handi bat, etxekoen partetik.



ARRASATE
Olatz Orobengoa Urkia
Abuztuaren 3an, 47 urte. Zorionak, tia potxola! Patxo potolo pila, Uribarriko zure familiaren partetik. Ondo pasatu eguna. Mui!



ARRASATE
Aner Martin Ayani
Abuztuaren 3an, 8 urte. Zorionak, Aner! Zortzi urte bete dituzu jada! Muxu handi bat, familixaren partetik!



BERGARA
Iker Andueza Mozos
Abuztuaren 2an, 8 urte. Zorionak, Iker! Muxu eta besarkada handi-handi bat, familiako partetik! Irati, amatxo eta aitaxo.



ELGETA
Irati Arantzeta Iribar
Abuztuaren 31n, 5 urte. Zorionak, Irati! Patxo potolo bat etxeko danon partetik! Ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
Maidar Navajo Marquez
Abuztuaren 30ean, 6 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat aitaoren, amaxoren eta, bereziki, Anerren partetik.



BERGARA
Andoni Moñux
Abuztuaren 29an, 9 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Miren, June eta Aitor.



BERGARA
Manex Martin Etxeberria
Abuztuaren 28an, urtebete. Zorionak, txapeldun, etxeko danon partetik eta marrubizko muxu bat Danelen, Julenen, Maddiren eta Oinaten partetik.



ARETXABALETA
Ane Lasagabaster Arrieta
Abuztuaren 27an, 5 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure egunien eta patxo asko, danon partetik.



OÑATI
Ander Urtaza Ronda
Abuztuaren 24an, 10 urte. Zorionak, *guapisimo!* Ondo pasatu zure eguna eta opari asko batu. Muxu handi bat, zure familiaren partetik.



BERGARA
Unax Anakabe Iturbe
Abuztuaren 23an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
Mikel Sanchez Arroiabe
Abuztuaren 22an, 4 urte. Zorionak, Mikel! Azkenian allau da zure eguna! Ondo pasatu eta patxo handi bat, danon partetik!



OÑATI
Adei Korkostegi Urzelai
Abuztuaren 22an, urtebete. Zorionak, Adei, zure lehenengo urtebetetzian, aitaoren, amaxoren eta bi amaman partetik.



BERGARA
Mikel Zaitegi Fernandez
Abuztuaren 22an, 7 urte. Zorionak, Mikel! Patxo handi bat, maitte zaittugun danon partetik!



ARAMAIO
Ilargi Bengoa Gomez de Segura
Abuztuaren 21ean, 10 urte. Zorionak, Ilargi! Oporrak, zure urtebetetzia... Jaso patxo erraldoi bana Hegoaren, aitaoren eta amaxoren partetik!



OÑATI
Peru Gezalaga Rodriguez
Abuztuaren 18an, 6 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu handi bat, etxeko guztion partetik!



ARETXABALETA
Maren Gonzalez Tejero
Abuztuaren 18an, 2 urte. Zorionak zure gurasoen eta familia guztiaren partetik. Ze azkar handitu zaren. Muxu potolo asko, guztion partetik.



BERGARA
Izaro eta Aizpea Lazpiur Eskibel
Abuztuaren 18an, 8 urte. Zorionak eta bi muxu handi, bixoi! Ondo-ondo pasatu eguna, etxeko partetik.



BERGARA
Maddi Hernandez Sarasketa
Abuztuaren 17an, urtebete. Zorionak etxeko printzesari! Belarri tirakada bat eta muxu erraldoiak nire begietako neskatxa maiteari!



ESKORIATZA
Ibon Agirre
Abuztuaren 15ean, 2 urte. Zorionak, bonbon! Jada bi urtetxo! Oso-oso ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat, etxeko guztion partetik.



ESKORIATZA
Ekia Garrido Igartua
Abuztuaren 8an, urtebete. Zorionak, printzesa! Ondo ospatu lehenengo urtebetetzea eta patxo handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Julen Uribeetxeberria
Abuztuaren 7an, 2 urte. Zorionak, Julentxo! Patxo handi bat aitaoren, amama Agurtzaneren eta osaba Jokinen partetik!



ANTZUOLA
Garazi Diosdado Lizarazu
Abuztuaren 7an, 9 urte. Zorionak, *printzes!* Primeran pasa dezazula urtebetetze eguna eta muxu pila bat, etxeko partetik!



OÑATI
Maialen Rodriguez Altube
Abuztuaren 7an, 3 urte. Zorionak, maitia! Musu handi bat, etxeko partetik.



OÑATI
Olaitz Lopez Montero
Abuztuaren 6an, 11 urte. Zorionak, neskatila! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo pila bat, etxeko partetik. Maitte zaitugu!



BERGARA
Egoitz Goiti Zubia
Abuztuaren 6an, 6 urte. Zorionak, *beltzija!* Muxu handi bat Intzaren, amaxoren, aitaoren eta senide guztien partetik.



BERGARA
Irati eta Enara Urrutia Retegi
Iratik abuztuaren 3an, 6 urte eta Enarak abuztuaren 6an, 4 urte! Zorionak, bikote eta patxo handi bat, etxeko danen partetik!



OÑATI
Ixone Guridi Urteaga
Abuztuaren 2an, 9 urte. Zorionak ematera gatoz Lekaixoka... familia guztiaren partetik.



OÑATI
Ane Garitano Moia
Uztailaren 31n, 9 urte. Zorionak, Ane! Urte askotarako eta muxu bana, etxeko danon partetik! Egun ederra pasatu!



OÑATI
Nora Kortabarria Sainz
Uztailaren 28an, 2 urte. Zorionak, maitia! Laztan handi bat, etxeko partetik!



ARETXABALETA
Maddi Eskibel Gomez de Segura
Uztailaren 26an, 5 urte. Zorionak, pitxin! . Familia danaren partetik, bost belarri tirakada. Maitte zaitugu. Aita, ama eta Haitz.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 1

BERGARA Kofraixak, Osintxun

18:15ean mozerro desfilea, 18:30ean Soraluzera bizikleta irteera, 20:15ean Sakatu elektrotzaranga, 21:00etan buruhandiak, 22:00etan II. Osintxun Musikara! Lehiaketa eta 01:00etan, Eskean Kristo taldea.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

OÑATI Bidebarrietako jaiak

Bigarrenegoz egingo dituzte. 19:00etan txorimaloak eta erraldoiak, 20:00etan garagardo dastatzea eta 22:00etan kontzertua, Kimera, Meltdown eta Late To Scream taldeekin.
Errementari plazan, aipatutako orduetan.

ANTZUOLA Elkartasun festa

Senegalgo ukitua izango du Anelkarrek antolatutako jaiak. Hango jaiak eta edariak probatzeko aukera egongo da. Herriko baserrietako produktuak ere egongo dira.
Zurrategi plazan, 19:30ean.

ARAMAIO Libertad Condicional taldea

Rock doinuak izango dira nagusi. Lau kidek osatzen dute taldea eta bi aramaioarrak dira.
Sastiñan, 19:30ean.

ESKORIATZA Errekan Gora: Wood Strings taldea

Aretxabaletako Oierrek, Aselek, Paulek eta Eñautek osatzen dute taldea. Formatu akustikoa da taldearen oinarria.
Hotela tabernan, 22:00etan.

ESKORIATZA Errekan Gora: Gatributu taldea

Gatiburen miresmenak batu ditu Aretxabaletako eta Eskoriatzako musikariak. Tributu taldea da.
Hotela tabernan, 23:00etan.

ZAPATUA 2

BERGARA Udako merkealdi azoka

Bedelkarko merkatarien azoka.
Seminarioko karpan, 09:00etan.

ANTZUOLA Trekutz Eguna

09:30ean oinez abiatuko dira Herriko Plazatik. Ostean, bizikleta lasterketa, bolo eta toka txapelketak eta bazkaria, bertsolariak eta larrain dantza, Trekutzen. Antzuolara bueltan, musika egongo da Herriko Plazan.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

BERGARA San Matei jaiak Uberan

10:30ean kalejira Uberatik San Mateira, 11:00etan meza, 11:45ean txistor pintxoak eta ardoa, ostean bola jokoa eta umeendako jolasak, 14:00etan bazkaria eta ostean kalejira Uberara. Afaltzeko, berakatz-zopa.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ARETXABALETA Arientzako kanpai-jole eskolaren ospakizuna

Hamargarren urteurrenko ospakizunak: 11:00etan ibilaldi akustikoa; 12:00etan kanpai-joaldia eliza ondoan; 13:00etan auzotarrak elkartuko dira eliza ondoan; 14:30ean bazkaria; eta 18:00etan kontzertua, Dixauen eta The Potes taldeekin.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

BERGARA Kofraixak, Osintxun

11:00etan umeendako jolasak, 12:00etan kuadrillen arteko jokoak, 15:00etan kuadrillen bazkaria, 15:00etatik 18:00etara puzgarriak, 18:00etan sukaldaritza lehiaketa, 18:00etan apar festa, 21:30ean afaria, 00:00etan Honat taldearekin erromeria eta 06:00etan *salda magikoa*-ren banatzea.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

OÑATI Bidebarrietako jaiak

11:00etan umeendako puzgarriak, 16:00etan mahai-futbol txapelketa, 19:00etan txorimaloak eta 22:00etan kontzertua, Trikuarri, Estu Ta Larri eta Gaitzerdi taldeekin.
Errementari plazan, aipatutako orduetan.

ARRASATE Zarugaldeko jaiak

11:30ean *Altxorraren bila* eta haurrentako jolasak, 13:00etan pintxoak doan tabernetan, 16:00etan mus eta partxis txapelketak, 18:50ean bonba

japoniarrak, 19:00etan Lore Gazteak taldea, 21:30ean afaria, 23:00etan AZ Gaubela taldea eta 00:00etan zezensuzkoa.

Zarugalde kalean, aipatutako orduetan.

OÑATI 'Co-escucha' tailerra

Bizipoz egitasmoaren barruan sortutako proiektua da. *Nazka* delako saioa egingo dute. Doakoa da, eta irekia herritar guztiendako.
Eltzian, 18:00etan.

ESKORIATZA Errekan Gora: Virgin Soul taldea

Bartzelonako Liceo kontserbatorioko ikasle ohiekin sortutako taldea da.
Hotela tabernan, 19:00etan.

ARRASATE Naturaleza Suprema taldea

Karen Tovar eta Lucia Vargas kolonbiarrek osatzen dute taldea. Rap oldarkorra eta konprometitua da euren ikurra. *Sonrisa Insurrekta European Tour* biraren barruan, geldialdia egingo dute Taupa tabernan.
Aipatutako lekuan, 20:00etan.

DOMEKA 3

BERGARA Kofraixak, Osintxun

10:30ean diana txistulariekin, 12:00etan meza, 12:30ean zezenak, 13:30ean poteoa, 17:00etan pilota partiduak, 19:00etan pintxo-potea eta 20:00etan saria Osintxuko urrezko kofradeari.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

BERGARA San Juan auzoko azoka

VII. ortu lehiaketan parte hartu dutenen produktuekin egingo dute: 11:30ean azoka eta 12:30ean dastatzea. Gainera, Arragoa taldeak kontzertua egingo du, eta erakusketa egongo da.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

OÑATI Bidebarrietako jaiak

12:00etan Oñatzeko dantzarien saioa, 15:00etan auzo bazkaria, 16:30ean mus txapelketa eta 20:00etan Txua eta Lokuria taldeen kontzertua.
Errementari plazan, aipatutako orduetan.



GOIENA

ARAMAIO Marixeka Eguna

Egun osoko egitaraua: 11:00etan salda eta txorizoa; 12:00etan umeendako jolasak, Jokulandiaren eskutik; 13:00etan meza, eta aurretik kantu jira; 14:30ean bazkaria; eta 17:00etan umeendako jolasak.
Etzi, domeka, Marixekan, aipatutako orduetan.

OÑATI 'Soy ellas' ikuskizuna

Familiendako ikuskizuna egingo du Rojo Telon taldeak, trapezio hirukoitza eta oihalak erabiliz.
Errementari plazan, 19:00etan.

ASTELEHENA 4

OÑATI Igeriketa ikastaroko eta ur ekintzetako izen-ematea

Gaurtik irailaren 8ra arte eman daiteke behin-behineko izena, kiroldegiko bulegoan (10:00-13:00 eta 16:00-19:00).
Aipatutako lekuan eta orduetan.

OÑATI 'Emeek emana' erakusketaren inaugurazioa

Emakumeak dira protagonista. Gerra eta frankismo garaiko kontakizunak emakumeen aurpegiak. Garai hartan izan zuten zeregin aktiboa jasotzen da.
Kultura etxean, irailaren 22ra arte.

ESKORIATZA Goitibehera tailerreko izen-ematea zabalik

Irailaren 22an egingo den tailerrean parte hartu gura dutenek hilaren 20a baino lehen eman behar dute izena, kiroldegian edo *gazteria@eskoriatza.eus* helbidean.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

MARTITZENA 5

ESKORIATZA Erretiratuen omenaldiko bazkaria: txartelak salgai

Irailaren 24an egingo den ekitaldirako txartelak eros daitezke

gaur, erretiratuen egoitzan, 11:00etatik 12:30era arte.
Aipatutako lekuan eta orduan.

ARRASATE Odol ateratzea

Arabako bankuko unitate ibiltariak geldialdia egingo du anbulatorioan, 16:30etik 20:00etara arte.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ANTZUOLA Portora bidia: erretiratuendako batzarra

Bidaiaren inguruko xehetasunak.
Landatxopen, 18:00etan.

ARAMAIO 'Magialdia', Imanol Ituiño magoarekin

18:00etan magia tailerak 7-12 urte arteko umeendako, 18:30etik 19:30era magia saioak herriko tabernetan eta 20:00etan magia ikuskizuna Imanol Ituiñorekin.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

OÑATI Haurren danborradako entsegua

Hilaren 16an egingo den ekitaldiko azken aurreko entsegua.
Eltzian, 18:45ean.

ANTZUOLA Pirinioetara irteera: izen-ematea

Irailaren 16-17an egingo dute Gabardito-Lizara-Candanchu irteera. Gaur eman daiteke izena, Olararen, 19:00etatik 20:00etara.
Aipatutako lekuan eta orduan.

ARRASATE Artzaintzaren ibilbidea: izen-ematea

11. etapa egingo dute Besaidekoek irailaren 10ean. Gaur eman daiteke



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Nahi izatea da gako

Uda honetan Catalunya bestek ikasgai eder bat eman digu. Bartzelonako eta Cambrillseko erasoan aurrean eman duen erantzunak aho bete hortz utzi nau. Estatu independente bat balitz bezala erantzun du, erreferendumerako hilabete eta erdi falta zenean. Estatu Espainolarekiko menpekotasuna hautsita dauka jada. Catalunya instituzioek eta herritarrek kudeatu dute erasoan ondorengo egoera, Madrili begira egon gabe; beraien azierto eta akatsekin. Mossoen zenbait aktuzio oso zalantzazkoak iruditu zaizkidan arren, ez dut uste bestelako poliziek hobeto egingo luketenik. Ez inguruan ditugunek, behintzat. Eta Estatu modura erantzuteaz gain, xenofobia ekiditeko hartu duten jarrera txalogarria iruditu zait. Baita komunitate musulmanak erreakzionatzeko izan duen gaitasuna ere.

Inbidia ez da sana. Edo nik hori uste dut, behintzat. Eta nik egun hauetan galanta sentitu dut. Estatu izan nahi dute eta horretarako prestatuta daudela erakutsi digute.

Gauza askotan ez dut bat egiten Presidentarekin, baina gustura hartuko nuke horrelako lehendakari bat.

Lekutan gaude!

BUKATZEKO

Ardiak gobernatzeko bikote aparta Oñatin

Bete-betean da artzain-txakur txapelketen denboraldia eta sari banarekin itzuli dira Kataluniatik Jose Mari Bengoa 'Urzabal' eta 'Eder' txakurra. Bosgarren egin zuten lehian eta Gorbea arrazako txakurrari arraza garbienaren saria eman diote



Jose Mari Bengoa *Urzabal* eta *Eder* txakurra Oñatin. L.Z.

Larraitx Zeberio OÑATI

Abuztuaren 27an jokatu zen Kataluniako Castellar de n'Hug herrian 55. Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa. Nor bere txakurrarekin, hamaika artzain lehiatu ziren, eta tartean ziren Jose Mari Bengoa *Urzabal* eta *Eder*. Bikotea bosgarren sailkatu zen txapelketan, laugarrenarekin berdinduta. *Eder* txakurrari, gainera, sari berezia eman zioten: arraza ezaugarri garbienak dituen txakurrarena, hain zuzen ere. "Gorbea arrazako txakurra da *Eder*. Bost urte beteko ditu. Opari jaso nuen eta orduan hasi nintzen mundu honetan", azaldu du Bengoak.

Oñatiarrak badaki kalitate oneko txakurra duela. Busturiako Euskal Artzain Txakurren

erakusketa monografikoan ere horrela aitortu diote. "Beste arraza batzuen aldean gutxitzen joan da Gorbea txakurraren presentzia, baina egin beharreko lanaren arabera arraza oso ona da. Gogorra", azaldu du.

Txakurrari erakutsi egin behar zaiola dio Bengoak, eta txiki-txikitatik: "Ezker, eskuma, etzan...". Aginduak ondo ematea ere oso garrantzitsua dela adierazi du.

Nahiko berria da Bengoa lan horietan. "Beti ibili naiz Oñatiko artzain-txakur lehiaketaren antolakuntzan, baina txakurrarekin erretiroa hartutakoan hasi nintzen. Industrian ibili izan naiz ni beti. Ardi batzuen zaintza hartu behar izan nuen hainbat kontu tarteko, eta hor hasi zen dena". Bikote ona osatzen dute Bengoak eta *Eder*-ek, eta domekan jokatzeko da berriz Legazpiko txapelketa. Mailari eutsi nahiko liokeela adierazi du Bengoak. Argi dauka, baina, ez dela erraza izango. "Gainerakoak ere ondo dabilta eta dena ez dago norberaren esku. Zortea ere behar da. Nahikoa da artaldeko ardi bat desbideratzea edo urduritasunagatik agindu bat gaizki ematea aurretik egindako lana pikutara joateko".



Bengoak, ezkerretik laugarrena, Carles Puigdemont presidentearen alboan. REGIO7

**DEBAGOIENEN EUSKAL
ESKOLA PUBLIKOA**
"GUZION ESKOLA, GUZION ARTEAN"

Matrikulazio epea zabalik

IRAILAREN 4tik 15era
605 77 39 92 goieskola@gmail.com

HELDUEN HEZKUNTZA
Matrikula 2017-2018 ikasturtea

EPA ARRASATE HHI
www.epaarrasate.hezkuntza.net
Arrasate Pasalekua 1, 3 eta 5. Tel.: 943 77 11 72

EPA BERGARA HHI
www.epabergara.hezkuntza.net
Barrenkale 33. Tel.: 943 76 44 52

goieskola
baikara